

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Irun*



Aurkibidea

# Udalerria: Irun

## Sarrera



Gipuzkoako bigarren hiria da, eta Euskal Herriko zazpigarren hiririk populatuena. Hiriguneaz gainera, Behobia, Bidasoa, Meaka, Katea eta Anakako auzoak biltzen dira udalerrira. Garraio, trenbide eta logistika lotune nagusia ere bada, industria eta merkataritza gunea izateaz gain.

Argazkia: [Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 61.113
- **Euskaldunak:** %35,85

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **34**
- Zintak: **58**
- Pasarteak: **594**
- Transkribatutakoak: **10**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **504**

## Proiektuak

- 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- EibarOrg blog komunitateak 10 urte
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte

# Hizlariak

## Junkal Aizpurua Igiñiz (1925-2018)

1925eko azaroaren 10ean jaio zen Junkal, Irungo Urdaiñe (Urdaienea) baserrian. 30 urte bete zituen egun berean ezkondu zen Jose Andres Aizpiolearekin, Urjauzi baserrira. Lau senidetan zaharrena zen Junkal, eta irundarrak zituen gurasoak. Ama Urdaiñe baserrikoa zen, eta aita ere Irungo kanposantu inguruko beste baserri batekoa. 1936ko gerran, Junkalek 11 urte zituela, Hendaian hartu zuten babes hiru anai arrebak (anaia txikiena ez zen artean jaio) izeba baten etxean; baina gurasoak Urdainen geratu ziren aziendak zaintzen. Junkalek ez daki zehatz-mehatz zenbat denbora egin zuten Hendaian, baina ongi gogoan ditu kezka handiz bizitako egun haiek, Irun sutan eta ke artean ikusten baitzuten.




Irungo Junkal parrokia ondoko Etxeberria eskolan ibili zen. Baserriko zein etxeko lanetan jardun izan du beti Junkalek; gaztetan, baserriko kanpo lanetan aritzen zen aitari laguntzen, eta esne partitzen ere ibili zen.

50 urte inguru zituela, Urjauzitik Irungo Larreaundi auzoko etxe batera joan ziren bizitzera Junkal, Jose Andres senarra eta seme-alabak.

## Euxebio Alkain Berra (1934)

Hondarribian jaioa, gurasoak bertakoak zituen, baina zazpi urte zituenean Irunera joan ziren bizitzera, Aduana kalera. Aitak arrantza utzi zuen, Renfera joateko lanera. Sagardotegia ere jarri zuen han, etxe azpian. Hiru senide ziren. Hondarribian Portuko eskolan ibili zen, eta gero Irunen Biterin eta La Sallen. 14 urterekin hasi zen lanean, aroztegi batean, marrazketa lineala ere ikasi zuen. Hori bai, bere afizioa musika izan da beti, panderoa jotzea. Emakume nafar batekin ezkondu zen.



## Josu Alsua Anzisar (1984)

Irundarra da Josu, 1984ko urtarrilaren 10ean jaioa. Irundarrak ditu aita eta ama ere. Hondarribian egin zituen oinarrizko ikasketak, "Seimor" ikastetxean lehenik, eta Ama Guadalupekoan ondoren. Batxilerrera egiten hasterako, ordea, Irunera itzuli zen, Pio Baroja institutura. Ingeniaritza ikasketak egin zituen gero, eta Danimarkan izan zen Erasmus beka bat medio. Elkarrizketa egin genionean Beasaingo CAF lantegian ari zen lanean, eta haurtzaroari, lagunarteari, munduan barrena egindako bidaiei, ezagututako jendeari eta zaletasunei buruz mintzatu ginen.



### **Enkarna Altzaga Iturriza (1920)**



Irungo Lapitze auzoko Alzubide baserrian jaioa. Ama bertakoa zuen, eta aita aldameneko baserri batekoa. Hiru senide ziren, baina amaren anaia (osaba) beraien adin beretsukoa zen. Baserritik bizi ziren: egurra saltzen zuten, esnea partitu, eta baserrian artzainak ere hartzen zituzten neguan. Mojetan ikasi zuen. Irunen garia erein zen azkenetako baserria izan zen Alzubide. Hondarribiko [Akilino Antzizarrekin](#) ezkondu zen, eta alaba bat izan zuten. Irunen bizi dira.

### **Maritxu Arbelaiz Arruabarrena (1926)**



Lapitze auzoko Jarolaberri baserrikoa. Ama bertakoa zen, eta aita Anaka auzoko Iparratxikikoa. Aita Afrikako gerratik gaizo bueltatu zen, eta 33 urterekin hil zen, biriketako gaitzak jota. Aita hil ondoren jaio zen Maritxu. Bederatzi urte inguru zituenean, Arratene baserrira joan ziren bizitzera, osaba-izebekin eta haien seme-alabekin batera. Gerra garaian milizianoak izan zituzten baserrian. Hamabi urterekin utzi zuen eskola eta baserriko lanetan ibili zen. Hamaseirekin poxpolo lantegian hasi zen lanean. [Felix Arruabarrena](#) irundarrarekin ezkondu zen, eta alaba bat izan zuten.

### **Felix Arruabarrena Susperregi (1923)**



Lapitze auzoko Belaskoene etxean jaioa. Guraso biak irundarrak zituen, baserritarrak. Zazpi senide ziren. Felixek bizkia du. Aitak trenak konpontzen egiten zuen lana eta amak alpargatak josten, etxetik. Lekanean ibili zen eskolan eta gero La Sallen, fraideekin. Gerra etorri zenean, Frantziara joan zen familia osoa, handik Bartzelonara eta gero Murtziara. Bueltan, CAFen hasi zen lanean, eta 47 urtean ibili zen han. [Maritxu Arbelaiz](#) irundarrarekin ezkondu zen, eta alaba bat izan zuten. Ehiza zalea da.

### **Lazaro Artola Carrillo Laxo (1937)**



Katea auzoko Otxoenea baserrian jaioa. Aita bertakoa zen eta ama Ibarla auzokoa. Lau anaitan bigarrena, sei urterekin hasi zen auzoko eskolan, baina segituan ardiak zaintzera bidali zuten amonaren baserrira. Hamar urterekin bueltatu zen eskolara, eta maisuak mutikoak ikasteko balio zuela esanda, Floresera bidali zuten (San Francisco de Asis ikastetxea). Arabara ere joan zen hiru udatan, behizain, erdara ikastera. Aduanako bulego batean hasi zen lanean; 1972an aduana agente titulua atera ondoren, bere kontura jarri zen. Irungo Usategieta baserriko [Mari Carmen Tolosa](#)arekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten. Meaka dantza taldeko kideak izan dira biak.

### **Olatz Bengoetxea Manterola Bengo (1990)**



1990. urtean jaio zen Irunen. Lagunek "Bengo" esaten diote, kuadrillan beste Olatz bat badutela eta. Kirola egitea, mendia eta lagunekin planak egitea dira Olatzen zaletasun nagusiak. Euskal filologia ikasketak eginak ditu, eta hezkuntza ez arautuan, aisialdi arloan eta euskalgintzan aritu izan da lanean, batez ere. Irun eta Hondarribiko Betti-Gotti euskara elkarteko kide da, eta herrigintzako hainbat proiektutan hartu izan du parte. Bere laguna eta lehengusina den Alaitzekin egin genion elkarrizketa, eta elkarren arrimuan hamaika konturi buruz aritu zitzaizkigun.

### **Patxi Bolaño Olea (1927)**



Meakako Arrizurteko baserrian jaioa. Gerra denboran erre egin zuten, eta Meazurin igaro zituzten zazpi urte, etxera bueltatu arte. Ama bertakoa zen, eta aita naparra; ur saltoko arduraduna zen hura. Sei senide ziren. Patxi Ibarlako eskolan ibili zen gerra ondoren, 12 urte bete arte. Gero baserriko lanetan eta mendian. Arotz lanak ere egiten zituen etxean. Soldaduskatik bueltan aduanan hasi zen lanean. Oiartzunera ezkondu zen, [Euxebi Arregi](#)ekin, eta gero Irungo Anaka auzora joan ziren bizitzera. Aita soinu-jotzailea zen, eta Patxi ere bai; hogeitaz urterekin Pikoketako bileran hasi zen jotzen. Ehiza eta arotzeria dira bere beste afizioetako batzuk.

### **Teresa Eizagirre Ondartza (1928)**



Donostiako Añorga auzoan jaioa, ama Antiguakoa zuen eta aita Errezilgoa. Bost urte zituenean Irungo Katea auzora joan ziren bizitzera, Ezurriki baserrira. Gerra etorri zenean, anai bat preso hartu eta desagertarazi egin zuten; beste bi anai soldadu eraman zituzten ondoren. Bederatzi senidetan zortzigarrena, auzoko eskolan ibili zen Teresa, eta gero baserriko lanetan. Esnea partitzera joaten zen, astoarekin. Hogei bat urte zituenean familia Behobia auzoko Gazteluzar baserrira joan zen bizitzera. Auzoko mutil batekin ezkondu zen, Larrezubikoa, eta Gazteluberri etxea egin zuten bizitzeko. Bost seme-alaba izan zituzten.

### **Joxe Antonio Etxeberria Txantre (1938-2014)**



Bidasoa auzoko Lastaola baserrian jaioa, aita bertakoa zuen; ama, berriz, Berakoa. Lau senide ziren. Baserritik ateratzen zuten bizimodua, esnea saltzetik hain zuzen. Behi dezente zituzten eta inguruko baserrietako esnea ere biltzen zuten, gero Irunen saltzeko. Auzoko eskolan ibili zen eta ondoren La Sallen, hamabi urte bete arte. Hamalau urterako bera zen etxeko negozioaren arduraduna. Behiekin txapelketetan ere ibiltzen ziren, baita sariak lortu ere. Ganaduari buruzko kontuak eta kontrabandoari buruzkoak aipatu zituen. Olaberria auzoko emakume batekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

### **Junkal Garmendia Arozena (1942)**



1942ko irailaren 8an jaio zen Junkal, Irungo Bidasoa auzoko Argiñenea baserrian, auzoan Bekoerreka izenez ezagunagoa. Bidasoa bertako Señoriotz baserrikoa zuen aita, eta ama, aldiz, Hondarribiako Jaizubia auzoko Patxalategikoa.

Sei senidetan zaharrena, umetatik baserriko lanetan aritua da Junkal, eta 14 urte zituela, Irungo Poxpolo-fabrikan hasi zen lanean, 18 urte bete bitartean. XX. mende amaieran Irungo merkatuan fruta saltzen hasi zen gero, eta langintza horretan hainbat urte egin zituen, merkatua eraberritu zuten arte. Donostiako Villa Betanian ere aritu da lanean, IHESak jotako gaixoak zaintzen, eta baita Irungo Junkal Parrokian ere, katekista lanetan zein Caritasen, borondatezko langile.

### **Justina Iparragirre Eizagirre (1913)**



Txumarraga baserrian jaioa, Katean. Aita Hondarribikoa zuen eta ama goierritarra, Olaberriakoa. Baserritik bizi ziren. Hamar senide izan ziren, bera bederatzigarrena. Auzoko eskolan ibili zen Justina. Ahizparekin ere jardun zuen lanean gerora Ongi etorri tabernan. Gerra hasi zenean, anai-arreba denak mugaz bestaldera joan ziren ihesi eta bera bakarrik geratu zen baserrian gurasoekin. Bi seme izan zituen.

### **Beñardo Irastortza Amiano (1928-2021)**



Irungo Ureder baserrian jaio zen. Ama bertakoa zuen eta aita Gaintxurisketako Iturralde baserrikoa. Zortzi senide izan ziren, eta aitona eta amona ere beraiekin bizi izan ziren. Baserritik ateratzen zuten bizimodua, ama Irunera joaten zen plazara. Eskolan hasi berria zela gerra hasi zen eta denbora batez joan gabe egon zen. Gero Irungo La Sallen ikasi zuen. Aita gaixo izaten zuten, eta hamasei urte zituela hil egin zitzaien. Orduan, senide zaharrena izaki, etxeko lanetan ederki saiatu behar izan zuen. Etxeko garo guztiak berak ebaki zituen segaz hamahiru urte besterik ez zituela, eta gerra ondoko sega apustuetan Beñardo hain ezaguna izana ez da kasualitate hutsa. Behin ezkontuta Irungo Correosen lanean zebilela, Berako mutil batek sega apustu kontua aitatu eta, bromaz hasi zena egia bihurtu zen: urte hartan Bidasoako Txapelketan nagusitu egin zen Beñardo. Geroztikako sega apustu eta txapelketa askotan aditu izan zen bere izena, segarako zuen trebezia goraipatuz. Horretaz gain, Beñardo Iparriarko harrobian lanean aritu zen ezkondu aurretik. Aita ere ezaguna zuen Nafarroako herri txiki askotan, soinu jotzailea baitzen. Berak ere aitaren afizioari eutsi, eta bere kabuz soinua ikasi zuen. Beñardo Irunen bizi izan da beti.

### **Gumer Irastortza Amiano (1931)**



Ureder baserrian jaioa. Ama bertakoa zen, eta aita Lezon bizitua, baina jatorriz Gaintxurizketakoa. Zortzi senidetan hirugarrena. Gumersindak 13 urte zituenean aita hil zitzaien, eta lan asko egin behar izan zuten familia aurrera ateratzeko. Baserritik bizi ziren, tratuarekin joaten ziren plazara. Gerra garaian milizianoak eta soldaduak izan zituzten baserrian. Ezkontzeko utzi zuen jaiotetxea; etxea egin zuten Katean.

### **Ramon Irastorza Artola (1927-2022)**



1927an jaio zen Irungo Katea auzoko Ureder baserrian. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, auzo bereko Otsoenea baserrikoa zen. Hamar senidetan gazteena izan zen Ramon. Aita itzai lanetan aritzen zen mineral, kisu eta hainbat material karraio. Amak, aldiz, baserriko lanetan jardun ohi zuen. Ramon igeltseritza lanetan jardun izan zen urte luzez, Lapurdiko kostaldean, batez ere. Anaia bat soinujolea zuen, eta hura panderoarekin laguntzen frankotan ibili zen gaztetan, Irunen barrena antolatzen ziren hainbat bileratan, eta baita auzoetako zein herriko jaietan ere. Zerbitzua egin bitarte eskiatzen trebatu zuten, eta Espainiako eski txapelketan parte hartu zuen, besteak beste, konpainiako soldadu gehiagorekin batera. Ramonek eskainitako testigantzen artean Irungo jaiei buruzko kontuak ageri dira, bai eta igeltseritza eta hargintza lanei lotutako jakingarri ugari ere. Aipatzen ditu Irungo eta inguruko hainbat soinujole, eta pieza batzuk jotzen ditu harmonikarekin.

### **Agustina Iridoi (1916-2007)**

Irunen jaio zen baserri batean. Eskola publikoan ibili zen umetan. Bertan ikasi zuen bordatzen eta ongi etorri zitzaion hori, gerora bordatzen lan ugari egin zituen eta.

### **Mikel Iturria Aristizabal Iturri (1968)**



Irundarra bada ere, 2000. urtean sarearen bidez bilakatu zen "eibarnauta", eibartarrak zerrendako eta EibarOrg-ko blog komunitateko kide. Egun Donostia Kulturako komunikazio sailean dihardu. Euskaraz idazten diren blogen artean irakurrienetakoa da berea, [Harrikadak](#).

### **Joxepa Larrasa Urtizberea (1931)**



Irungo lpartxiki baserrian jaioa, guraso biak irundarrak zituen. Zortzi senide ziren. Joxepak bost urte inguru zituenean familia Oiartzungo Arpidetxiki baserrira joan ziren bizitzera. Gurutzeko eskola publikoan ibili zen. Hamabi urterekin neskame bidali zuten Aiara, Olaetxe baserrira; 20 urterekin bueltatu zen. Irunera ezkondu zen, Lapitze auzoko Lizardi baserrira. Bi seme-alaba izan zituzten.



### **Akilina Lasa Arbelaiz (1920)**



Anaka auzoko Azkuegoia baserrian jaioa. Maizterrak ziren. Ama Hendaiakoa zuen, baina lpartxiki baserrian bizitua; aita Azkuegoia baserrikoa. Sei senide ziren. Akilina Pullana baserrira joan zen eskolara. Baserriko lanetan ibili zen umetatik. Plazara joaten ziren saltzera, eta esnea ere partitzen zuten. Gazterik hasi zen lanean, Irungo Sancheski lantegian.



### **Jose Antonio Martiarena Zabala (1929)**

Olaberria auzoko Urunea baserrian jaio zen; bertakoak zituen gurasoak ere. Zortzi senide irten ziren aurrera. Baserriko lanetan ibili da beti. Baserriko bizimoduaz mintzatu da. Jaizubiako [Sebastiana Ugarterekin](#) ezkondu zen. Biei batera egindako elkarriketa.

### **Galo Mujika Berridi (1932)**



Oiarzabaleko Bordan jaioa, Bidasoa auzoan. Aita bertakoa zuen eta ama Hondarribikoa, Zigarro baserrikoa. Zortzi senide ziren. Beraungo eskolan ibili zen lehenengo eta gero Endarlatzan. Baserritik ateratzen zuten bizimodua. 1965. urtean Montero hiltegian hasi zen lanean.

### **Felix Olazabal Lekuona (1924)**



Irungo Meaka auzoan jaioa, Txantrenea etxean. Sei senidetan laugarrena. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Behobiakoa; hark tren bagoiak kargatzen egiten zuen lana. Ama gazte alargundu zen. Felix auzoko eskolan ibili zen, baina askotan ez zuen joateko aukerarik. Morroi bidali zuten gertuko beste baserri batera, eta gero burdin meategietan hasi zen. Sugazti sifoi lantegian ibili zen urte askoan, kamioiarekin banaketa egiten. Irungo emakume batekin ezkondu zen, eta alaba bat izan zuten. Anaia zaharrena miliziano ibili zen, eta Langile Batailoietan gaixotuta hil zen. Hainbat txori eta perretxiko izen aipatu ditu, baita estraperlo kontuak ere.

### **Iñaxi Oruezabal Martiarena (1924)**



Olaberria auzoko San Anton baserrian jaioa. Guraso biak auzokoak zituen. Hamabi senide ziren, eta baserritik bizi ziren. Gutxi ibili zen eskolan, hamar urterekin neskame bidali zutelako gertuko baserri batera. Hogei urte arte etxeko eta baserriko lanetan jardun zuen, eta ondoren Bidasoa portzelana lantegian aritu zen lanean, Irunen.

### **Jose Luis Oruezabal Martiarena (1930)**



Olaberriako San Anton baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama ere auzokoa, Uruneakoa. Hamabi senide ziren. Estebenera joan zen eskolara. Baserriko lanetan ibili izan da beti.

### **Josefa Maria Setien Aranburu (1934)**

1934ko abenduaren 13an jaio zen, Endarlatsan, Irungo lurretan, Gipuzkoako Diputazioak bertan zuen eraikinean, aita mikeletea baitzuen Joxepak; mikeletea eta bertsolaria, Patrizio Setien hernaniarra, hain zuzen ere.

Gerra piztu eta nazionalak Irunen sartzeaz zirela, Joxeparen familiak muga igaro eta Biriatur egin zituen egun gutxi batzuk, eta handik Akitania eskualdeko Mimizanera joan ziren. 8 urte egin zituzten bertan, eta Irungo Larretxipi kalera itzuli ziren gero, Kantoia izeneko etxera. Irungo El Pilarreko mojetan jarraitu zituen Joxepak Mimizanen hasitako ikasketak, eta administrazio ikasketak ere egin zituen. Emakume ikasia eta jantzia, zinez kontu interesgarriak kontatzen ditu, bai eta hainbat gairi buruzko bere iritzia eman ere.

Ondare historikoa biltzen hamaika saio egindakoa da Joxepa, eta prentsa artikulua asko idatzitakoa. Adibide moduan, bere [blogaren](#) eta [facebookaren](#) loturak gehitu ditugu hona.

### **Joxe Mari Telletxea Lasa (1937)**

1937ko urriaren 3an jaio zen Joxe Mari, Irungo Olagarai baserrian, eta bertan bizi izan zen 26 urte bete bitarte. Seme bakarra izan da Joxe Mari. Gaztetan baserrian aritu bazen ere, Iberdueroentzat lanean hasi zen gero, eta langintza horri eutsi zion erretiroa hartu bitarte.

Iberduero enpresarentzat lanean aritutako lehen urteetan, argiaren prezioa kobratzen ibili zen Joxe Mari, etxerik-etxe; Irunen gehienbat, baina baita Hondarribian eta Gipuzkoan barrena ere. Lan bera egiteko hamaika modu ezagutu du Joxe Marik, eta hainbat urtetan zehar langintza izan duenari buruzko hainbat jakingarri eskaintzen ditu.



Biriatukoa zuen aita, eta baita aitaren gurasoak ere. Biriaturtik Irunera aldatzen lehena Joxe Mariren aitona izan zen, Kateako Ezurriki baserrira, morroi. Familia bertaratu zuen gero, eta handik Olagaraira aldatu ziren. Gogoan ditu Joxe Marik bere aiton-amonek esaten zituzten hainbat hitz (orgatxoa, kanita, ...), Irunen ezberdin esaten baitziren; hala ere, berak dio berdintsuak iruditu izan zaizkiola berari, funtsean, Biriaturko eta Irungo hizkerak.

Ama Irungo Bentetakoa zuen Joxe Marik, Katea auzokoa, Otazpi baserrikoa. Otazpi baserria koartela egiteko bota zuten gero.

Joxe Marik txakurrarekin ehizera joatea izan du beti zaletasun, eta gai horri buruzko kontuak ere aipagai ditu, beste askoren artean.

### **Joxe Manuel Tolosa Garmendia (1936)**



Usategieta Zahar baserrian jaioa, Irungo partean baina Oiartzun eta Lezorekin mugan. Ama bertakoa zuen, eta aita nafarra, Azkaratekoa. Zortzi senide ziren. Baserritik bizi ziren: amak Donostian partitzen zuen esnea. Bederatzi urterekin hasi zen Gurutzeko eskolan, eta 14rekin obretan lanean. Gero teila lantegian ibili zen: Ceramicas Oiartzun. 29 urterekin baserriko laneratar bueltatu zen. [Juakina](#) [Gaztelumendi](#) lezoarrarekin ezkondu zen.

### **Mari Carmen Tolosa Garmendia (1940)**



Irungo Usategieta baserrian jaioa, Lezoko eta Oiartzungo mugan. Ama bertakoa zuen, alargun geratu zen, bi umerekin, eta bigarren ezkontzatik sei seme-alaba jaio ziren, Mari Carmen tarteko. Denera zortzi. Aita Azkaratekoa zuen, nafarra. Ganadu tratularia. Zortzi eta hamalau urte bitartean, Gurutzeko eskolan ibili zen. Baserrian denetik egitea egokitu zitzaion: esnea partitzea, segan egitea, iratzea ebakitzea... [Lazaro Artola](#) rekin ezkondu zen, Irungo Otxoenea baserrira. Lau seme-alaba izan zituzten. Kantuzalea eta dantzazalea.

### **Maria Jesus Tolosa Garmendia (1938)**



Usategieta baserrian jaioa, Irunek Oiartzunekin eta Lezorekin muga egiten duen inguruan. Ama bertakoa zuen eta aita Tolosakoa, Azkaratekoa. Zortzi senide ziren. Baserritik bizi ziren. Ama Donostiara joaten zen esnearekin, Grosera. Maria Jesus Gurutzera joan zen eskolara. Umetatik ikasi zuen baserriko lanak egiten. 22 urterekin Jaizubiako Muñoa baserrira (Hondarribia) ezkondu zen, [Bittor Galarzarekin](#). Seme bat izan zuten.

### **Patxi Urtizberea Lekuona (1937)**



Oiartzungo Azerigorri baserrian jaioa. Ama bertakoa zuen, eta aita Irungoa. Bost urte zituenean Mendiondo baserrira joan ziren bizitzera, Irungo Olaberria auzora. Hango auzo eskolan ibili zen, baina ez luzaro, hamar urterekin Meakara joan baitziren, Iruxulota baserrira. Ibarlako eskolara joaten zen. Amak tratua saltzen zuen plazan. Hamar senidetan zaharrena izaki, 14 urterako lanean zebilen, baso lanetan. Ondoren argiketari ibili zen udaletxean, eta 26 urterekin garabi-gidari gisa hasi zen, eraikuntzan. Aiako emakume batekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten. Azken 28 urteetan Behobian bizi dira. Besteak beste, sendabelarrei buruz hitz egin du. Meaka dantza taldekoa da.

### **Pello Urtxegi Ruiz (1937-2022)**



Meaka auzoko Urjauzi etxean jaio zen, meatzeetako apopilo etxean. Aita, Igantzin jaioa, meatzeetako arduraduna zen eta ama, berriz, irundarra. Bost senide ziren. Auzoko eskolan ibili zen, baina artean mutikoa zela hasi zen aitarekin lanean, txanpinoiak hazten meazuloan. Meaka dantza taldearen bultzatzailea izan zen, eta lan handia egin zuen auzoko ohiturak berreskuratzeko. Meaka auzo elkarteko zuzendaria izan zen hogeitaz urtean, eta baita auzo-alkate ere. Ezkondua; lau seme-alabaren aita. Etxean gaztelaniaz hitz egiten zuten, eta bere kabuz ikasi zuen euskara, lagunekin.

### **Martin Zabalo Peluaga (1933)**



Irungo Meaka auzoko Antxotasaroia baserrian jaio zen. Gurasoak biak Irungoak zituen: aita baserri bertakoa eta ama Meakakoberroa baserrikoa. Hamabi senidetan zortzigarrena da. Artzaina da eta txikitatik datorkio zaletasuna gainera, ardi kontu asko esaten ditu. Baserriko lanak eta soldadutzako kontuak zehaztasun handiz kontatzen ditu; soldadutzan Melillan izan zen bera. Gerra ondorenean gose handia pasa zutela kontatzen du, eta beraiek baino askoz okerrago bai omen zen jendea Irunen.



### **Markos Zapiain Agirre (1963)**

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Aisia**

#### **1.1. Lehenengo sega txapelketa**

- **Hizlaria(k):** Irastortza Amiano, Beñardo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** IRN-007/007
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:17:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Errazkin, Aitor
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Herri-kirolak  
Lanbideak » Udal langileak

- **Laburpena:** Segan nolatan hasi zen. Correos enpresan zebilela, Berako batek Bidasoako sega txapelketa aipatu zion. Tolosara joan zen, segak erostera. Segajartzailea. Segamotak. Irabazi egin zuten.

### Transkripzioa

- Segan noiz hasi zifan? Segar... Segar apustuk izaten zien ordun o...  
 - Apustuik ez zen /etzen/ izaten orduan... Hemen, Bera Bidasoan hasi zien "Campeonato Bidasoa" edo... hola, eitten hasi zien, hor, fuboleko kanpua Bera Bidasoan bada, kanpo Gure Txokoa, uaindik han dago, noski! Ez dut uste uaindik kendu dutenikan hura... Gure Txokoa. Ta han, eitten hasi zien Bidasoko txapelketa bat o... Itten zutela, ta, ni ordun ya, ezkondu ta geo hasi nitzen Correosen lanian, Irungo estaziyan. Ta zea zen orduan, trenak eta ekartzen zuten korrespondentzia, karga-deskarga, ta geo aperturak eta gauzak eta... Batzuk uste dute Correos zea, karterua bakarra dala, biño guk beste lanak itten genittun. Frantzitik etortzen zen asko. Ta, korrespondentzia, ta hemendik hara ere bai, ta han, lanin ai giñelik, bazen Bera Bidasoko mutill bat guekin, txofer ibiltzen zena kamionakin, biño zea, furgonetakin. Ta harek, hola, eun batian aittatu zun, sega apustu bat ta eztakit ze ta, han'e itten zela, zean, Bera Bidasoan, ta urtero batek irabazten zuela /irabaztentzuela/. Hango batek. Ta nik esan nion ordun: "bai, gu ez gattuk faten ta!" Hala, en plan de bromas o cachondeo, bai, "harrek irabaziko dik, gu ez gattuk faten ta!". "Bai, fan, fan, fan!". "Emantzak apuntia!". Ta baita eman harek, apuntia! "Ui la ostra... Uain ze in ber dugu...". Uaindikan segik ez nuen, fundamentukoik! Igual itxian aitzeko bai, biño hara fateko sega pare bat onak behar tzien... Ta apuntia eman dute ta apuntia eman... Ui, meka... Uain berriro lagun, hor, kuadrilla, hor kuadrilla ikusi duzue, kuadrilla hoi zen, katxondeuan: "Hi! Hola ta hola Berara fan ber diu, segara fan ber diu" ta bai, ta "bueno, conforme"... Seittun lagunak denak conforme zien fateko. Ta, nijua, Tolosara joan nintzen, ferira, ta han bazien Arana... Bi anai, eztakit ezautzen dittuzuen /ezautzenttuzuen/, ferian ibiltzen zienak. Seme bat oaindik hor segitzen du, Hernanin ta, etortzen da, erremintak, segak eta saltzen dittuena, Hernanin... Pues, haiken atta ta osaba zien, bi anai, Arana hoiek. Ta haiek zittuzten hola segak eta joan nitzen hara ta esan nion: "Bira, hola ta hola, fateko zera in diu ta... Bera Bidasora, txapelketara ta, segak behar dittit; bi sega behar dittit /behaittit/". Ta bueno, bat bazula prepatua, Ipintza edo zela, zera, jartzaillia ta... Bazula bat harek prepatua, biño, han, Anoetan, ta Tolosatikan Anoetara izango die bi-hiru kilometro... Ta handikan esan zien "bueno, beste zerbaitte in behar baldin badit... Nik ekarriko dit /ekarrikoit/ sega!, prepatua zekak harrek-eta, bat behintzat" eta... Hala, guk han zerbait in beharra izango genun ta, behintzat handik bi ordura edo, han presentatu zen bere sega harrekin. Ta, sega hura diferente jarriya zeon, gu lehenen oso irekiyak ibiltzen genittun, oso irekiyak, ta hura berriz, itxiyago jarriya, ta beste formakua, ta... Harrekin hasi nitzen ta sega jartzaille harek esan ziola— hura Ipintza, neri...— aber zein zen segari hori, berak nahi ziala izautu, ta ui, hola ta hola, Irungua, ta zeifiek eman zion harrek eta hura etorri zen baserrira, harrek launduko ziala, ta beste sega ere jarri ta... Bueno, hala fan giñen ta... Lehemixiko urtian irabazi nun, fanta...

### 1.2. Bidasoako sega txapelketa

- **Hizlaria(k):** Irastortza Amiano, Beñardo
- **Elkarriketatzaillea(k):** Ansa, Ainhoa - Etxeberria, Idoia

- **Erref:** IRN-007/008
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:17:44. **Bukatu:** 00:19:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Errazkin, Aitor
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Bidasoako bigarren txapelketan gertatu zena. Oiartzungoak ondo prestatuta joan ziren, eta haiek irabazi duten, 44 kiloko aldea aterata. Hurrengo urteetan irabazi egin zuten.

### Transkripzioa

Geo, ondoko urtekoz ya jendia prepaatu zen ta Oiartzunen bazien hor Sorosartatarak o... Segariya, atta ere segariya zuten, ta haiek etorri zien hurrengo urtian haiek. Ta haiek etorri zien ya prepaatuak... Astiasuarrak zien berez eta sega haundiyaguak zittuzten, ta, prepaatuguak, ta, etorri ta, harek irabazi. Geo billu're hala itten zuten! Gu guriak ri-ra billu ta seittun pronto ta, haiek berriz tira ta tira ta azkeneako eskuarian gaiñian jarri bat eta bestik tiraka ta sekulako lotsagarrikiyak han, ta bueno, berrogeita lau kiloz harrek irabazi zigun. Ta... hatikan: "datorren urteko prepatu ber dit!". Beste sega haundixuak bazittun harek eta beste sega haundiyagua hartu eta fan giñen hurrengo urtian, biño, hurrengo urtian hura ez zen /etzen/ fan. Ta geo handik aurea beste hiru aldiz fan nintzen ta beste... Bai, hiru aldiz irabazi nuen. Lau(e)tan fan ta hirutan irabazi genun hor. Biño deus ez zuten /etzuten/ ematen ta hola ta geo beste lagun batzuk bazien neekin batian ta, haik fango ziela ta bueno, geo haikin laguntzen fan nintzen beste bi-hiru urtetan horrea. Ta hola, hortan geldittu giñen.

### 1.3. Segaren aztala eta kolpeak

- **Hizlaria(k):** Irastortza Amiano, Beñardo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhua - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** IRN-007/019
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:44:14. **Bukatu:** 00:47:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Errazkin, Aitor
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Segaren zatiak. Aztala. Belarra ebaki egin behar da, ez eten. Kontzentrazioa behar da kolpeak ondo jotzeko. Kolpe onak nola jo azaltzen du.

### Transkripzioa

-Segan zatik, esango zenittuzke, aztala lurrian jarri behar dela, baiño, lehenoko era, goitikan sega sartzia zen... Aztala bai, ahua ere bai, segan zatik zein dia?  
-Nik... Aztala lurrian, pisura behar baldin baduzu, pisurako, aztala sartu behar zaio lurrian. Aztala zapaldu, eskutilla, eskuiñeko eskutilla zapaldu, aztala ondo zapaltzeko lurrian, ta aztala lurrian ondo baldin badijua, lurren kontratik baldin badijua, raso ebakiko duzu. Altxatzen baldin baduzu, han lajatzen da belarra... Golpe berian, zentimetro bat goragotik jo o beherago jo, igual kostatzen den gauza da ta golpe berak tiratzen dittuzu /tiitzen ttuzu/ ta golpe askotan, pues, asko lajatzen duzu, ez baduzu /ezpaduzu/ sega ondo arrimatzen. Pisura oso inportantia da aztala sartzia, eta segari

bere segida eman, bere segida. Ez zea, tira muturrakin ta... Belarra ez da eten beh(a)r; in ber da ebaki. Ebaki belarra... Pasa... Labaiñak'e, hola, bultzaka, ez du nolanahi ebakitten, biño eitten baduzu hola, ebaki itten du. Segak igual. Segak'e bere segidan, rast..., ondo eamaten baduzu, neken erdiyakin joaten da sega. Oain, beti-beti ezin duzu golpia harrapatu ondo, biño... Biño saiatsu in behar da hortan e!, saiatsu hortan, golpe faxilla, batetik bestea, alde haundiya dago; golpe batetik bestea. Biño ondo kontuatzen bazea ta buruan gauza batekin, lo ke pasa ke, buruan eamaten die milla gauz, eta ez zaudez hartan, biño han eon behar da han ai den denbuan, hura: nola ein behar duzun. Ta nekien erdiyakin itten da. Bai... -Ta mokau haundiya sartu, sartzen saiatzeko... -Bai... -Hoi nola itten da? -Mokau haundiya hartzeko? -Bai... -Hoi manejatu behar duzu /behauzu/ han sarreran. Hau, hemen, jugada hau, pixkat, hola, hola itten baduzu, eamaten baduzu, mokadu haundiya hartuko duzu /hartukouzu/, ta hola itten baduzu, sega zabalera. Ta deskuidatzen bazea, gutxiyo igual, hola buelta itten badiozu, gutxiyo igual... No... Pixkat segida eman behar zaio, mokau haundiya hartzeko... Nik hartzen nun mokau dexentia; ez da nik esatia ondo, biño... Biño, pixkat luzatu ta hau, ezkerra luzatu ta "ra"... ta... Hemen, hola, belar goxo-goxuan ta sega haundi batekin ta hiru golpetan, bi metro, aurea.

## 2. Familia eta harremanak

### 2.1. 13 urte zituela galdu zuten aita

- **Hizlaria(k):** Irastortza Amiano, Gumer
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** IRN-020/003
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:01:43. **Bukatu:** 00:03:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Ama bertakoa zen eta aita Lezon bizitua, baina Goierrikoa jatorriz. 13 urte zituen aita hil zenean. Mendira joaten ziren aitarekin, kamamila biltzera; Goierriara ere joaten ziren berarekin, senitartekoak bisitatzen.

#### Transkripzioa

- Gurasuak... Ama baserriyan jaiua eta aitta Lezon bizi zen.  
- Ta Lezokoa zen?  
- Lehen-lehenotikan ez dekigu seguro ze herritan... gurasuak ze herritakuak zien, hor, Goierrikuak zien. Miño aitta oso gazteik hil zen, eta gu umiak giñen, eta ez genun gauz... asko, ondo, nahi genun bezela jakin. Ez da posible. Zertikan... amakin aixego [gosetzen] zea, aitta bizittu bazen, ondo, biñon nik hamahiru urte nittun aitta hil zenian. Eta... berrogei urtekin hil zen eta gu denak ttikiyak giñen. Ni nintzen senidetan hirugarrena... eta hamahiru urte nittun nik aitta hil zenian. Asi ke... gutxi dakigu... aittak kontatuta, gu akordatzen /akortzen/ gea gauza asko, aitta juaten zen guekin mendira, eamaten zigun mendira kamamillu biltzea, ta... aittakin juaten giñen familiyari bixitak ittea, ta hori txandaka hartuta, batian bat,



bestetan bestia, eamaten zigun parientiken itxea bixitak ittea ta hori... Aittak! Biño... hamahiru urte bitarte. Hortikan aurea posible duzu in... jakin, galdetu gauza asko gehio. Biño... geldittu giñen asko asko jakin gabe. Hola geldittu giñen, goguakin.

## 2.2. Txumarraga baserrian jaioa, Irunen

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Eizagirre, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** IRN-023/004
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:01:56. **Bukatu:** 00:06:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Txumarraga baserrian jaioa. 1700 ingurukoa da baserria. Egin zuten harginak trebeak zirela dio. Baserria ez da asko aldatu. Harrizko sotoa lehen bezalaxe dago.

### Transkripzioa

- Zer, non jaio zinen zu?  
- Baserri hontan.  
- Eta baserri honek nola du izena?  
- Txumarraga.  
- Txumarraga.  
- "Tienes allí... Tienes allí el...".  
- Bai, eta aspaldikoa da, ez da? Baserria.  
- U! Baserri honek izango ditu... Nik ez dakit beiñon sukaldeko... atiaan... atiaan markuan dago grabatua, e. Eta da "el año... 1700... 1700, oye". Eta oan gaude, aber, 2000... 12... 11, e.  
- Bai.  
- Pentsazu zenbat urte dittun, e! Bai.  
- Bai, bai. Eta zuk hau, hola, holaxe, orain dagoen bezala ezagutu zenuen Txumarraga, ala lehen pixka bat diferentea zen?  
- Ez, ez... eta nik ematen diot meritu haundiya gure aurrekoaki, zergatikan pentsazu ze harri... ze harri puska dittun arbol... esto... paretak, e? Eta oan... oan zerbitzen diote bandejan materiala eta gauza. Beiñon hoiek altxatzeko indarra behar zuten gizonak orduan, e. Eta... klaro, hemen bizi dena... bizi dena, pues ez dut /etztut/ pentsatzen, "verdad", gauza hoiek... Biñon nik meritu haundi ematen... haundi ematen diot horrerri.  
- Bai.  
- Den... denboa bateko gizonak bazutela... Eta, pentsazu, horrenbeste urte izateko, baserri honek orduan´e baziren arkitektuak abillak, e! Zergatikan, beittu, bada teillatuan egurra adornua bezala iña, e. Eta orduan ez zen / etzen/ oan bezala altxatzeko...  
- Makinarik, ez?  
- Ez, ez zen /etzen/ e. Eta bazutela abilidadea orduko arkitektoak´e. Bai. Eta beste aldian, bestia, etxiaan... aldian, etxe honen atzian, badia harriak... puf! metro biñon gehio altua dutenak. Eta nik esaten dut / esateut/: "hoieki laja pakian; ez kendu, e! Baserriya laja dagon bezela". Zergatikan, klaro, urtiakin, pues teillatuak hondatzen die, eta... Teillatu hau egin genun oan dala hiru o lau urte berrittu. Eta esaten zien: "Eta ez duzu / eztuzu/ nahi esto..."...

- Egurra berritu?

- Ez. "Ez duzu nahi..." Nola? Teillatua jarri beharrian, zementua eta... "Ez, ez, ez. Laja, laja. Jangoikoa eta lege zaharrak" esaten diet nik. Eta hola. Lehen bezela dao, baserriya lehen bezela. Klaro, barrena ez. Barrena... pentsazu, larogei urtian, ze... ze kanbio behar den izan. Beñon sotua, "entrada", lehen bezela dao harriya. Eta barriyoko apaiza etortzen denian - oso lagun zaharrak gea, eta-, esaten: "ez pentsatu nik esaten dutela, e, baiñon ez pentsatu harri hori kentzia, e! Zergatik, zergatikan da sanua, eta horrek du meritu [haundiya], aber pentsatu harriya hoiek nundikan ekarri zittuten, hor dena jartzeko. Oan zemento plaka bat bota, eta "vale", Beñon hori... hori hor da. Eta ez kendu, e!" Eta "Ez, nerekatikan ez dut kenduko, biñon nik konprenitzen dut ni... nere ondotikan heldu direnak, pues, ez dute /eztute/ pentsatuko nere... nik bezela igual. Eta nahiko dute, pues... jarri behar bezela, e. Biñon sotu hori hola geldittu da, bai.

### 3. Herria, azpiegitura

#### 3.1. Bizimodua baserritik: tratua eta esnea

- **Hizlaria(k)**: Irastortza Amiano, Gumer
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: IRN-020/004
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:03:26. **Bukatu**: 00:07:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Baserritik bizi ziren. Tratuaren plazara: berdura eta fruta. Esnea etxetik etxe partitzen. Kateara astoarekin eta karroarekin, eta gero tranbian, ahizpa bana toki batera. Donostia, Erreterria, Irun... Bretxa. Igandetan, biak Erreterriara feriara. Irungo plaza, gaur Mendibil dena. Abastos ordaindu behar zen.

#### Transkripzioa

- Aitta zertara dedikatzen zen?

- Baserriyan.

- Baserriko lanak?

- Baserriko lanak.

- Eta ama ere bai.

- Ama're bai.

- Tratuakin?

- Tratuakin, bai. Gu bizittu gea tratuakin, o sea, berdura, asko iten zen, eta... fruta're bai, fruta're bai asko zen. Gereziya ta mixpira ta sagarra ta denatetikan. Fruta asko zen. Eta horrekin bizitzen giñen. Esnia, eamaten genun, geo nik itxi atea, eta gero partittu, tratua're... harekin batian eamaten genun, eta itxe askotan esnia hartzen ziguten tokiyan hartzen ziguten fruta o berdura, 're bai, eta gainekua plazan saltzen genun.

- Nola juten zinen?

- E... Gu... E, Be... Itxetikan, baserritikan, Bentaseño, tranbia hartzea etortzen giñen astuakin, eta karruakin. Eta gero juaten giñen bi ahizpa, aski gaztetikan hasi giñen, eta bat Donostira, eta bestie Errenteira o

Irunez o segun nun ikusten genun benta hoviek zilar o... Harra juten giñen.

- Ordun ez beti toki batera.

- Ez. E... Ahizpa gehiena juaten zen Donostira, ni biño gaztegua zen, bestia, Donostira juaten zena. Ni biño bi urte gutxiyo. Eta... Harrek hartu zun kostunbre Donostira juateko eta Donostira asko juaten zen. Eta ni juaten nintzen Errenteria o Irunea.

- Donostiara ze tokitara?

- E... Bretainia.

- Bretainia.

- Eta... Gero, e... Irunen, eta Errenterian eta Donostian ibiltzen giñen astian. Eta igandetan juten giñen Errenteria biyek, zertik Errenterian izaten zen feri bat. Plaza bertan, kanpoko aldia, izaten zen feriyo. Etortzen zien arropa ta... saltzea. Eta jende asko, kanpoko're bai, etortzen zen konprak ittea. Eta guk han saltzen genun igandetan.

- Ordun egunero...

- Egunero. Ez zen igandian eta ez zen deus.

- Ta... Irunea juten ziñeten saltzera, ze tokitara?

- Irunien... Irunen bat barka... bat bakarra zen, plaza, oain merka Urantz dena... Puez hori. Merka Urantz ez, merka Mendibil. Mendibil, o... Bihian dagona, oain... oain ez dago beste... zerikan hor.

- Ta zure postua... eukitzen zenun han, ordaindu iten zan, nola, nola...

- Ordainduta, ordainduta. Juten giñen, eta hartzen genun tokiya, ta ordaintzen genun, etortzen zen abastokua, ordaindu harrerari ordaindu behar zena. Geo pagatzen zen hemen... Bentasen bertan, pagatzen genun ya... zera bat. E... Ez naiz akordutzen nola zun izena harrek. Tratua izatetikan, barriotikan atetzeko ya pagatu behar genun a... arbitrios, abastos. Pagatu ber genun. Ta gero plazea juatian han berriz plaza, tokiya hartzen genuna, eta han berriz abastos. Pagatu ber zen alde guztian. Gero salduta sosik ez bagenun hartuko're, lehenbiziko ondo pagatu behar genun denak. Eta gero, puez hori, astian toki hoi eitera eta igandetan Errenteria bakarra, zertikan beste gaitzuek itxi itten zien.

## 4. Politika

### 4.1. Anaiak anaien kontra, gerran

- **Hizlaria(k):** Irastortza Amiano, Gumer
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** IRN-020/016
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:33:15. **Bukatu:** 00:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Errazkin, Aitor
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra eta gerra ondorena. Gerra hasi zenean, bost urte zituen. Frontea etxean zuten. Bizilagunak gazteak ziren, eta gerrara eramane zituzten. Gero, nazionalak beste anaiak eramane zituzten. Elkarren kontra borrokan.

### Transkripzioa

- Gerra etorri zen ta gero, kozkortutakuan, gerra ondorengo gose urtiak...

- Ui, bai... Urte txarrak baitzien, oso txarrak... Gerratien, gerra, klaro, ni hogeita hamaikakua naiz. Eta hogeita hamaseian gerra zeatu zen, eta gure

itxian zagon frentie. Gerran. Gure itxetikan beste goiko baserriyak eta mendiya, han beste frentiak. Gure bizilagunak zien gaztiak, gu giñen umiak. Biñon beste aldian, bi bizitza zen, gure baserriya bi bizitza dittu. Eta, beste bizitzan zien denak haundittuak. Eta lehemixiko etorri zienak gerran, naz... Este... Hartu zittuzten, billatu zittuztenak itxian, zertik haik'e bazian beatzi o hamar o senidiak, eta ia denak mutillak, eta mutil gaztiak hartu ta eaman zittuzten beudekin frentea. Gero, etorri zien bestiak, aurea, batzuek eskapo, bestiak aurea, ta billatu zittuzten bestiak, eta jarri zittuzten anai batzuek bestian kontra, gerran.

- Ordun etxe batekuak...

- Etxe batekuak...

- Elkarren kontra...

- Anaiak, anai batzuek bestien kontra. Zertik lehenbixiko eaman zittuzten batzuek, ta gero bestiak sartu zienian bestiak hartu zittuzten. Ta hoik denak ikusi genittun guk gerran.

#### 4.2. "Gora Euskadi" esatea gaizki ikusia

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Eizagirre, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** IRN-023/020
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:50:18. **Bukatu:** 00:51:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena:** Irungo plazan izan zen mitin batean bere aitak "Gora Euskadi" esan zuen, eta ez zen ondo ikusia horregatik.

#### Transkripzioa

- Behin batez izandu zen mitin bat plazan, eta nere attak esandu zun, esan zun: "Gora Euzkadi!", "Gora Euzkadi!". Eta hori esan zulakoz, ez zeon ondo ikusiya. Orduan'e bazen politika ustela, politika ustela. Eta oain'e seitzen due.

- Eta aitari zer gertatu zitzaion? Aitari zer gertatu zitzaion?

- Ezer asko ez, biñon ez ondo ikusiya.

- Baina ez zuten kartzelara eramane?

- Ez, ez.

#### 4.3. Politikaz ez zuten hitz egiten

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Eizagirre, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** IRN-023/022
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:51:21. **Bukatu:** 00:52:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Ez da Errepublikarekin asko gogoratzen. Maria Cristina erregina Miarritzera joaten zen jokatzera. Politikaz ez da sekula asko arduratu.

### Transkripzioa

- Akordatzeko naiz nola esaten zuten erregina, Maria Kristina, jauten zen Biarritzera j... dirua jostatze... jo, jo... jokatzea. Bai. Eta behin batez frontera damutu eta buelta! Bai... Hori.
- Hori entzunda?
- Bai. Hori akordatzeko naiz.
- Bai.
- "La reina María Cristina".
- Eta Republi... Republika etorri zanian hona, e... banderak eta... ipini zituzten? Republikako... Republikanoen banderak eta?
- Pues no... no... Ez naiz asko, asko akordatzeko gauz horretaz, e, ez genun... Nere gurasoak ez ziren politikoak eta ez genun gauz horren gainea hitzikan egiten. Anaiak, anaiak izango zuten euren /euren/ ideak eta... baiñon ni... no... bastante... ignorante izandu naiz gauza horren gainean.

## 4.4. Euskararen eta euskal nortasunaren kontrako giroa

- **Hizlaria(k)**: Bolaño Olea, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: IRN-027/011
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:24:19. **Bukatu**: 00:29:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Errazkin, Aitor
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Politika eta Franco
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Euskara » Euskararekiko sentimendua

- **Laburpena**: Alabarekin hasi zen euskararekin kezkatzen. Gerra garaian, ez zen politikaz hitz egiten. Franco onena zela sinetsarazten zieten. Aitari pistola jarri zioten aurrean, erdaraz egiteko. Patxi bizilaguna nola hil zuten azaltzen du.

### Transkripzioa

- Euskararen asuntuba muittu zin niri nere alabak. Ze gauza... Harek hamar, harek zittunian e... hamahiru bat urte, hamalau ta, ez zin /etzin/ ba egun batian esan... Nola esan zien?... "Zu..." A! "Zu izango zea, zea, e... Española; ni ez", esan zian ta, "Honek ze esaten du?" ta [noaiño ez] sartua, ta ni ordun hasi nitzen pixkat, hi... harta, "Hi ez bayaiz española, ni're ez", esan nion!
- Baiña, garai hortan, gerra ondoren eta...
- Bai, ba! Hor, ba... Gue itxian ez zen /etzen/ hitzik atetzen zea politiko asuntuan, e! Ezta hitzik'e! Ixil-ixilik denak, jo... Bakizu ze beldurra zen! Bai, hoi, eozeiñek esan... Eoziñek e... Auzokuak, hori, halakuak, hori ari dittuk /aittuk/ laguntzen, zeari, gorriyai edo ez dakit zer... Segittuan "al paredón"! Han ez zan /etzan/ hitzik, han, beldur haundiya! Jo...
- Ez zen asko behar kartzelan sartzeko...
- Ez, ez, ez, kartzelan sartzeko askoik ez, gutxi aski, ta han ez zen /etzen/ hitzik atetzen e, jo... Ta ni hemen, geo, beatzi urtetan hartutzen zizun Francok, ta, Franco zen, zea, "el dios del mundo", ta uste genun hura zala, zea, ta, "bajo palio" ta, bakizu ze, ze istori ibiltzen giñen? Jo... Ta sartua muiñetaiño, zea, gue... gue nortasuna kendua. Guk ez genun gue nortasunik.

- Eta euskaraz in ezker eskolan maistrak ze iten zuen, errietan?

- Ba..., bai, bai bai, maestrak ez zuen /etzuen/ hor... hor dena kastillanoz zen. Ta gue attari bakizu ze in zioten? Hoi ahazteko sekulan! Nee bizitzan [...]. Joan zen ferira, astelehenan, ta han pues beren artian euskaraz, eta etorri zen militarren bat o, etorri izan zen, ta sumatu zitun euskaraz, in zioten “habla usted en cristiano, ¡Si no, le doy un tiro!” ta in zioten pistola jarri! Abin aurrian!

- Bo...

- Torri zen gue atta itxera, mahaia biño zuriyuo, torri zen. Joe!... Hoi, orduan, ordun ez zen /etzen/ bromikan... Joe... Hoi, [...], edozein gauz, hau, nik, ezautu nun, nere tokayua zena gizajua, Patxi, eta neri matte zian, ni mutil koxkorra, ta hola, gizon eiña, ta harek eskutan ibiltzen zien, besotan, ta... Bakizu ze gi..., ona! Ogi puska biño onagua zen gizon hura, horrek ez zun /etzun/ gaixtokeik ezer! Eta, e... zerbatte launtzen, esnia, baserritikan San Martzialara eamaten o, pixkat launtzen pizar bat aitu ta, han esan omen zion, andere batek esan omen zion: “Oye, Patxi...¿Tú qué andas por aquí? ¿Tú no has estau ayudando a los rojos, o?...” “Bueno...” “no se qué no se cuantos” esan zion /santzion/, eztakit ze esan zion, erdi duda in zun, eta handikan aste batea, etxea zijuala bizikletan, alto in, eta... “Acompáñanos”, ta... “¿A qué?”, ta... “Deja la bici ahí, y vámonos” esan zion. Eta, joan zen, eta eaman zuten zera..., esto... herriko etxera, herriko etxian zerbait ein zuten, hartu zuten furgonetan, zeara... Berara, Berako harrobira, pinpan!, ta akabo. Halako mutilla! Jo... Mutil bat! Jo... Mutil e(d)erra, ta gaiñea ona, e(d)erra ez, klaro, mutil ona zen! Jo... Patxi... Joe... Bai, bai, hola, hola, ez zen bromik! Bromik ez zen /etzen/, ez, ez, hor, hor, hua, ni akortzen naiz ongi, ez zela ... Franco besteik ez zela /etzela/ pentsatzen gue etxian, Franco besteik, hala zen! Ni geo hasi nintzen pixkat atetzen kalea ta, ta, saten zuten: “Franco! Zerri hori!” Ta ni iten nintzen, pues, eskandalizatu, han zen gue etxian, zea, [...] beharko! Klaro! Eta... “Franco, Franco...”, ez dakit /eztakit/ hasi zen joe, hola ta hola, ta, “Zerri hori, gue gauzak kendu ta ez dakit /eztakit/ zer, ta...” hoi aitutzen nun gizon zarrei eta joe, ne(r)e artian, puf! Ta geo handikan hasi giñen pixkat piztutzen! Bestela, gue nortasuna, gue nortasuna, seko!, geldittua! Zea, han ez zen gue zearik...

- Gaiñea urte asko, Frankismoa oso luzea izan zan...

- Jo, izugarriya! Biño geo hasi giñen pixkat, hasi giñen polliki-polliki, eta “zu izango zea españolista” esan zin, santa bai, “zu ez baza españolista ni ere ez naz ba!” Hoi da gauzak..., ordun hasi giñen pixkat, biño joe... Biño gu, giñen sartuak, “pero” zan... Arront, barrenian, e! Eske, eske...

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Altzubide baserrian jaioa, Irunen (IRN-002/002)

Altzubide baserrian jaioa. Errota. Amaren aitona. Ama 19 urterekin ezkondu zen, etxera.

### 2. Lapitz auzoa nolakoa zen (IRN-002/004)

Lapitze auzoa nola aldatu den. Larrañaga medikuaren lurak ziren. Autopista. Desagertutako baserriak: Lizardi, Farolazar, Farolaberri...

### **3. Arropa garbitzen; kuela (IRN-002/005)**

Ura bazuten etxeko lurretan, eta 14 urte zituenean jarri zuten etxeraino. Errekan arropa garbitzen. Errota amerikar batek erosi zuen, eta iturria egin zuen. Kuela. Osaba beraien adinekoa zen.

### **4. Artzainak etxean, neguan (IRN-002/006)**

Artzainak joaten ziren neguan, eta lan asko izaten zuten. Idiazabalgo Elorza eta Olaztiko Felix Imaz. Arditegia. Izeba zen sukaldaria eta jostuna. Artzainek zer jaten zuten.

### **5. Mamia egin eta partitzen (IRN-002/007)**

Mamia egiten zuten artzainek, eta beraiek inguruan ibiltzen ziren. Mamia partitzen zuten. Egurrezko kaikuak. Mamia nola egiten zuten. Errekako harriek erre zaporea ematen diote. Gatzagi naturala, arkumearena.

### **6. Gazta egiten I (IRN-002/008)**

Artzainek gazta egiten zuten artzainek. Izeba Maria laguntzen ibiltzen zen. Gorosti adarrarekin nahasten zuten esnea.

### **7. Arkumeen tripotxak (IRN-002/009)**

Arkumeak hiltzen zituzten artzainek. Odolarekin tripotzak egiten zituzten, saltzeko. Iturrira joaten ziren hesteak garbitzera. Aingirak izaten ziren.

### **8. Gerra garaian, artzainek negozioa (IRN-002/010)**

Gerra denboran arkumeak eta tripotxak saltzeko nola ibiltzen ziren artzainak, ezkutuan. Plazan ere saltzen zituen. Esnea eta gazta.

### **9. Gazta egiten II (IRN-002/011)**

Gazta zumitzean sartzen zuten. Dena eskuz egiten zuten hasieran. Nola estutzen zuten. Moldea eta karga. Ganbaran jartzen zituzten lehortzen. San Joseetan saltzen zituzten arkumeak.

### **10. Amonaren erditze txarrak (IRN-002/013)**

Amonak hamar haur izan zituen, eta hiru irten ziren bizirik; erditze txarrak izaten zituen. Kanpoko umeak hazten zituen. Karlitos izeneko umezurtzaren kontuak; erregeen tartekoa omen zen. Seme bat izan zuten gero, Inazio.

### **11. Eskola garaia; debaldeko ikastetxeak (IRN-002/015)**

Mutilak La Sallera joaten ziren, debalde. San Martzial eskola ordaindu egiten zen. Fraideak aitari esan ziona. Buenos Amigos ikastetxea. Pilar ikastetxean ibili zen bera, mojekin. Dotrina euskaraz ikasi zuen, gainerakoa erdaraz.

### **12. Ikastetxeko uniforme eta kapa (IRN-002/017)**

El Pilar ikastetxera bazkariarekin joaten zen. Uniformea zuten, kaparekin. Galtzetak erori egiten zitzaizkion. Txarolezko zapatak, jaietarako. Izebak Hendaian erosten zituen kapak. Arropa ere berak josten zien.

### **13. Jale txarra, tifusa harrapatu zuen arte (IRN-002/019)**

Oinez joaten zen eskolara. Hiru ordu laurdeneko bidea zegoen. Azkar joanda, ordu erdi. Bazkaria eramaten zuen. Jale txarra zen, eta argal zegoen. 13 urterekin tifusa harrapatu zuen, eta ondoren antsietatez hasi zen jaten, gehiegi. Medikua. Gerra etortzean argaldu zen.

### **14. Errepublikan, gurutzeak kendu zituzten (IRN-002/021)**

Errepublika garaia. Gurutzeak kendu zituzten ikastetxetik. Orduan, mojek katea jarri zieten, gurutzearekin, lepotik zintzilik. Gizon batek ez zion horrekin zentro errepublikanora sartzen utzi nahi.

### **15. Mojen zorrotasuna janzerarekin (IRN-002/022)**

Mojak zorrotzak ziren janzerarekin. Gona motzegi zuela eta, barrena askatu zioten eta mezetatik bidali zuten. Amak esnea partitzen zuen kalean; gertatua jakitean pena handia hartu zuen, baita lotsatu ere. Garbitasunari ere garrantzia handia ematen zioten mojek.

### **16. Errepublikaren etorrera (IRN-002/024)**

Errepublika. Bandera errepublikanoa jarri zuten Irungo udaletxean. Eskolara bidean, manifestazioa ikusi zuen.

### **17. Gerra hasi zeneko kontuak (IRN-002/028)**

Gerra hasi zela jakin zutenean, hustu egin ziren Elitxuko feriako barrakak. Ama negarrez joan zen behin etxera, gerra hasi zela esanez. Kezkatuta zegoen, semeak eramango zituztelako. Inazio osaba eramane zuten, italiarrekin.

### **18. Leihoetan koltxoiak jarrita (IRN-002/030)**

Ez ziren baserritik joan, gerra hasi zenean. Umeak Frantziara bidaltzeko aholkatzen zioten amari, baina osaba kontra agertu zen. Bi suren tartean egon ziren. Koltxoiak jarri zituzten leihoetan, eta gurdiaren azpian sartzen ziren.

### **19. Pinu baten gainera igo zen mutila (IRN-002/032)**

Zubeltzu hartu zutenekoa. Hildako dezente egon zen. Mutil bat pinu baten gainera igota egon zen hiru egunez, eta ilunabar batean etxera joan zitzaien. Iruñekoa zen.

### **20. Irun hartu zutenean, ikustera joan ziren (IRN-002/033)**

Erreketerik ez zuten izan baserrian. Ondoko etxean bai, militarrek. Baron de Oña Colon pasealekuan egon zen ezkutatuta. Nazionalak sartu zirenean, hura ateratzera joan ziren. Alai Txokora joan ziren Oñaren neskameak. Beorlegi koronela. Sakeoa.

### **21. Irun sutan eta militarrez betea (IRN-002/035)**

Irun erre egin zuten, eta gero militarrez bete zen. Plaza berrian fruta postu asko zegoen, eta hura jendez bete zen. Baita udaletxea ere. Pozik zeuden beraiek, baina gerra ez zen bukatu. Inazio osaba eta Anjel anaia soldadu eramane zituzten.



## **22. Baserriko lanetan; ez zen asko irteten (IRN-002/038)**

Baserriko lanetan ibili zen anaia gerran zegoen bitartean. Auzoko neskek laguntzen zioten. Ordurako nobioa ere bazuen. Bilerak. Ez zen asko irteten, bakarrik bueltatu behar zuelako.

## **23. Mezara, goizeko bostetan (IRN-002/039)**

Mezetara Junkalera joaten ziren. Goizeko bostetako mezetara, ondoren esnea partitzeko. Behiak jezten ez zuen ikasi.

## **24. Ureder baserriaren ingurua (IRN-006/002)**

Urederren inguruan, Beñardo jaio zen etxearen inguruan, beste zer baserri zeuden aipatzen du.

## **25. Ureder eta Jaizkibelen etimologia (IRN-006/003)**

Ureder eta Jaizkibel izenen jatorria nondik datorren azaltzen du. Etxe inguruko iturri batean ur ona ateratzen omen zen; gaur egun, ordea, iturri hori ez dago dagoeneko.

## **26. Ura lortzeko sistemak: iturria eta depositua (IRN-006/004)**

Etxean ez zuten urik, etxetik gertu zegoen iturritik ekartzen zuten bizkarka; hala ere, teilatuko ura biltzeko depositua bazuten baserrian. Ura iturritik ekartzeko nola moldatzen ziren eta zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du.

## **27. Arropa garbitzeko amak egin beharrekoak (IRN-006/005)**

Arropa astean behin garbitzen zuen amak iturrian: hiru auzorentzako hiru harri ziren han. Amak arropa iturrira nola eramaten zuen azaltzen du Beñardok. Arropa garbitzeko "Lagarto" xaboa erabiltzen zuen amak eta gero "al verde" edukitzen zuen usain ona har zezan.

## **28. Gerra ostean baserrian bizitzearen abantailak eta eragozpenak (IRN-006/007)**

Umetan baserritik bizi ziren: tratua, fruta, esnea... handik ateratzen zuten bizitzeko adina. Gerra ostean baserriko jendea kalekoa baino hobeto bizi zen, baserrian beti baitzen jateko zerbait. Baserrian, hala ere, izan zituzten zailtasunak: ez zieten ematen ogirik errazionamenduan, ez zieten uzten artoa errotan ehotzen... Horregatik, estraperlora jo zuen jende askok; baina umeei ez zitzaion esaten, norbaiti esango ote zioten beldur. Nafarroako errotatara joaten ziren isilka zakua hartuta.

## **29. Errotan beti ez berri onak (IRN-006/008)**

Gerra ostean, Endarlatsako errotara isilka joaten ziren Nafarroara zakua hartuta. Hara jende asko joaten zen, eta ilaran itxaron egin behar izaten zuten txanda iritsi arte. Behin, artoa ehotzeko zain zeudela, gertatutako alukeria kontatzen du.

## **30. Irinik ez, baina isuna bai (IRN-006/010)**

Nafarroara errotara joateko, oinez joaten ziren astoa zakuz kargatuta zutela. Bidean batzuetan guardia zibilekin egiten zuten topo. Behin errotan irina

errekisatu zieten eta amorruez beteta itzuli behar izan zuten etxera. Hurrengo egunean, salaketa zeukatela eta isuna ordaindu behar zutela konturatu ziren. Lehen ez zekiten artoa eho gabe jaten edo eskuz txikitzen.

### **31. Garia egiteari utzi zitzaionekoa (IRN-006/011)**

Beñardok oso ume zela ezagutu zuen garia etxean. Garia egiteari utzi egin zitzaion, txoriek jan egiten baitzuten. Beñardok ez zuen ikusi izan nola lantzen zuten garia. Gerra aurretik ogi nahikoa zegoen, gerora gerrak ekarri zuen eskasia.

### **32. Soldadutza Afrikan egin zuen urte eta erdian (IRN-006/012)**

Soldadutza Afrikan egitea tokatu zitzaion. Urte eta erdi eman zuen han. Bere aurreko kintek urte gehiago egon behar izan zuten soldadutzan, batzuek baita 7 urte ere.

### **33. Gerra hasi aurreko giroa (IRN-006/013)**

Gerra hasi zenean, Beñardok 7 urte zituen; gogoan ditu orduan bizitakoak. Trenbidean dinamita jarri zuten, eta handik gutxira hasi zen gerra; denak armak biltzen hasi ziren orduan.

### **34. Gerran emakumeak ere borrokan (IRN-006/014)**

Gerra hasi zenean, frontea etxe parean tokatu zitzaien. Baziren emakumeak milizianoen artean. Tiroketa bat gogoan du eta orduan neska batek izandako ausardia. Inguruko ezagunen artean izandako banaketa ideologikoz hitz egiten du.

### **35. Gerrara joateko beldurra (IRN-006/015)**

Aita beldurrez egon zen gerrara deituko ote zuten, baina azkenean libratu egin zen; osaba bat joan zen gerrara eta beste bi osabek Frantziara egin zuten ihes. Osaba haietako bat mugan zauritu egin zuten.

### **36. Bonbardaketa: jolasa eta beldurra (IRN-006/016)**

Gerra garaian, hegazkinak Irun bonbardatzera etortzen zirenean, trenbide azpiko zubian ezkututzen ziren. Bonbardaketa haiek jolas moduan hartzen zituzten umeez, nahiz eta batzuetan beldurtu egiten ziren. Bonbardaketatako oroitzapenak gogoan ditu.

### **37. Bonbardaketetako gordelekuak (IRN-006/017)**

Gordelekura ez ziren familiako den-denak joaten: amona etxean gelditzen zen, eta ama batzuetan ere bai. Gordelekura joateko abisuak nolakoak izaten ziren eta gordeleku haiek non zeuden kontatzen du. Azkenean, ohitu egin ziren gerrako tiro eta bonbetara.

### **38. Milizianoen jarrera jendearekiko (IRN-006/018)**

Milizianoekin zer-nolako harremana izan zuten azaltzen du. Behin, milizianoek emakume bat arrautza bila zihoala ikusita, haren atzetik joan ziren, eta emakumea ihes egiten saiatu zen; azkenean, milizianoek harrapatu egin zuten arrautzekin, baina libre utzi zuten. Milizianoak etxe barruetara sartzen ziren, baina ez zuten askorik eramaten, ez baitzegoen askorik eramateko ere.

### **39. Irun erre eta jende asko desagertu (IRN-006/019)**

Irun erre egin zuten. Osaba batek beldur handia zuen eta familia Frantziara joan nahi zuen; azkenean, ez ziren etxetik mugitu. Gerora, osaba preso hartu zuten. Garai hartan, jende ugari desagertu zen, gehienbat Oiartzunen. Garai hartan, hitz egiteko beldur handia zegoen.

### **40. Kontuz erreketeeekin (IRN-006/020)**

Erreketeek, Nafarroatik Irunera sartu zirenean, gizon asko galdu zituzten frontean, eta oso gaiztotuta etorri ziren. Mutil batek erreketeeekin topo egin zuen eta "arriba España" esatera behartu zuten "buenos días" esan beharrean.

### **41. Baserritarrei burla, baina gose garaian zer? (IRN-006/021)**

Gerra aurretik baserritarrei burla egiten zieten baserritar izateagatik; baina gerra ostean ez zegoen burlarik, baserritarrek behintzat jatekoa bai baitzuten orduan. Ika-mikak izaten zituzten kaletar erdaldunekin. Eskolan gaztelaniaz ikasten zuten; maisu erdalduna zuten, ona baina zorrotza. Gerra etorri zenean, ezin izan zuten eskolara joan; baina gerra bukatutakoan Irunen aritu zen ikasten La Sallen.

### **42. Eskola utzi behar etxean laguntzeko (IRN-006/022)**

Eskolan ez zuen denbora asko eman ahal izan: 11-12 urte zituenarako utzi egin behar izan zuen, baserrian bai baitzegoen nahikoa lan egiteko. Eskola utzitakoan, burura etortzen zitzaizkion eskolako buruketen erantzunak.

### **43. Etxeko lanen banaketa (IRN-006/023)**

Baserrian jo eta ke aritzen zen lanean, orduan ikasi zuen segan: 13 urterekin etxeko garo guztiak ebaki zituen berak bakarrik. Inguruko baserrietan ere laguntzen aritzen zen. 16 urte zituela aita hil zen, eta seme zaharrena zenez, baserriko buru izatera pasa zen. Ama Irungo plazara trenez joaten zen tratua eramatera; buru gainean eramaten zuen jeneroa. Esnea auzora etortzen zen esnezaleari saltzen zioten hasieran; gerora Erreteriarra eramaten zuten arrebek.

### **44. Garotara 13 urterekin (IRN-007/002)**

13 urterekin garoa bakarrik mozten zuen. Azpiak egiteko erabiltzen zuten garoa. Simaurra edo gorotza, baratzerako. Garo metak egiten zituzten etxe atzean.

### **45. Garoa eta inaurkina (IRN-007/003)**

Garoa eta inaurkinaren (orbela) arteko ezberdintasuna. Iratzea. Jaizkibelen inaurkina egiten zen. Ote motak.

### **46. Gorotzarekin lotutako lanak (IRN-007/004)**

Ardirik ez dute izan. Txerriak, astoa eta behiak bai. Gorotza, belar soroan partitzeko. Aitonak esaten ziena, lana ondo egiteko. Arotza zen. Abono minerala edo txori gorotza.

#### **47. Soroko belar onak eta txarrak (IRN-007/005)**

Abereentzat belar motak. Pagotxa da onena. Arto artean jartzen zuten. Alfalfa. Belarrik txarrena, barrabasa.

#### **48. Hernaniko feriara bizikletan (IRN-007/006)**

Landare bila Irundik Hernanira joaten zen bizikletan, 40 minutuan; parrilan ekartzen zituen.

#### **49. Sega-apustuetako arauak erabakitzen (IRN-007/009)**

Jauregiko nagusia txapelketak antolatzen hasi zen. 29 urterekin hasi zen apustuan. Denbora mugarik ez zegoen. Arauak ondo jartzeko beharra ikusi zuten.

#### **50. Jauregiko apustuetako joko zikina (IRN-007/010)**

Ordubeteko apustuak izaten ziren Jauregikoak. 44 barila aurkitu zituen zelaian sartuta. Hiru sega hautsi zituen. Joko zikina. Aurreko egunean egiten zuten zozketa.

#### **51. Asteasuko desafioan ere tranpa (IRN-007/011)**

Desafioa bota zion Asteasuko batek. 40 kiloko bentaja. Pisatzerakoan egiten zituzten tranpak: lehenengo bi sailetan aurretik joaten zen, jendeak apustu egiten zuen, eta hirugarrenean aurea hartzen zioten.

#### **52. Segarako afizio gogorra zegoen (IRN-007/014)**

Segalari asko zeuden. Jauregiko nagusiak segalariak nola aukeratzen zituen. Zelaia ondo zaintzen zuen. Tolosa inguruan entrenatzen zuen. Segarako afizioa, Asteasun ikaragarritzkoa. Basarri bertsolaria.

#### **53. Sega laguntzaileak eta segak jartzea (IRN-007/015)**

Sega-apustuak nola aldatu diren. Laguntzaileak aurkitzea erraza zen orduan. Segajartzaileak: Ipintza. Segajartzearen artea.

#### **54. Kider motzarekin baina gerria tente (IRN-007/017)**

Kider motzeko segak erabili izan ditu berak. Kider luzeekin gehiago nekatzen zen. Makurtzerakoan, baina, gerria zuzen edukitzen zuen.

#### **55. Garai bateko sega (IRN-007/021)**

Garai bateko segak nolakoak ziren. Enkarguz egindako segak. Zeinek sail gehiago ebaki izan beharrean, belarra pisatzen hasi ziren berriro.

#### **56. Zelaiak garbi-garbi (IRN-007/023)**

Baserrian segan asko ibili zen, makinak ohiko bihurtu aurretik. Inguruko baserri askotan ibili zen. Garbi-garbi uzten zituen zelaiak. Baserritarren exijentzia maila handia zen.

#### **57. Segan oinutsik ondoen (IRN-007/025)**

Sega apustuetan oinutsik ibiltzen zen askotan. Nola janzten ziren lehen.

### **58. Bidasoako sega txapelketa II (IRN-007/026)**

Bidasoako sega txapelketan banda ematen zuten hasieran, koparik ez. Segalariak nondik joaten ziren hara. Ez zen apustu handirik izaten han.

### **59. Iturriozko sega apustuak (IRN-007/027)**

Iturriotz sega apustu toki famatua zen. Hango belarra mozteko zaila zen. Polipaso eta haien garaikoa da, lehenagokoa. Bi orduko apustuak. Orduan, 3.000 bat kilo.

### **60. Ebakitzeko belar ona eta txarra (IRN-007/029)**

Ganaduarentzat ona den belarra ebakitzeko ere ona da, goxoagoa delako. Alfalfa, tefla, pagotxa... Igitai. Plantina belarra. Lapaitzak eta mando belarrak sega karrakatzen dute. Hura nola konpondu.

### **61. Bellotako segak eta gaur egungoak (IRN-007/030)**

Segak ez ziren hain garestiak lehen. Bertan egiten zituzten. Patricio Etxeberriak egiten zituen, Bellotan (Legazpin); altzairua hobetuz joan zen. Gaur egungo segei buruzko iritzia.

### **62. Euskara, beharrezkoa eta ederra; Irun inguruko euskara (IRN-007/033)**

Euskara berarentzat zer den azaltzen du. Irungo euskara, Oiartzungoa eta Hondarribiko diferenteak dira. Batua.

### **63. Donostiako eta Tolosako euskara (IRN-007/034)**

Tolosako eta Donostiako euskarak, garbienak. Donostian hunkitu egin zen behin hain euskara polita entzunda. Biloben euskara pixka bat diferentea dela dio, baina ikastoletako euskara polita dela.

### **64. Mugaz bestalde trenak ezin jarraitu (IRN-010/002)**

Aitak tren-estazioan egiten zuen lan Frantziako eta Espainiako bagoien arteko karga eta deskargan; izan ere, bi estatuetako trenbideak desberdinak ziren eta trenak ezin zuten ibilbidea jarraitu mugaz bestalde. Zer merkantzia garraiatzen ziren aipatzen du.

### **65. Kontrabandoaren nondik norakoak: garaiak, oztopoak, arriskuak eta tratuak (IRN-010/003)**

Mugan kontrabandoa izaten zen eta aduanako langileei eskupekoa ematen zitzaion kontrabandoa ez salatzeke. II. Mundu Gerran kontrabandoa ez zen posible, alemanek zakur handiak baitzeuzkaten. Kontrabandoko produktuak bizkar gainean eramaten zituzten. Mugaz bestaldera igarotzeko zer ibilbide egiten zuten azaltzen du. Harrapatuz gero, isuna eta kartzela izaten zuten. Astelehenetan Urdanibian ganaduen feria egiten zen, eta iparraldetik etortzen ziren kontrabandoko adiskideak tratuak egitera.

### **66. Mugaz bestaldetik ogia ekartzen (IRN-010/004)**

Gerra ostean, gose handia egon zen. Meatzean ibili zen lanean, zer jan eduki ahal izateko. Frantziatik alemanek ekartzen zuten ogia. Hondarribira beste batzuek txalupaz ekartzen zuten ogia, baina argi ibili behar izaten zuten guardia zibilek eta karabineroek harrapa ez zitzaten.

### **67. Kamioiarekin banaketa egiten (IRN-010/005)**

Meatzetik Zugastira joan zen lanera: 11 urtez ibili zen han lanean, kamioiarekin banaketa egiten. Lantegi hartan zer saltzen zen eta banaketa nondik egiten zuen azaltzen du. Inguruan festak zirenean, lan asko egin behar izaten zuten izotza kargatzen.

### **68. Edariak zerbitzatzeko botila edo sifoa (IRN-010/006)**

Lehen ere botilatan saltzen ziren edariak, eta bestela sifotik aterata. Festak zirenean lan asko izaten zuten. Zugasti lantegian 19-20 langile ibiltzen ziren, lau kamioiarekin banaketa egiten. Sifoa nola egiten zen azaltzen du.

### **69. Zugastiko edariak (IRN-010/007)**

Zugastin limonada eta sifoa nola egiten zuten azaltzen du. Laranjada ere egiten zituzten. Garagardoa Donostiatik ekartzen zuten.

### **70. Tabernatako edariak (IRN-010/008)**

Garagardoa saltzen zen festatan, baina garesti samarra zen garai hartan; limonada merkeagoa izaten zen. Tabernatan zer edaten zuten aipatzen du: ardo zikina, koñaka, sagardoa... Errotaren ondoan sagardotegia zegoen; sagarretatik zukua ateratakoan, barrikatan baserrira eramaten zuten. Lehen pitarra edaten zuten

### **71. Sagardoa egiteko sagarrak biltzen (IRN-010/009)**

Etxe askotan zegoen upela. Sagarrak nola biltzen zituzten azaltzen du. Sagardoa egiten laguntzen aritzen ziren beraiek.

### **72. Sagarra txikitutakoan lortutako emaitzak (IRN-010/010)**

Sagarra txiki-txiki eta lehor eginda uzten zutenean, baserritarrek behiei eramaten zieten: patsa esaten zitzaion sagar horri. Lehenengo lortzen zen sagar-urari muztio esaten zitzaion. Lehen sagardo naturala egiten zen, eta goxo askoa izaten zen.

### **73. Eskolara joateko denbora gutxi (IRN-010/012)**

Etxe ondoan zuten eskola, baina gutxi joaten ziren hala ere. Maistrak amarengana joateko esaten zion Felixi, horrela anaiari bazkaria eraman ziezaion edo laguntza behar zuten auzokoengana joan zedin.

### **74. Eskolan eta elizan ikasitakoak (IRN-010/013)**

Eskolan dena gaztelaniaz ikasten zuten gerra etorri zenetik; gerra ostean maistra berria etorri zen, eta harekin batera aldaketa. Jaunartzea egiteko, dotrina euskaraz ikasten zuten elizan eta etxean. Lehen zer-nolako zigorrak izaten zituzten azaltzen du. Eskolan oinarrizko gauzak ikasi zituen, berehala lanean hasi behar izan baitzuen.

### **75. Umetako jolasak: baloia, kanikak eta frutak (IRN-010/015)**

Jolasteko denbora gutxi izaten zuen Felixek. Mutilek nesken aurka baloiarekin jolastean, komeriak izaten ziren. Orduko zapatak nolakoak ziren aipatzen du. Kanikatan ere aritzen ziren jolasean. Frutak osten aritzen ziren noizean behin.

## **76. Txoriei buruzko ezagutza zabala (IRN-010/016)**

Txori batzuk izaten zituzten etxean eta zaindu egiten zituzten. Lehen ehiza asko egoten zen, txori asko baitzegoen. Txori batzuen izenak eta ezaugarriak aipatzen ditu. Apeuan (erreklamoan) aritzen ziren txoriak erakartzeko, hartarako tresnak erabilia.

## **77. Kilker eta perretxiko bila (IRN-010/018)**

Mutikotan kilker bila aritzen ziren. Kilkerra harrapatutakoan, ogi mamia ardoarekin ematen zioten, horrela asko abesten baitzuen. Perretxiko bila ere joaten ziren: perretxiko batzuen izenak aipatzen ditu. Etxean jaten zituzten bildutako perretxikoak; oliorik ez zenean, grasarekin moldatu behar izaten zuten haiek prestatzeko.

## **78. Ama han eta hemen lanean familia aurrera ateratzeko (IRN-010/019)**

Etxean oilo batzuk zituzten. Ama neskame joaten zen egun batzuetan, besteetan arropa ematen zioten garbitzeko diru pixka baten truke. Arropa non eta nola garbitzen zuten azaltzen du Felixek.

## **79. Etxeko argia eta komuna (IRN-010/020)**

Etxean ez zuten urik. Argia zentraletik iristen zitzaien, baina eskasa izaten zen. Komuna bazeukaten etxean: taula handi bat zen eta zulo bat zeukan; zulotik zelaira joaten ziren hondakinak, eta gerora ongarri gisa erabiltzen zituzten lurpean sartuta.

## **80. Meatzeetako langileen lan-baldintzak (IRN-010/022)**

Eskolatik irtendakoan, morroi joan zen, eta handik meatzeetara pasa zen lanera. Bere lana zer izaten zen azaltzen du. Meatze haietan langile asko zeuden. Meatzeetako hautsa txarra zen; langileak nola-hala babesten ziren hango hautsetik. Meatzeetan metala ateratzen zuten.

## **81. Meatze barruko azpiegiturak (IRN-010/023)**

Meatzeetako zuloek ia kilometro bateko luzera zeukaten. Meatzeetako trenbideetatik labeetara eramaten zuten merkantzia. Garraio haren eta labeko suaren funtzionamendua nolakoa zen azaltzen du.

## **82. Meatzeetako metala Alemaniara (IRN-010/024)**

Bidasoatik etortzen zen trenean kargatzen zituzten meatzetik lortutako metal koskorak, eta Alemaniara eramaten zituzten; wolframioa hortik lortzen omen zuten. Meatzeetako labeak gau eta egun egoten ziren martxan.

## **83. Meatzeetan dinamita nola erabili (IRN-010/025)**

Meatzeetan dinamita erabiltzen zuten zuloak egiteko. Dinamita nola jartzen zuten azaltzen du. Istripurik ez zen egon meatzeetan Felixek han lan egin zuen bitartean.

## **84. Meatze barruko oroitzapenak (IRN-010/026)**

Meatze barrua argitzeko karburoa erabiltzen zuten. Kaskoekin babesten zuten burua. Meatze barruan ez zuen hotzik egiten. Meatze barruko azpiegiturak nolakoak ziren azaltzen du.

### **85. Labeetan ura banatzen aritu zenekoa (IRN-010/027)**

Felix 2 urte egon zen meatzeetan lanean. Lehenago, labeetan aritu zen lanean ura banatzen langileen artean. Lan-baldintza gogorrak zituzten hango langileek.

### **86. Labeetatik meatzera lan-baldintza hobeekin (IRN-010/028)**

Labeetan lanean zebilela, meatze barruan lan egitea eskaini zioten; pezeta bat gehiago eskaintzen zioten hara joanez gero. Meatzeetan jaten ematen zieten.

### **87. Etxeko janaria eta hura nola prestatu (IRN-010/029)**

Etxean amak janaria nola prestatzen zuen azaltzen du. Lekaleak jaten zituzten normalean; eltzea burdinazkoa zen eta zintzilik egoten zen su gainean, janaria prestatu bitartean.

### **88. Taloak eta lekaleak jaten ohituta (IRN-010/030)**

Lekaleak eta taloa jaten zituzten normalean. Taloak nola egiten zituzten azaltzen du. Taloa esnearekin gustura jaten zuten. Etxean oiloak eta untxiak zeuzkaten. Morroi egon zen etxean abere asko zeuzkaten, oso familia jatorra zen.

### **89. Baserriko bizimodua; karga bizkarrean (IRN-012/002)**

Urunea baserria lehen nolakoa zen azaltzen du, argirik ez zuten. Baserriko bizimodua. Mantusa. Bizkarrean karga eramaten. Lera erabiltzen zuten gorotzetarako. Amaren lanak.

### **90. Arrautza saldu, sardina zaharra ekarri (IRN-012/003)**

Oiloak eta arrautzak. Saldu egiten zituzten, eta sardina zaharrak ekarri. 3,12

### **91. Gerra hasi zenean, etxetik ezin atera (IRN-012/004)**

Gerra hasi zenean zazpi urte zituenean; etxetik atera gabe egon zen. Balak. Erreketeak eta gorriak, elkarren kontra. Olaberrian denak geratu ziren.

### **92. Gerra ostean errotara; ogi berdea (IRN-012/006)**

Nafarroara joaten ziren errotara, artoarekin. Oiartzunera ere bai. Ogia berdea zen. Urte askoan izan zen ogi txarra. Patata egosia jaten. Pitarra.

### **93. Babarruna eta artoa entregatu beharra (IRN-012/007)**

Leikua (babarruna). Kaletarrek gosea pasatu zuten. Baserritarrek artoa eta babarruna udaletxera entregatu behar izaten zuten.

### **94. Kontrabandoa eta mugalariak; portugaldarrak (IRN-012/008)**

Kontrabandistak baziren, baina nagusi denak ez ziren berdinak. Kafea eraman eta idiak ekartzen zituzten. Etorkin portugaldarrek bestaldera pasatu nahi zuten, baina batzuetan dirua kendu eta edonon uzten zituzten. Anekdotak.



### **95. Auzoko eskolan eta La Salleko fraideekin (IRN-012/009)**

Eskola garaiko kontuak. Auzoko eskolan eta gero fraideekin. Apaizen janzkera. Ez zuten jotzen. Erdaraz.

### **96. Auzoko eskolan erdaraz (IRN-012/010)**

Auzoko eskolan dena erdaraz egiten zuten. Kaleko jendeak ez zekien euskaraz; "kastillano" asko zegoen Irunen.

### **97. Umetan, baserriko lanetan (IRN-012/011)**

Umetan jolas gutxi, baserrian bazen lana. Behien aurrean ibiltzea; aita behiari ordeztu berari akuiluaren zist egin zioneko.

### **98. Etxeko bonbilla bakarra (IRN-013/002)**

Bere jaiotetxean argi kaskarra zeukaten hasiera batean. Bonbilla bakarra zeukaten sukaldean, eta hark nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

### **99. Treneko billeteekin jolasean (IRN-013/011)**

Treneko billeteekin aritzen ziren jolasean umetan.

### **100. Txoriak harrapatzen umetan (IRN-013/013)**

Txori bila aritzen ziren umetan. Hartarako zer-nolako tresnak erabiltzen zituzten azaltzen du. Orduan zer txori klase harrapatzen zuten aipatzen du.

### **101. Harrapatutako txoriekin zer egiten zuten (IRN-013/014)**

Apeuan ibiltzen ziren umetan. Harrapatutako txoriak saltzeko eta jateko izaten ziren. Txori kantariak kaiolan edukitzen zituzten etxean.

### **102. Umetan arrantzan (IRN-013/016)**

Arrantzan aritzen ziren umetan; zer tresna eta teknika erabiltzen zituzten aipatzen du. Aingirak harrapatzea ez zen erraza izaten, ihes egiten baitzuten.

### **103. Etxeko komuna (IRN-013/019)**

Etxeko komuna nolakoa zen azaltzen du. Behin katua bota zuen komuneko zuloetik behera.

### **104. Gerra hasieran, Irundik alde egin behar (IRN-013/023)**

11 urte zituela, gerra hasi zen. Gogoan du hasieran menditik etorri zirela nafarrak, tiroak egon zirela... Jendeak ihes egin zuen Frantzia aldera, horien artean bere familiak.

### **105. Gerran Frantziara ihesi (IRN-013/024)**

Tiroak hasi zirenean Irunen, Frantziara egin zuen ihesi Felixen familia osoak. Han ikatz asko zegoen. Inguru hartako herrien izenak aipatzen ditu.

### **106. Irundik alde egitea (IRN-013/025)**

Irundik Frantziara jendeak nola egin zuen alde azaltzen du.

### **107. Egun gutxirako alde egitea buruan... eta 3 urte eman kanpoan (IRN-013/027)**

Irundik joan zirenean, denbora gutxirako izango zela uste zuten, baina 3 urte eman zituzten etxetik kanpo: Frantzian, Bartzelonan eta Murtzian ibili ziren gerra garaian. Handik etorritakoan, CAF lantegian hasi zen lanean.

### **108. CAF lantegiko baldintzak lehen (IRN-013/034)**

16 urterekin hasi zen CAF lantegian lanean, eta orduko lan-baldintzak nolakoak ziren azaltzen du: ordutegia, soldata... Jai zutenean, dantzara joaten ziren.

### **109. Lan-baldintzak hobetzeko grebak (IRN-013/035)**

CAF lantegian izandako grebei buruz hitz egiten du: lan-baldintza hobeak eskatzen zituzten.

### **110. Grebetako baldintzak hobetzen (IRN-013/036)**

Orduko sindikatu handiena ELA zen. Greben bidez, lan-baldintza hobeak lortu zituzten pixkanaka. Baina greban zeuden bitartean, ez zuten ezer kobratzen.

### **111. Gerra ondoko elikadura (IRN-014/010)**

Taloak egiten zituzten gerra ondoan. Ez zuten goserik pasa, etxean baratzea baitzuten. Orduan zer jaten zuten aipatzen du.

### **112. Txiten eta ganaduaren jatena (IRN-014/013)**

Txitak etxean hazten zituzten. Txitei eta ganaduari zer ematen zieten jateko azaltzen du.

### **113. Pospolo-fabrikako lana (IRN-014/015)**

16 urterekin hasi zen pospolo-fabrikan lanean, Behobian. Hango lanaren nondik norakoak azaltzen ditu.

### **114. Pospolo-fabrikako lan-baldintzak (IRN-014/018)**

Pospolo-fabrikan 250 pezetako jornala izaten zuen astero. Larunbatetan lan egiten zuten. Pixkanaka lan-baldintzak hobetzen joan ziren.

### **115. Pospolo-fabrikaren garrantzia eta arauak (IRN-014/021)**

Pospoloak paketatu egiten zituzten eta kamioietan eramaten zituzten salmenta-lekuetara. Tarazonan ere bazegoen beste pospolo-fabrika bat, baina Irungoa zen nagusia. Grebarik ezin izaten zuten egin, estatuarena baitzen enpresa.

### **116. Lehen dena bekatu (IRN-014/026)**

Lehen dena bekatu zen. Maritxuk dantza soltea eta lotua egiten zituen.

### **117. Galtzak janzen hasi artekoak (IRN-014/030)**

Emakumeak beti gonarekin ibiltzen ziren lehen. Geroago hasi zen Maritxu galtzak erabiltzen, eta orain oso gustura erabiltzen ditu. Lehen gaizki ikusia zegoen, baina, neskek galtzak janzteak.

### **118. Permanentea egin zuenekoa (IRN-014/033)**

Fabrikan lan egiten zuenean hasi zen ile-apaindegira joaten. Permanentea egin zuen hirutan, baina gerora orraztu bakarrik egiten zen.

### **119. Norbere burua apaintzen (IRN-014/034)**

Lanean irabazten zuena amari ematen zion. Maritxu gaztetan hasi zen ezpain-barra erabiltzen, eta bere diruarekin erosten zituen. Bere burua nola apaintzen zuen aipatzen du.

### **120. Erramua eta erromeroa ekaitzetik babesteko (IRN-014/041)**

Etxean ur bedeinkatua eta erramua edukitzen zituzten. Ekaitza zenean, sotoan erramua eta erromeroa erretzen zituzten, Santa Barbarari errezatzen zioten bitartean.

### **121. Etxeko behien izenak (IRN-014/045)**

Etxeko behiek izenak zituzten eta aipatu egiten ditu.

### **122. Txerria hiltzen zuteneko pena (IRN-014/047)**

Urtean behin txerria hiltzen zuten eta pena handia ematen zion Maritxuri.

### **123. Odolkiak egiten (IRN-014/048)**

Odolkiak nola egiten zituzten azaltzen du. Odolkiak inguruko lagunaren artean banatzen zituzten.

### **124. Gerran Irunen gelditu ziren (IRN-014/055)**

Gerra hasi zenean, 10 urte zituen Maritxuk. Pixkanaka joan ziren inguratzen tropak Irun aldera, eta beraiek Irunen gelditu ziren, gerrak iraun zuen bitarte guztian. Orduko oroitzapenak kontatzen ditu.

### **125. Irun sutan (IRN-014/056)**

Irun sutan ikusi zuenekoa gogoan du. Iruna jateko bila joaten ziren beraiek.

### **126. Gerran etxeetan lapurretak (IRN-014/057)**

Lapurreta asko egon ziren gerra garaian, Irunen hutsik geratutako etxeetan.

### **127. Baserrian jaioa, umetatik lanean (IRN-015/002)**

San Anton baserrian jaioa. Nolakoa den. Bizitza bakarrekkoa. Aita bertakoa zen; ama Olaberria auzoko beste baserri batekoa zen, Unekoa. 12 senide ziren. Neskame ibiltzen ziren eta inguruko baserrietara joaten ziren laguntzera. Artajorran eta belarretan.

### **128. Eskolara gutxi joan zen (IRN-015/003)**

Hamabi senidetan bosgarrena. Umezain ibiltzea ere tokatu zitzaion, eta eskolara gutxi joan zen. Olaberriako eskola. Neska-mutilak aparte eserita. Maistrak.

### **129. Neskame; arropa garbitzen (IRN-015/004)**

Neskame joan zen beste baserri batera, 10 urterekin. Pako Etxebesteren etxean egon zen gero, eta Arrasatera joan zen. Etxea garbitzen zuen eta arropak. Xaboia. San Antonen ez zuten urik, eta errekan garbitzen zuten arropa.

### **130. Arropa garbitzen II (IRN-015/007)**

Arropa ur epeletan edukitzen zuten, xaboitan. Zikina beratzea. Baina ez da komeni denbora gehiegi edukitzea uretan. Egurrezko barrikak. Uztarria erabiltzen zuten arropa erreka eramateko. Batzuk urruti joan behar zuten. Harriak. Hotzik ez zuten sentitzen, hankak uretan sartuta. Ama hanka-hutsik ibiltzen zen.

### **131. Lehengo bideak (IRN-015/008)**

Lehengo bideak. Pikoketa. Gurdi bidea zen, ez automobilentzat.

### **132. Esnearekin Kateara, astoarekin (IRN-015/010)**

Hasieran ez zuten traturik egiten, gero bai. Katea (Ventas) auzora joaten ziren, Antojura, esnearekin. Hondarribiarrek egiten zuten tratua, orain aireportua den tokian. Astoarekin joaten ziren, eta esnedunari ematen zioten esnea. Behiak jeztea erraza dela dio, baina eskumuturra nekatzen dela. Oraingo behiek esne gehiago ematen dute.

### **133. Behiak eta goldea (IRN-015/012)**

Behiak jezten. Lau-zortzi behi izaten zituzten. Astoa zuten. Antojura ordubeteko bidea zuten. Tximistaberrira joaten ziren aurretik, Olaberriara. Txahala saldu. Idirik ez zuten. Behien aurrean goldearekin ez zuen inork ibili nahi, baina gurasoen esana egiten zuten. Neskame eta morroi.

### **134. Babarrunak, lurreko suan (IRN-015/013)**

Egunero bazkaltzeko babarruna. Lurreko sua. Laratza. Eltzea. Neskamea. Hauspoa.

### **135. Babarruna eta pitarra (IRN-015/015)**

Lehenbizi denek batetik jaten zuten, gero bakoitzak bere plateretik. Babarruna. Pitarra egiten zuten, sagardoa urarekin. Ez zuten dolarea etxean. Sagarra biltzeko, "pikua". Zakuak gurdian edo astoz eramaten zituzten. Errotara nora joaten ziren.

### **136. Erreketeak baserrian (IRN-015/017)**

Gerra hasi zenean, mendian zegoen, baserri batean neskame. Tximista baserrian zeuden gorriak, eta bere baserrian zuriak. Zaurituak hara eramaten zituzten. Erreketeak. Borrokak.

### **137. Gerrako kontuak; Irun sutan (IRN-015/019)**

Tximista baserritik tiroka. Ez ziren inora joan. Behientzako jan bila ateratzen ziren arratsean. Irun sutan ikusi zuen. Txapelgorriak sartu zirenean joan zen. Ogi bila Oiartzunera joaten ziren. Endarlatzara joaten ziren errotara, besteak itxita zeudelako. Gerraostean, taloak.

### **138. Errazionamendua eta babarruna entregatu beharra (IRN-015/021)**

Ogia errazionatuta zegoen. Babarruna entregatu beharra, udaletxean. Urtebeteen 80 kilo entregatu behar: 40 eraman zituzten, eta ez zuten kobratu. Eguraldia aldatu egin da. Lehen, San Josestarako ilarra zuten.

### **139. Baratzeko eta soroko lehengaiak (IRN-015/022)**

Baratzeko eta soroko gauzak. Babarruna eta artoa elkarrekin, urte guztirako. Baratzean, tipula, porrua... Tomatea. Igandetan garbantzua; gainontzean, babarruna. Gosari txikia eta gosaria. Baratzuri zopa. Postrerik ez.

### **140. Ogia astean bitan erosten zuten (IRN-015/023)**

Merienda, gazta edo txokolatea ogiarekin. Ogia non erosten zuten, Irunen. Kateara joaten zirenean esnearekin, ogia erosten zuten astean bitan.

### **141. Gazta nola egiten zuten (IRN-015/025)**

Gazta etxean egiten zuten, behi esnearekin. "Gatxaria", esneko bildotsaren estomagoa. Nahastu egiten zuten, eta gero eskuekin batu. Moldea. Gatzura.

### **142. Txerria hil eta odolkiak egiten (IRN-015/026)**

Txerriak, urtean umaldi bat. Saltzeko. Urtero txerri bat hiltzen zuten. Osaba bat joaten zen, eta gero anaia hasi zen. Mahai gainean jartzen zuten, hankak gurutzatuta. Odolkiak. Hesteak inbutuarekin betetzen zituzten. Egosi.

### **143. "Txirmoniyak" eta taloak (IRN-015/028)**

"Txirmoniyak" auzoan partitzen zituzten. Zer meriendatzen zuten, eta zer afaldu. Elgorriaga txokolatea. Taloa eta esnea. Haizatutako taloak, onenak.

### **144. Gaztainak eta fruta arbolak (IRN-015/029)**

Gaztainak, egosita eta erreta. Etxean zituzten gaztaina arbolak. Lapurretan ari zen mutiko bati poltsa kendu zion anaiak. Beraiek nahikoa fruta zuten etxean, eta ezs ziren inora joaten bila.

### **145. Zubi azpian bainatzen (IRN-015/031)**

Errekan bainatzen ziren udan, zubi azpian. Dutxarik ez zuten etxean. Komuna nolakoa zen. Komuneko paperik ez zen.

### **146. Parterak eta bataioak (IRN-015/032)**

Umeak etxean jaiotzen ziren, inguruko norbaitek lagunduta. Medikua ez zen joaten. Parteraren lanak. Bataiatu segituan egiten zen, bekatua zen bestela. Linboa. Ama ez zen joaten bataiora.

### **147. "Eliz uztia" egin beharra (IRN-015/034)**

Umea jaio ondoren, elizan sartu behar zuen emakumeak. Ezin etxetik atera "eliz uztia" egin arte.

### **148. San Anton baserriko gurutzea (IRN-015/038)**

San Anton baserriak gurutzea du paretan. Han bedeinkatu omen zen lehen opila. Beste baserri batean hasi dira opilak bedeinkatzen orain.

### **149. Ordubeteko bidea mezetarako; dotrina eta Jaunartzea (IRN-015/040)**

Elizara Irunera joaten ziren, Kateara bestela. Seietako mezetara joaten ziren, ordubeteko bidean. Dotrina euskaraz ikasi zuen, dotrina txikia. Don Manuel. Jaunartzeko soinekoa, zuria, denek bat. Mendelura joan ziren amautxiarengana. Medikuak eta alkateak bakarrik zuten autoa.

### **150. Anakan desagertutako baserriak (IRN-016/002)**

Azkue Goia baserrian jaioa, Anakan. Orain lantegiak daude han. Hamabi baserri desagertu dira. Izenak esaten ditu. Pullana baserrian eskola zegoen. Duela 40-45 urte hasi ziren botatzen. Etxe asko egin dituzte.

### **151. Hamar lagun baserrian bizitzen (IRN-016/004)**

Baserria nolakoa zen. Ukuilua eta sukaldea behean eta goian logelak eta ganbara. Gurasoak, amona, izeba eta sei senide bizi ziren han. Ama Hendaikoa zen, baina Ipar txiki baserrian bizitua.

### **152. Egurrezko komuna; etxean urik ez; arropak garbitzen errekan (IRN-016/006)**

Komuna nolakoa zen, baserrietan. Egurrezkoa. Komuneko paperaren orde ez egunkaria. Dutzarik ez. Errekara arropa garbitzera, etxean urik ez zuten eta. Iturrira ur bila. "Porrona". Hankak barrikan sartuta. Harria. Arropa "al verde". Bizitza naturalagoa zen. Zer jaten zuten. Taloa.

### **153. Azak saltzen etxez etxe (IRN-016/007)**

Babarruna. Aza eta berdura. Esnea. Oiloak, txerria. Amona tratuarekin joaten zen. Ehiza asko zen, eta saldu egiten zuten. Bera ere ibili da azak saltzen etxez etxe; esnea ere bai. Peña-enea denda. Mandatuak kaletik ekartzen zituzten. Goiz jaikitzen zen, 08:00etarako lanean egon aurretik partitzen zuelako esnea. Bazkaldu eta korrika lanera berriz.

### **154. Gobara nola egiten zuten (IRN-016/009)**

Maindireak nola garbitzen zituzten, astean behin: gobara. Xaboi hautsa sutan berotu eta barrikara botatzen zuten. Gau osoa estalita. Errekara porrona buru gainean jarrita eramaten zuten arropa. "Burutea".

### **155. Errekan bainatzen (IRN-016/010)**

Garbitasuna. Errekan garbitzen ziren udan. Neguan lantegian dutxatzen zen. Igeri egiteko tokiak baziren, baina mutil koskorrez betea egoten ziren, neskarik ez. Orain askatasun gehiago dago. Zortzietarako etxera.

### **156. Su baxua sukaldean; eltzeak (IRN-016/011)**

Sukaldea nolakoa zen: su baxua zuten. "Neskamea" zer zen. Hauspoa. Harrizko eltzeak konpontzen zituzten ijitoek. Taloak egiteko mahaia. Talo-pala. Denek batetik jaten zuten, erdian jarrita. Egurrezko koilarak egiten zituen auzoko gizon batek. Su egurra menditik ekartzen zuten, behiekin joanda.

### **157. Garraioak, bideak eta gerra aurreko etxeak (IRN-016/013)**

Aizkorarekin mozten zuten egurra, mendian. Gurdia nolakoa zen. Kale garbitzaileak idi batekin ibiltzen ziren. Irun gerra ondoren handitu da, dena zelaia zen lehen. Botatako bi etxerekin gogoratu da; bata granja zen. Lehengo bide bakarra geratzen da. Bideak, zuloz beteta. Xangai autobusa, gerra aurretik. Orain beraiek bizi diren etxeak eginak zeuden ordurako; askok alde egin zuten gerra garaian eta ez ziren bueltatu.

### **158. Asto alferra zuten; errenta ordaintzeko modua (IRN-016/015)**

Zaldi-karroa zuena aberatsa zen. Astoa bazuten, baina alferra. Anekdotak: arrantzaka hasten zen; beroki berde bati besoa jan zion. Esnea partitzeko ez zuten erabiltzen. Ardirik ez zuten, ahuntzak bai. Untxiak, oiloak. Etxe jabeei hiru kapoi, errenta ordaintzeko; trukean bakailaoa ematen zieten. Etxea ez zuten konpondu nahi, eta saldu egin zuten, lantegiak egiteko.

### **159. Oilaskoak; artoa errotara (IRN-016/016)**

Bizirik eramaten zituzten oilaskoak plazara. Artoa eta irina jaten zuten, sei-zazpi hilabeteaz hazi, ez oraingoak bezalakoak. Artoa "kuxkildu". Errotara ere eramaten zuten, irina egiteko; errota non zegoen.

### **160. Ogia erosi egiten zuten (IRN-016/018)**

Labarik ez zen inguruetan. Bi okindegi zeuden. Ogia erosi egiten zuten, dendan. Esnea kalera eramatean ekartzen zuten ogia. Plazan toki ona harrapatzeko garaiz joan beharra zegoen. Berdurak. Aza egiten zen gehiena. Hiru edo lau sos balio zuen aza batek. Esne litroak lau sos. Esnearen prezioa zortzira igo zutenean, jendea kexaka hasi zen. Orain ere esnea merkeegia da.

### **161. Baratzeko eta soroko lanak (IRN-016/021)**

Lurrari buelta emateko goldea, bi behirekin. Aurretik ume koskor bat eta atzean gizaseme bat, normalean. Area. Gero eskuz aitzurrarekin hautsi. Baratzea aparte zuten. Aza eta letxuga. Aza morea. Ilargiaren garrantzia, hazia botatzeko. Artoa. Hazia etxean prestatzen zuten. Patata. Oporretan ere lanean.

### **162. Landare haziak plazan erosiak (IRN-016/022)**

Landare haziak plazan erosten zituzten, Irunen. Plaza non zegoen. Lekuona eta Susperregi dendak, bitxi-denda, drogeria... Klean saltzen zituzten landareak. Hondarribian berdura hobea zen Irungoa baino. Gorotza ongarri bezala.

### **163. Txori-gorotza eta belar metak; arrain saltzaileak (IRN-016/025)**

Txori-gorotza erabiltzen zuten, belarrari botatzeko, udaberrian. Belar-bolak. Abonua. Belar metak nola egiten zituzten. Irunen ganadu kontua gehiago, hiltzea zegoen. Arraina Pasaiatik ekartzen zuten. Arrain saltzaileak baserri baserri; platera lau sosera. Antxoak zelairako. Txurro saltzaileak. Traperiak, tratulariak, txerri erosleak...

#### **164. Eskola Pullana baserrira (IRN-016/028)**

Eskolara Pullana baserrira joan zen. Ukuilua eta sukaldea zituen. Maisua Velasco zen, Irungoa. Bi seme zituen, bata medikua. Neska-mutilak elkarrekin, adin askotakoak. Ez zuen asko ikasi. Liburuak. Alfonso XIIIren erretratua.

#### **165. Gerra aurretik euskaraz (IRN-016/029)**

Primo de Rivera. Pullana baserrikoak Frantziara joan ziren gerra garaian. Euskaraz egiten zuten gerra aurretik. Eskolako zigorrak. Euskara batua ez du ondo ulertzen.

#### **166. Eskolak; dotrina eta mezak (IRN-016/030)**

14 urte arte eskolan. Beste eskolak aipatzen ditu: Flores eta fraideak. Dotrina euskaraz ikasi zuen, parrokiari. Hamalau bat apaiz zeuden. Mezak. Ez zaizkio egin diren aldaketak gustatzen.

#### **167. Jaunartzea egiteko, dotrina jakin behar (IRN-016/032)**

Dotrina ez zekienari, kalabaza. Junkalen egiten zuten Jaunartzea. Zuriz jantzita. Bazkaria etxean egiten zuten. Oiloa eta laranja. Arratsaldean berriz elizara. Ur bedeinkatua kendu egin dute elizatik. Erramua, sorginak bidaltzeko.

#### **168. Umetan jostailurik ez (IRN-016/034)**

Umetako jolasak. Sokasaltoak. Osaba batek panpina oparitu zien. Laranja opari. Beti lanean, jolasean ere ez zekiten.

#### **169. Josten ikasten (IRN-016/036)**

Josten ikasten ibili zen, Anakan bertan. Sei-zazpi neska joaten ziren. Gizaseme arropa. Gero lanean hasi zen.

#### **170. Gerra garaian Anaka auzoa hustu (IRN-016/038)**

Ez zioten politikari jaramonik egiten, ez zuten egunkaririk irakurtzen. Gerra denboran, jende asko joan zen. Irun erre egin zuten. Hondarribira joan zen amonaren etxera. Auzoa hustu egin zen. Asko ez ziren bueltatu. Hiru osaba mezara joateko baldintzarekin bueltatu ziren Frantziatik. Errepublikanoak.

#### **171. Bonbak zauritutako lagunak (IRN-016/041)**

Tropak Endarlazatik sartu ziren Irunera, oinez. Tankeak. Soldadu nafarrak. Cara al Sol. Aireplanoak bonba bota zuen, eta hiru lagun zauritu zituen. Beldurra.

#### **172. Irun erre zutenekoa (IRN-016/043)**

Asturiarrek erre ei zuten Irun, nazionalak sartu aurretik. Sua eta kea. Tratua saltzera ezin joan. Oraingo gazteei ondo etorriko litzaieke gerra zer den jakitea.

#### **173. Gerra osteko gosea; errotak itxita (IRN-016/045)**

Gerra ondorengo gosea. Algarrobak. Errotak itxita zeuden; gizon bat atxilotu egin zuten artoa isilka ehotzeagatik. Artoa entregatu beharra. Pasionistak eskean joaten ziren, babarrun bila.



#### **174. Errazionamendua eta estraperloa (IRN-016/047)**

Errazionamenduko kartila. Ilarak. Gantza, olioaren partez. Estraperloa. Lehen dirurik ez zuten. Portugaletik ekartzen zuten janari asko. Kafe zakuak. Kontrabandoa itsasoz.

#### **175. Ipartxiki baserrian jaioa, Anakan (IRN-018/002)**

Irunen jaio zen, Anaka auzoan, Iparrxiki baserrian. Maizterrak ziren. Bost urte zituenean Oiartzunera joan ziren bizitzera. Baserria nolakoa zen. Errenta. San Martin egunean aldatu ziren etxez. Gurutzera joan ziren, Arpidetxiki baserrira.

#### **176. Hogeit urte arte neskame Aian (IRN-018/003)**

Hamabi urte zituenean, etxeko nagusiaren etxera eraman zuten, Aiara. Ahizpa ere eraman zuten. Jatetxean egon zen neskame ia hogei urte arte. Ez zuen soldatarik. Hura nola utzi zuen, etxera bueltatzeko. 23 urterekin ezkondu zen, Oiartzundik Irunera, Lizardi baserrira.

#### **177. Urik eta argirik ez baserrietan (IRN-018/005)**

Iparrxiki baserrian urik eta argirik ez zuten. Errekara joaten ziren ur bila eta arropak garbitzera. Kinkea. Senarraren umetako kontuak aipatzen ditu, haiek ere argirik ez zuten. Aiara joan zenean, baserri gehienek argia bazuten.

#### **178. Arropa garbitzen errekan (IRN-018/006)**

Arropa garbitzera errekarara. Oiartzunen bizi zirenean labaderoa nolakoa zen. Lizardin errekan garbitzen zituzten arropak; meatzeek ura zikindu zutenean, ura jarri zuten etxean. Labadora gauza handia izan zen. Arropa garbitzeko modua.

#### **179. Langileen batailoia, Gurutzen (IRN-018/007)**

Langileen Batailoia, "trabajadoriak", Gurutzen. Etxeko logela bat utzi zieten; gero soldaduak jarri zituzten han. Barrakoiak. Zortzi senide ziren. Garbitegian zorriak hiltzen egoten ziren soldaduak. Garbitasun faltaren ondorioz hil ziren batzuk. Ura analizatu zuten.

#### **180. Langileen Batailoia, Gurutzen II (IRN-018/008)**

Soldaduek hiru urte egin zituzten beraien etxean. Langileen Batailoiko presoen lanak. Pikoketan errepidea egiten ibili ziren, oso egoera txarrean. Goseak zeuden.

#### **181. Gerra ondorengo gosea (IRN-018/010)**

Gerra ondorengo gosea. Patata eta babarruna entregatu beharra. Ogi txarra. Errotak prezintatuta Gipuzkoan; Nafarroara joaten ziren artoarekin. Oñatibia medikuak olioak lortu zuen. Patatak esnetan egiten zituzten.

#### **182. Txerriak, zikiroak eta odolkiak (IRN-018/014)**

Zikiroa hil eta zezina egiten zuten. Gatzetan jartzen zuten, pisuarekin. Txerri odolkiak eta zikiroarenak. Odolkiak nola egiten zituzten. Espeziak. Odolki onenak, txerriaren buruarekin. Hesteak nola garbitu. Listaia eta zumea.

### **183. Odolkiak partitzen auzoan (IRN-018/015)**

"Txermuniyak ordainetan". Odolkiak inguruko baserrietara eramaten zituzten, eta gero jaso ere bai. Aza hostoetan jarrita. Batzuetan propina ematen zuten. Neskame lekuko amak esaten ziona. Ardo gozoa. Adinekoen jakituriari buruzko iritzia. Francoren alaba Aian egon zen.

### **184. Neskame zegoeneko lanak (IRN-018/017)**

Neskame zegoenean denetik egiten zuen: jatetxean, baserriko lanetan... Hamar-hamabi behi zituzten. Txekorra urtebeterekin kentzen zuten. Haiei jaten ematen ere ibiltzen zen. Lera erabiltzen zuten belarra ekartzeko. Esneduna joaten zen esne bila.

### **185. Lehengo sukaldeak nolakoak ziren (IRN-018/020)**

Lehengo sukaldeak nolakoak ziren. Su baxua beti beltz egoten zen. "Labatza". Lizardin ekonomika zuten.

### **186. Sukaldean harrizko lurra; armairurik ez geletan (IRN-018/022)**

Sukaldean egurrezko eta harrizko lurra ezagutu ditu. Logelak oraingoak baino txikiagoak ziren, armairurik ez zen izaten eta. Arropa gutxi zuten. Neskame zegoen tokian nola zen azaltzen du.

### **187. Artzaina izaten zuten etxean (IRN-018/024)**

Idiazabalgo artzaina etxean izaten zuten urtero. Oinez egiten zuen joan-etorria hasieran. Lau-bost hilabete egiten zituzten Irunen. Maiatza aldera arte. Zakur onak zituzten.

### **188. Artzainek gazta nola egiten zuten (IRN-018/025)**

Artzainek gazta nola egiten zuten azaltzen du pausoz pauso. Gatzagia. Gazta motak.

### **189. Arkumearen barrukiak nola prestatu (IRN-018/026)**

Senarrak ere egiten zuen gazta; umetatik ezagutu zuen hori eta ardiak gustuko zituen. Artzainei laguntzen zien. Arkumeak etxetik saltzen zituzten. Larrua ere saldu egiten zuten, lehortu ondoren. Traperoak. Arkumeen odola, hesteak eta hankak. Tripotxa. Nafarroan "txuri-beltza" egiten dute. Nola egiten den azaltzen du.

### **190. Tratua saltzen zuten Irungo plazan (IRN-018/028)**

Esnea partitzen zuten Irunen, astoarekin joanda. Gero Land Roverra erosi zuten. Ordu erdiko bidea zuten. Otarrak jartzen zituzten astoan eta marmitak. Tratua. Lizardik lursail asko zituen autopista egin aurretik. Industrialdea ere egin zuten gero.

### **191. Inguruan desagertutako baserriak (IRN-018/029)**

Auzoan aldaketa asko ezagutu ditu. Baserri asko desagertu dira inguruan. Bi baserri bota dituzte pabiloiak egiteko, eta aurretik beste bat. Lapitzeko errota.

### **192. Baserriaren gainbehera; dena sasiak jota (IRN-018/030)**

Baserritarrari ez diote lagundu. Baserriaren gainbehera. Kanpoko produktuak. Erreka bazterra garbi-garbi izaten zuten lehen; orain dena zikin dago. Aiara joan zen bisitan, neskame egondako tokira, eta ez zuen ingurua ezagutu.

### **193. Goizean goiz jaiki, eta plazara (IRN-020/005)**

Goiz jaikitzen ziren. Abereak gobernatu... Tratua besoetan eta buru gainean eramaten zuten. Etxetik Errenteriara edo Donostiara joateko geltokiraino oinez, eta gero han tranbia hartu. Aurreko egunean prestatzen zuten tratua, eta baratzeke lanak egin. Anaiak behiak jezten zituen. Astoa bakarrik bidaltzen zuten etxera.

### **194. Tomatea entsaladan jateko ohitura; neguan, leikua (IRN-020/006)**

Bazkaltzeko, babarruna eta berdura itsusienak. Tomatea entsaladan jateko ohitura nondik ikasi zuten. "Tipula" deitzen zioten auzoan, etxe bakoitzean hiru familia bizi ziren; logela bakoitzean familia bat. "Tipulanos", etorkinak. Gatz pixka batekin jaten zuten haiek tomatea. Gehiago kostatu zitzairen tipula jaten ikastea. Leikua. Ez zuten denek batetik jateko ohitura; bakoitzak bere platera.

### **195. Bazkalondoko lanak; ganaduaren jatena (IRN-020/008)**

Bazkalostean siestarik ez zuten egiten; aita bakarrik egiten zuen, baina mahaian bertan, lanean jarraitu aurretik. Bazkalondoko lanak partitzen zituzten. Belarrak, baratzea, iratzea... Igitaiarekin, eskuz. Ganaduaren jatena, asto-karroan etxera eraman; arbia xehatzen.

### **196. Anaiei galtzak jantzita, gereziak biltzen (IRN-020/009)**

Hankak urratuta izaten zituzten; artilezko galtzerdiak erabiltzen zituzten neguan. Gereziak biltzeko anaiei galtzak jantzen hasi ziren. Fraide bat bisitan joan zitzairen, eta izututa geratu zen galtzekin ikusita. Arropak nola moldatzen zituzten alkandorekin blusak egiteko. Fraideari esan ziotena. Baina galtzak lanerako bakarrik, kalerako pentsatu ere ez.

### **197. Kamamila saltzen; gereziak eta mizpirak (IRN-020/011)**

Kamamila bila, etxerako eta saltzeko. Tratuarekin batera. Errez saltzen zuten kamamila. Pikoketara joaten ziren, meriendarekin aitarekin. Goroldioa, Gabonetan. Gorostia jendeak zuzenean hartzen zuen beraien menditik. Gereziak, mizpirak... lapurtzen zizkieten. Gaztaina, intxaurrak. Sagarra.

### **198. Pitarra umeentzat; iturrira ur bila (IRN-020/012)**

Sagarra. Sagardoa egiten zuten ondoko baserriko dolarean. Pitarra ere bai, umeentzat, ur pixka bat botata. Iturriko ura non jartzen zuten. Marmitak eta uztarria, ur bila joateko. Ez zegoen urruti, baina bai maldan.

### **199. Arropa garbitzen, beti lanpetuta (IRN-020/013)**

Arropa garbitzeko: etxean teilatuko ura berotu, eta bertan xaboitu. Gero errekarra; ura hotza zegoen. Harriak. Ez zen denborarik kontu-kontari aritzeko. Ez zuten kantatzen. Umetan ere jolas gutxi.

## **200. Baratzeko lanak (IRN-020/014)**

Baratzea. Udaberrian lan handia, neguan gutxiago. Landareak Hernanin erosten zituzten, trenez joanda. Lurra lantzeko, goldea eta area, behiekin. Txikiak eskolara joaten ziren, baina zaharrenek lan asko egin behar izan zuten. Umezain. Askok pasatutakoak dira.

## **201. Tiro eta bonba artean, etxetik ezin atera (IRN-020/017)**

Tiroak eta bonbak. Etxeko horma zulatuta. Hondarrezko zakuak jarrita, balak ez sartzeko. Mehatxatu egiten zituzten. Aireplanoak bonbardatzen hastean, amarekin tunel batean ezkutatzen ziren. Soroak hondatuta.

## **202. Txekorrak eta oiloak kendu, eta beraiek goseak (IRN-020/018)**

Ganadua eta oiloak kentzen zizkieten. Etxetik ezin atera. Inguruko baserritarrak beraiean. Oiloak denek harrapatzen zituzten, miliziano zein soldadu. Beraiek jatekorik gabe utzi zituzten. Behie jaten emateko ere larri.

## **203. Irun sutan; lapurretak etxe eta dendetan (IRN-020/019)**

Irun sutan ikusi zuen. Ezin zuten tratua saltzera joan, dena zegoen geratuta. Ezin zen ezer egin. Behie jaten emateko ere larri. Etxeetatik eta dendetatik lapurtutako gauzak neska gazteei ematen ibili ziren soldaduak, Irun erre aurretik. Urte asko behar izan ziren Irun konpontzeko.

## **204. Errazionamenduko ogirik ez baserritarrentzat (IRN-020/020)**

Gerra osteko gosea. Umeak ziren, eta ez ziren lanerako gauza. Aita hil zenean, okerrago. Normaltasunera bueltatzea ez zen erraza izan. Artoa eta babarruna entregatu beharra; erosi egiten zuten. Errotara isilka; anaiari Guardia Zibilak isuna jarri zion eta irina kendu. Ogirik ez baserritarrentzat; eskatu zutenean gertatu zena.

## **205. Errazionamendua; artoa erosi beharra (IRN-020/021)**

Errazionamenduarekin bizitzea ez zen erraza; baserritarrei muga asko zituzten. Kendu egiten zieten, baina eman gutxi. Taloa ere ez zuten beti izaten. Artoa erosi beharra, etxean nahikoa ez zutelako. Bidean irinarekin, isilpean.

## **206. Fusilamenduak eta gerraren ondorio latzak (IRN-020/022)**

Gerra txarra da, baina gerra ondorena okerragoa. Bizi izan ez duenak ez daki. Gazte asko ez ziren bueltatu. Fusilatu ere asko egin zituzten; Oiartzunera kamioietan eramaten zituzten mutil gazteak. Informazio falta zegoen, eta ezin galdetu.

### **207. Maistra baserritarrei burlaka; Pilar ikastetxera gero (IRN-020/024)**

Lau urterekin hasi zen eskolan. Gerra etorri zenean, itxi egin zuten. Gero berriz eskolara; maistra militar baten alaba zen eta baserritarrei burla egiten zien. 7-8 urterekin Pilar ikastetxera eraman zituen osabak. Oinez joaten ziren, bazkariarekin. Bustita iristen ziren askotan. Lau kilometro.

### **208. Mojekin askoz hobeto (IRN-020/025)**

Mojekin ondo; euskaldunak ziren batzuek. Eskolak erdaraz ziren, baina baserritarren artean euskaraz aritzen ziren, arazorik gabe. Jostaketak. "Kilinkolin", sokasalto, kukuka.

### **209. Tratu mingarria eskolan; jaunartzea eta dotrina (IRN-020/027)**

Kateako eskolan dena erdaraz egiten zuten, eta oso zaila egiten zitzaien. Maistrak "caseras burras" deitzen zien. Emakume gogorra zen. Zigortu egiten zituen, baina tratua zen mingarriena. Pilar ikastetxean dena errazagoa egin zitzaien. Mojekin tratu ona. 13 urte arte, jaunartzea egin arte. Amonak erakutsitako otoitzak. Jaunartzerako dotrina eskolan ikasten zuten, erdaraz. Etxean otoitzak euskaraz. Jaunartzearekin bukatzen ziren ikasketak.

### **210. Josten ikasten; ezkonberrientzat barruko arropa (IRN-020/028)**

Ikasketak 13 urterekin bukatzen ziren, gero lanera. Josten bai, ikasten zuten. Zaharrarekin berriak egiteko trebetasuna. Jantziak. Amak ondo josten zuen. Neguan bordatzen ikasten, irakasle donostiarrarekin.

### **211. Ezkontzarako barruko arropa eta arrea (IRN-020/029)**

Asko josten zuten. Etxerako eta enkarguz ere bai batzuetan. Ezkontzarako barrengo arropa egiten ibili ziren ahizpa eta biak, gauez. Nolakoa zen azaltzen du, bainikazkoa, dena eskuz egina. Ezkontzako arrea beraiek prestatu zuten.

### **212. Eskolara bazkaria etxetik eramanda (IRN-022/003)**

Gurutzeko eskolara joaten ziren umetan, etxetik eramaten zuten bazkaria, mendi-bidetik joaten ziren, bazkaria eskola ondoko tabernan berotzen zuten...

### **213. Zozketa zer jan jakiteko (IRN-022/006)**

Lehen maiatzean asko abesten zen, eta horren ostean, paperen zozketa izaten zuten zer jan behar zuten erabakitzeko.

### **214. Arropa garbitzeko egin beharrekoak (IRN-022/010)**

Arropa garbitzeko, arropaz betetako terreina buru gainean hartu eta errekarra joaten ziren; han belaunetaraino sartzen ziren. Neguan, ordea, harri gainean garbitzen zuten arropa belauniko. Errekara joan aurretik, maindireak beratzen edukitzen zituzten.

### **215. Gerra ostean goserik ez zuten pasa (IRN-022/013)**

Gerra ostean ez zuten goserik pasa. Ogia etxean izaten zuten. Garia nola lantzen zuten azaltzen du. Lortutako irinarekin taloa egiten zuten.

## **216. Amak egin beharreko lanak (IRN-022/015)**

Aitak astoa oso maitea zuen, nahiz eta hura gaizto samarra izan. Ama bakarrik etortzen zen askotan Donostiatik etxeraino. Amak lan asko egin behar izan zuen, eta nahiago izaten zuen janaria umeentzat gorde, beretzat hartu baino.

## **217. Igande arratsaldeetako planak (IRN-022/019)**

Txoritarako zaletasuna bazuten lehen ere. Igande arratsaldetan txoriak harrapatzen eta tomate buruekin jolasean aritzen ziren. Beheko errekan arrainak harrapatzen ere ematen zuten igande arratsaldea; arrantzarako zer teknika erabiltzen zituzten azaltzen du.

## **218. Gurasoek nola ezagutu zuten elkar (IRN-023/005)**

Aita Hondarribikoa zen, eta ama Olaberriakoa, goierritarra. Aitaren ama gazte alargundu zen, eta bigarren ezkondu zen, Goierriko gizon batekin. Gizon haren iloba gaztea joan zen bisitan (ama), eta hala ezagutu zuten elkar gurasoek.

## **219. Trenean harremanak egitea (IRN-023/007)**

Bere anaia zaharrena arotza zen. Frantziara joan zen lanera eta han ezkondu zen; haren alabak liberalagoak ziren, eta trenean egiten zituzten lagunak etxera gonbidatzen zituzten. Hemen hori ez zen normala.

## **220. Aranibarzar baserrian sagardotegia jarri zuten gurasoek (IRN-023/009)**

Aitaren auzokoek jakin zutenean kanpotar batekin ezkondu behar zuela, kritikatu egin zuten. Andregaiaren aita auzo alkatea zela erantzun zuen. Hondarribian ezkondu, eta Irunera joan ziren bizitzera, Aranibarzar baserrira. Sagardotegia jarri zuten. Senar-emazte aberats batzuek ahizpa eraman zuten, hazteko.

## **221. Botoa ez emateagatik, baserritik bota zituzten (IRN-023/010)**

Aranibarzar baserriaren jabeak administratzaile bat zuen, eta boto bila joan zen. Aita karlista zen, eta nagusia errepublikazalea. Hiru botorengatik galdu zuen, eta etxetik bidali zituen. Aita Txumarragako nagusiari laguntzen ibiltzen zen, morroi. Hark maizterra bidali zuen, eta hara joan ziren.

## **222. Anaia asko eta neska gutxi etxean (IRN-023/011)**

Ahizpa zaharrena bera oso umea zela ezkondu zen. Mutil asko ziren, eta neska gutxi. Gurasoak zaintzeko ardura zuten neskek. Txumarraga baserriak lursail asko zituen. Maizterrak ziren. Nagusiarekin ondo konpontzen ziren.

## **223. Maizterra izan eta etxejabe bihurtu (IRN-023/013)**

Maizterrak ziren. Nagusiarekin ondo konpondu ziren beti, etxeko andrearekin. Errenta txikia zuten. Etxeko andrea hil zenean, seme-alabek lursailak saldu zituzten eta baserria berarentzat eman zioten. Justina eta Faustina, bi izen ditu.

#### **224. Maistrari mandatuak egiten (IRN-023/015)**

Eskolan ibili zen garaia. Mandatuak egiten zizkion Felisa maistrari. Kafe bila bidaltzen zuen tabernara. Ostegun arratsaldean jai izaten zen, eta zinemara eramango zuela esan zion, Donostiara. Alpargatak jantzi zituelako, ez zuen eraman.

#### **225. Ahizpa gazte alargundu zen (IRN-023/016)**

Ahizpa zaharrenak berak baino hogeitaz urte gehiago zituen. Hura ezkondu zenean bi urte eta erdi zituen, baina ez zion sekula maitasun handirik erakutsi. Treneko makinista zen senarra. Alargun geratu zen sei seme-alabarekin.

#### **226. Eskolan, bera irakasle lanetan; erdaraz (IRN-023/018)**

Eskolako kontuak. Oinez joaten ziren, bidezidorretik. Neska-mutilak elkarrekin. Maistrak bera jartzen zuen irakasle moduan. Erdaraz ikasten zuten. Francok euskara galarazi zuen gero.

#### **227. Ahizpak taberna hartu zuen errentan (IRN-023/026)**

Ahizpak, alargundu zenean, jostun tailerra jarri zuen. Emagin moduan ere ibiltzen zen, medikuarekin. Haurra izaten lagundu zion emakume baten gurasoek taberna zuten; taberna ahizpak hartu zuen, errentan. Bera laguntzera joaten zen.

#### **228. Gerrak hondatu zien tabernaren negozioa (IRN-023/027)**

Auzoan portzelana lantegia egin zuten garai hartan, eta langile asko ibiltzen zen Ongi Etorri tabernan. Mahaietan ez zen zapirik jartzen. Ahizpa sukaldari ona zen. Gerra hasi zenean, miliziano asturiarrak joan ziren. Erreketeak sartu zirenean, ihesi joan ziren.

#### **229. Ahizparen ibilerak, Bartzelonan (IRN-023/028)**

Ahizpa Hendaiara joan zen familiarekin, taberna utzita. Handik Bartzelonara bidali zituzten. Trenbideko langile baten alarguna zenez, toki ona eman zieten bizitzeko editore baten jauregian. Bonbardaketa batean etxea txikitu zuten.

#### **230. Gurasoekin geratu zen, baserrian, gerra garaian (IRN-023/032)**

Anaia gazteena ezkonberria zen gerra hasi zenean, baserrira. Frantziara joan zen, gurasoak utzita; ez zuen gerrara joan nahi. Bera geratu zen etxean.

#### **231. Irun erre egin zuten (IRN-023/034)**

Irun erre egin zuten. Katean ez zuten etxerik erre, anaiak asturiarrei munizioa kendu zitelako. Astotxo batekin joaten ziren plazara.

#### **232. Plazara saltzera; etxean argirik ez (IRN-023/036)**

Esnea, arrautzak, berdura eta fruta saltzen zituen plazan. Argirik ez zuten etxean sasoi batean. Urik ere ez zuten. Iturrira joaten ziren ur bila, uztarriarekin.

### **233. Lastaola baserria, Irungo zaharrenetakoa (IRN-025/002)**

Lastaola baserria aspaldikoa da, Irungo zaharrenetakoa. Karlstaden garaian ere bazen. Izenaren jatorria. Ama Berakoa zuen, aita bertakoa. baserritik bizi ziren. Esnea, ganadua. Baserriko lanak. Pagotxa eta arbia. "Jokiya" eta jatena.

### **234. Baserrian lehen eta gaur (IRN-025/004)**

Ehun bat litro saltzen zituzten egunero, eta beste ehun auzoan batutakoak. Gaur egun askoz litro gehiago ematen dute behiek, eta askoz behi gehiago dituzte. Baserria nola aldatu den. Berrikuntzak.

### **235. Iratzea, ganaduaren azpiak egiteko (IRN-025/006)**

Mutikoa zenean, iratzea (garoa) eramaten zuten etxera. Irailaren erdialderako hasten ziren iratzetan. Azpiak atera eta zapaltzea. Gorotza, simaurra. Pilak egiten zituzten. Auzoan elkarri laguntzen zioten. Bi urtetik behin ematen zuten simaurra soroetan. Garo metak; ziria.

### **236. Iratze metak eta belar metak (IRN-025/007)**

Iratze metak; ziriak. Belar meta gehiago zaintzen zuten. Beran meta txikiak egiten zituzten osabak eta. Iparraldekoen lan egiteko modua: "balatu" egiten zuten. Aurreratuago zebiltzan haiek beti.

### **237. Otea ekarri eta txikitzea, lanik okerreana (IRN-025/008)**

Baserri bakoitzak bere mendiak zituen. Otea okerragoa zen. Berako fundizioa eta karreteroak joan-etorrian, trena jarri zuten arte. Bideak nola egiten zituzten lehen. Gurasoek kontatzen zutena. Otea eskuz txikitzen, abereentzat.

### **238. Gerra ondoan errotara ezkutuan; taloak (IRN-025/009)**

Gerra ondoan urte tristeak pasatu zituzten. Lastaolan bizi zena (maizterra) ihesi joan zen, eta aita baserrian sartu zen. Sukaldea nolakoa zen, beheko sua. Odolkiak eta taloak. Errota zuten hiru kilometrora. Artoa "kuxkildu" eta errotara, ezkutuan. Artoa entregatu beharra. Aldaketak.

### **239. Kontrabandistak eta gabarrazaleak (IRN-025/011)**

Estraperloan ez ziren ibiltzen etxeak, baina pasadizoak badakizki. Portugesak ibiltzen ziren asko. Engainuak. Guardia Zibilaren kontrolak. Trena jarri aurretik gabarraz egiten zuten garraioa, metalarena. Ganadua gabarra gainera igotzen zuten jaisterakoan.

### **240. Kontrabandisten komeriak: emakume diruduna bestaldera eramaten (IRN-025/012)**

Kontrabandista batek kontatu zion pasadizoa kontatzen du: familia oneko emakume bat bestaldera pasatzeko izan zituen komeriak. Bizikletan eraman zuen haraino. Ibaian busti zenean, garrasika hasi zen emakumea. Harriak botatzea zen seinalea.

### **241. Txalantan errekan batetik bestera (IRN-025/014)**

Kontrabando kontuak. "Txalanta" sokarekin ibilarazten zuten ibaian batera eta bestera, jendea pasatzeko. Pita eta listaia. Paketeak. Puntillak eta jatekoa. Olaberria auzotik ere joaten ziren kontrabandoan aritzera.



## **242. Alemanen beldur ziren kontrabandistak (IRN-025/015)**

II. Mundu Gerran alemanak zeuden bestaldean, eta kontrabandistek beldur handia zieten. Erraz botatzen zuten tiroa, baita preso hartu ere. Pasadizo bat kontaktzen du.

## **243. Arbia, erremolatxa eta lastoa (IRN-025/017)**

Ganaduaren jatena. Arbia noiz loratzen den. "Jokiya". Esne asko emateko, lastoa ematen diete orain behiei. Lehen, belar ondua. Lehen izaten ez ziren arazoak ere badituzte orain abereek. "Otaxka".

## **244. Alfalfa, pagoxa eta tefla (IRN-025/018)**

Alfalfa garestia zen, baina errazago egiten zen orain baino; kare askoko lurrak ziren. Pagoxa eta tefla. Artzainek zein arazo zuten alfalfarekin.

## **245. Esnea partitzera Irunera (IRN-025/020)**

Behiak eskuz jezten zituzten. Hilean behin joaten zen kontrolatzailea. Lehiaketetan parte hartzen zuten. Gurelesa kalitatearen arabera hasi zen ordaintzen. Gurelesan sartu zen, baina Irunera joaten jarraitzen zuen; borroka. Aurretik auzoko esnea bildu, eta kalera joaten ziren saltzera. Umetatik hasi zen bera ere, hotzak akabatzen. Zaldi-karroa. Aldaketei buruzko iritzia.

## **246. Esnea partitzera Irunera II (IRN-025/021)**

Behorrarekin joaten ziren esnea partitzera. Hartzaileen ordaintzeko modua. Marmita ahazten bazitzaien, bost kilometroko bidea egiten zuten bila joateko, oinez. Seietarako ez bazeuden prest, aita ez zen zain egoten. Puntuan zebilen beti. Erlojuak. "Txintxilla".

## **247. Esnea partitzera Irunera III (IRN-025/022)**

150 bat litro saltzen zituzten egunero. Esnearen negozioa nolatan utzi zuten azaltzen du, Gurelesa. Irungo plazan posturik ez zuten. Berdura ere egiten zuten, etxetan saltzeko. Sobrak "rebendedorei" ematen zizkieten. Lehengo azokak. Hondarribiko baserritarrek.

## **248. Hamabi urte arte eskolan (IRN-025/024)**

Hamabi urterako utzi zuen eskola. Partikularrera joaten zen gero, bizikletan, Irunera. Auzoko eskola publikoan ibili zen, eta, gero, La Sallen. Dena erdaraz ikasten zuten.

## **249. Kantatzeko eta dantza egiteko ohitura (IRN-025/025)**

Askok kantatzen zuten; orain afizio falta sumatzen du. Dantza egiteko modua ere aldatu egin dela dio. Lehengo bilerak nolakoak ziren, baserritarren topaleku. Panderoa eta akordeoia. Katean eta Anakan izaten ziren, Ibarlan ere bai. Herriko etxean txistua eta ttunttuna.

## **250. 14 urtereko, esne negozioaren buru (IRN-025/027)**

La Sallera zakotearekin joaten zen, eta bertan berotzen zuen bazkaria. Bizikletan joaten zen, anaiarekin. 14 urterako bera zen esnearen negozioaren arduraduna. Morroiak bere kargu. Segan egiten, berriz, ez zion uzten aitak.

### **251. Irungo segalariak: Irastortza eta Bengoetxea (IRN-025/028)**

Sega apustuak eta sega jotzeko sekretuak. Segalariak: Beñardo Irastortza eta Iñaki Bengoetxea. Garai bateko tranpak.

### **252. Bidasoan arrantzan: aingirak (IRN-026/001)**

Igandetan arrantzan ibiltzen ziren Bidasoan, aingiretan. Kanabera zizareak jarrita. Angulak ere hartzen zituzten, baiarekin, gauez. Etxerako izaten ziren, ez saltzeko. Denak desagertu dira. Ezkaluak.

### **253. Errekan arropa garbitzen; ur bila iturrira (IRN-026/002)**

Arropa garbitzera erreka joaten ziren. Amari urak eraman zion barreñoa behin; berak berreskuratu zuen. Etxean urik ez zuten. Iturrira joaten ziren, egunean hirutan-lautan. Udan, edateko.

### **254. Sagardoa eta pitarra (IRN-026/003)**

Sagardoa eta pitarra egiten zuten, auzoko baserri batean. Aitari asko gustatzen zitzaion sagardoa. Sagartegia. Zizarra. "Lepaka" ibiltzen trebea zen aita. Otea.

### **255. Txori habia bila eta tranpak jartzen (IRN-026/004)**

Txoritarako afizioa. Zozo eta birigarro habia bila. Pareta txoriak. Jateko hartzen zituzten. Jardineriak hazten zituzten kaiolan. Elurretan tranpak jartzen zituzten. Artaleak jartzen zituzten zepoan. Bazuten eskopeta etxean, San Martzialan desfilatzeko.

### **256. Umetako jolasak: tiragoma, baloia... (IRN-026/005)**

Tiragomari "xardia" esaten zioten. Beraiek egiten zituzten. "Magarikatua". Baloiak egiten zituzten zakuekin. Aitonak ekarri zien behin bat eta hautsi egin zitzaion. Berako osabak egindako aroarekin ere ibiltzen ziren, korrika. Lasterketak ere egiten zituzten. Iparraldeko umeekin ez zuten harreman handirik. Auzokoak ibiltzen ziren.

### **257. Auzoa asko aldatu da (IRN-026/006)**

Gaur egun baserri asko hustu da. Sasiak jaten ari da dena. Ardiak eta poniak ditu, zelaia garbitzeko. Pinuak ere ez du jada ezer balio. Bere iritzia langabeziari buruz.

### **258. Ilargiaren garrantzia baserrian (IRN-026/009)**

Ilargia kontuan izaten zuten: arbolak botatzeko, txerria hiltzeko, hazia ereiteko... Mareak ere aintzat hartzen zituzten. Orain giroari ematen zaio garrantzia handiagoa. Tomatea botilaratu egiten zuten. Zezina egiten zuten. Urdaiazpikoa gazitzea.

### **259. Karearen erabilerak (IRN-026/010)**

Karearen erabilera soroan. Etxeak zuritzeko ere erabiltzen zuten. Urtean behin ala birritan.

## **260. Koltxoiak jotzen (IRN-026/011)**

Koltxoietako artilea amonak harrotzen zuen. Artoaren "txuriztua" (txurikina) ere erabiltzen zen koltxoiak betetzeko.

## **261. Komuna eta bainuak; igerian jakitearen garrantzia (IRN-026/012)**

Komuna nolakoa zen azaltzen du. Garoa zuten azpian. Egunkari papera erabiltzen zuten. Errioan bainatzen ziren. Igeri egiten jakitea inportantea zen Bidasoa errekan, arriskutsua zelako. Anai-arrebak joaten ziren. Bainujantziak.

## **262. Argindarra bai, baina eskasa; aurrerapenak baserrian (IRN-026/013)**

Urik ez, baina argindarra bazuten etxean. Tximistekin gaizki ibiltzen ziren. Behiak jezteko makina jarri zuteneko arazoak; Goierrin laguntza gehiago izan zuten. Baserriko aurrerapenak. Behi suitzarrekin ekoizpena asko jaitsi zen. Egungo egoerara iristeko egin duten ibilbidea kontatzen du.

## **263. Ganadu txapelketak (IRN-026/014)**

Ganadu txapelketak. 16 urterekin Madrilera joan zen. Itsaslurren trofeoa ere lortu zuten. Irunen eta Hondarribian ere egiten ziren txapelketak; oinez joaten ziren. Gaur egungo txapelketak nolakoak diren.

## **264. Ganadu txapelketak II (IRN-026/016)**

Sariak irabazten zituzten ganadu lehiaketetan. Sariak ez ziren handiak, trofeo ugari eta diru gutxi.

## **265. Oinez toki guztietara; gerrako kontuak (IRN-026/018)**

Zezenarengana eramaten zituzten behiak, oinez, baita ferratokira ere. Elizara ere oinez joaten ziren, Behobiara. Dotrina. Amaren fedea. Gerra garaiko kontuak: amak egindako eskapada, bestaldetik etorrita. Etxea kiskali zieten.

## **266. Fedearen gainbehera; egungo gizarteari buruzko iritzia (IRN-026/020)**

Ama Birjina etxez etxe ibiltzeko ohitura nola galdu den. Etxean dute orain beti Ama Birjina. Fedea galdu egin da. Gaur egungo gizarteari buruzko iritzia. Errespetu handia zieten nagusiei. Diziplina zegoen.

## **267. Kanturako eta kontu kontari egoteko zaletasuna (IRN-026/022)**

Kantuan aritzen ziren artoa "kuxkiltzen", aletzen. Lamierriko lamiak ere aipatzen zituzten, baina berak ez zuen sinesten. Koplari ateratzen zen Eguberrietan. Eskolan erdarazko abestiak ikasten zituzten.

## **268. Irungo euskara eta ingurukoa (IRN-026/024)**

Irungo auzo denetan euskara antzekoa dela dio. Nafarrerako ukitua. Hondarribiko euskara. Gero eta desberdintasun gutxiago daude. Oiartzuarren doinua. Euskara onena Tolosakoa eta Donostiakoa ei da. Gazte asko erdaraz egiten dute etxean, haurrak ikastolara bidali arren.

### **269. Gerra garaian, etxea erre zieten (IRN-027/002)**

Meaka auzoan jaio zen, Arrizuretakeo baserrian. Gerra denboran erre egin zuten. Altxatu egin zuten berriro. Ezkondu arte bizi izan zen han. Etxea nolakoa zen, su baxuarekin.

### **270. Arrizuretakeo ur saltoa, Irun guztirako argia sortzen (IRN-027/004)**

Aita Arrizuretakeo ur depositoko guarda zen. Beti izan zuten ura etxean. Telefonoa ere bazuten. Ur saltoa. Ura nondik zetorren. Argindarra sortzen zen, turbinekin, Irun guztirako. Kanaleko zaintzaileak. Electrairun Indarra. Animaliak zituzten etxean.

### **271. Txekorrak saltzen zituzten (IRN-027/005)**

Animaliak zituzten etxean. Ez ziren plazara joaten tratuarekin. Txekorrak hazten zituzten, saltzeko. Irungo hiltegira eramaten zituzten, oinez.

### **272. Gerra hasiera, Irunen (IRN-027/006)**

Gerra nola hasi zen, uztailean. Pikoketa abuztuan hartu zuten erreketeeak, eta egun hartan eman zioten sua beraien etxeari gorriek. Ortiz de Zarate hil zuten. San Martzialen hiru eguneko tiroketa izan zen. Minako ur-jauzitik ikusi zuten dena. Mandoak nola amildu ziren. Maindire zuriarekin joan zen aita.

### **273. Milizianoak etxean (IRN-027/007)**

Milizianoak etxean egon ziren. Lopetegi abizeneko bat hil zen han. Beraiek minetako etxe batera joan ziren. Aita etxean geratu zen, eta miliziano katalan bat ondoan izaten zuen.

### **274. Milizianoak fusilatu egin zituzten erreketeeak (IRN-027/008)**

Nazionalak sartu zirenean, errepublikazale asko fusilatu zituzten. Pikoketan lurperatu zituzten. Milizianoen artean ez zen baserritarrik. Kaletarrak ziren gehienak. Emakume gazteak ere bazeuden tartean, bi. Lagun baten arreba zen bat.

### **275. Bonbak eta tiroketak, Irunen (IRN-027/009)**

Bonba-hotsak gogoan ditu oraindik. Cascadan bizi zirenean, etxea tirokatu zuten erreketeeak. Gizonak minara sartzen ziren. Ardiak hiltzen zituzten, jateko. Ogirik ez zuten. Irun erre zutenekoa.

### **276. Ibarlako eskolara, bederatzi urterekin (IRN-027/010)**

Bederatzi urterekin hasi zen eskolan, baina ordurako bazekien irakurtzen eta idazten, amak erakutsita. Ibarlako eskolan ibili zen. Ordubeteko bidea zuen etxetik. Meazuritik, berriz, bost tunel pasatu behar zituen ilunetan. Maistra frankista zen. Cara al Sol kantatu. Anaia 17 urterekin hil zen, gaixotuta. Apaizak euskaraz erakutsi zien dotrina.

### **277. Dotrina, euskaraz; zakotearekin eskolara (IRN-027/012)**

Euskaraz egin zuen Jaunartzea. Parrokian ikasten zuen dotrina. Ordubeteko bidea zuen hara ere. Zakotean eramaten zuen bazkaria, Ibarlako eskolara. Baserritarrak egurketara bidaltzen zituen maistrak.

### **278. Baserriko tresnak egiten (IRN-027/013)**

Umetako lanak baserrian. Behien aurrean ibiltzen zen. Arotzerako zaletasuna zuen, eta etxean hasi zen bere kasa tresnak egiten. Soldadu joan zenean, arotza zela esan zuen eta hantxe ikasi zuen altzariak egiten. Area, arrastelua... Kurtetxea, pertika. Birbikina, taratelua eta trintxa.

### **279. Baserriko tresnak egiten II (IRN-027/014)**

Kurtetxea nola egiten zuten azaltzen du: loturak eta piezak. Zapina eta maizterra. Ezpata. Kajola.

### **280. Baserriko tresnak egiten III (IRN-027/016)**

Tresnen kirtenak egiteko lizarra erabiltzen zuen. Urritza. Area, bostortza. Zuhaitzak noiz bota behar diren: haltza maiatzeko ilberrian, baina ez da ostiraletan bota behar. Makala. Haritzak. Pagoa. Uztargileak. Tronkazarra.

### **281. Bonbekin jolasean, eskapada (IRN-027/020)**

Meazurin bizi zirenean, eskolara eta baserriko lanak izaten zituzten. Orduko jolasak: bonba batekin egin zuten eskapada. Gurpilekin jolasten. Beraiek egindako pilotak. "Barrenka".

### **282. Zozoen eta txepetxen habiak (IRN-027/021)**

Txori habia bila. Zozoen eta txepetxen habiak nolakoa diren azaltzen du. Txorikumeak kaiolan sartzen zituzten, eta etxean hazi.

### **283. Oilagorretan, saltzeko (IRN-027/022)**

Oilagorretan hasi zenean, saldu egiten zituen. Ehiza txakurrak. Aiako harrira joaten zen, baita Nafarroara ere. Galeperra. Jateko onena oilagorra dela dio.

### **284. Amuarrainak harrapatzen errekan (IRN-027/024)**

Arrantzan, umetan: eskuz harrapatzen zituen amuarrainak. Nolakoak ziren eta nola hartzen zituen. Aingirak, sardexkarekin. Iturri-erreka zen, berezia. Ezkaluak. Zapaburuak. Kilkerrak harrapatu eta etxera eramaten zituzten. Ez zuen igeri egiten ikasi, ez zen toki aproposik. Bainujantzirik ez.

### **285. Ez zuen igeri egiten ikasi; arropa gutxi zuten (IRN-027/025)**

Ez zuen igeri egiten ikasi, ez zen toki aproposik. Bainujantzirik ez zuten, ezta pijamarik ere. Arropa gutxi. Aska ederra zuten etxean, arropa garbitzeko. Porróna.

### **286. Iratze bila mendira; ganaduaren jatena (IRN-027/026)**

Baserriko lanak. Ganaduari jaten ematen baino kanpoko lanetan ibiltzen zen. Menditik iratzea eramaten zuten. Segá. Arba. Iratze metak, etxe atarian. Azpiak egitea. Belar idorra.

### **287. Errotara artoarekin Nafarroara (IRN-027/027)**

Gerra ondoan San Antonera joaten zen errotara artoarekin, Nafarroara. Anekdotak, mandoarekin. Taloak egiten zituen amak, su baxuan, esnearekin jateko. Babarruna eta artoa entregatu beharra. Tranpak.

### **288. Txerria hiltzen zuten urtero; odolkiak egiten (IRN-027/028)**

Olio gutxi izaten zen. Txerria hiltzen zuten. Berak ere ikasi zuen hiltzen. Azalpenak. Amak batzen zuen odola. Odolkiak egiten laguntzen zuten. Hesteak garbitzea. Inbutuarekin bete, eta sortak egitea. "Txerri-moniyak ordainetan".

### **289. Txorizoa eta urdaiazpikoak; txerri gibela (IRN-027/029)**

Txorizoak egitea. Urdaia eta giñarra. Piper gorria. Urdaiazpikoa, gatzetan eduki eta ondoren zintzilik, piper gorriarekin igurtzita. Gibela zen lehenengo jaten zena. Gibela analizatzea.

### **290. Txerria hiltzeko tokia (IRN-027/030)**

Txerria hiltzeko mahaia. "Kupia", etxeko estalpea. Sua egiten zuten iratzearekin. Teila puskak. Txerrikumeak. Oilaskoak. Ogia falta zuten, baina goserik ez.

### **291. Gaztetako lanak (IRN-027/031)**

Mendiko lanetan ibili zen, pinuekin. Galdarak egiten ere ibili zen. Soldadutzatik bueltan aduanan hasi zen lanean, nahiz eta arotza izan afizioz.

### **292. Aduanan lanean (IRN-027/033)**

Aduanako lana zein zen azaltzen du: merkantzia ondo zetorren begiratzea. Mantenimenduan jarri zuten gero. Artxiboan egon zen. Bagoietako kaxak deskargatu, eta zabaltzea, ikusteko. Ez-ikusiarena egitea.

### **293. San Anton baserria ermita zenekoa (IRN-029/003)**

San Anton baserriak 300 urte dituela dio. Ermita zen sasoi batean, baina gotzainak meza kendu omen zuen, jendeak parranda egiten zuelako eta borrokak izaten zirelako. Gurutzea hor dago oraindik.

### **294. Hamabost lagun baserrian (IRN-029/005)**

Hamabi senide ziren, gurasoak eta morroia, hamabost denera. Ahal bezala moldatzen ziren lotarako, ijitoak bezala.

### **295. Ijitoak, mojak eta fraideak eskean (IRN-029/007)**

Ijitoak eskean joaten ziren lehen. Mojak eta fraideak ere bai; babarruna eskatzen zuten hasieran eta gero dirua.

### **296. Urik eta argindarrik gabeko garaia (IRN-029/009)**

Urik ez zuten etxean. Argindarra noiz jarri zuten gogoan du. Errekan garbitzen zuten arropa. Arropa garbitzeko modua. Labadora. Iturria. Ero bati buruzko anekdota kontatzen du. Uztarria ere erabiltzen zuten.

### **297. Baserriko bizimodua: esnea eta egurra partitzen (IRN-029/010)**

Ama astean behin joaten zen mandatuen bila Irunera, eta buru gainean ekartzen zituen. Orduko bideak. Autorik ez zegoen. Gurbibidea. Bizkarka egiten zuten lana. Ez ziren tratua saltzera joaten. Esnea partitzen zuten. Egurra partitzen zuten, zazpi pezetan zakua. Emakumeak ere ibiltzen ziren egurketan. Sega.

### **298. Ogirik ez eta taloak jaten; errotak (IRN-029/013)**

Ogirik ez zen, taloa jaten zuten. Baia. Taloak nola egin. Nafarroara joaten ziren, irin bila. Bertako errotak. Endarlatzako guardia zibilekin izaten zituzten tira-birak. Taloa hobe da ogia baino.

### **299. Eskolara gutxi joan zen (IRN-029/015)**

Umetako lanak, baserrian. Eskolara ez zen asko joan. Artoa. Estebenera joaten ziren eskolara. Erregelarekin jotzen zien. Dotrinari ematen zioten garrantzia. Euskaraz ezin egin. Frankismoa. Urrutitik, Pikoketatik ere joaten ziren umeak.

### **300. Hotza barrutik eta kanpotik (IRN-029/016)**

Etxe ondoko bat ardiekin Pikoketa aldera joaten zen. Hotzak eta goseak egoten zen han. Berogailurik ez zuten etxean, sua egiten zuten. Beheko sua eta "labatza".

### **301. Argindarra jarri aurretik, kinkearekin (IRN-029/018)**

Urik ez zuten. Komuna nolakoa zen. Argindarra jarri zutenekoa. Aurretik, kinkea; arriskutsua zen. Suteak.

### **302. Ventas edo Katea auzoa (IRN-032/002)**

Ventas auzoaren izena nondik datorren azaltzen du. Katea izenaren jatorria. Larrearen tabernan izaten zen bilera. Sei urterekin hasi zen auzoko eskolan, baina laster Ibarlara bidali zuten artzain, amonaren etxera. Hamarrekin bueltatu zen etxera.

### **303. Otxoenea baserrian jaioa (IRN-032/003)**

Atautxia. Aita-eta non bizi izan ziren, Otxoenea baserria erosi aurretik. Maiorazgoa zen berez, baina anaiari eman zioten. Bi bizitza ziren. Lau senide ziren, mutilak.

### **304. Irungo Flores ikastetxea (IRN-032/004)**

Hamar urterekin bueltatu zen eskolara, eta Irungo San Francisco de Asis ikastetxera bidali zuten gero, Flores bezala ezagunagoa. Amari ikasteko balio zuela esan zion maisuak. Hilario Paladis agentzian hasi zen lanean, Irunen; Aduanako bulegoak ziren.

### **305. Aduanako agente lana I (IRN-032/007)**

Aduanako agente lana nolakoa zen azaltzen du. Bere kontura hasi zen lanean, titulua aterata. Bi langile izan zituen bere kargu, hasieran, eta gero gehiago. Aduana kendu zutenean, indemnizazioetan joan zitzaion irabazitakoa.

### **306. Aduanako agente lana II (IRN-032/009)**

Aduanako agente bezala asko bidaiatzen zuen. Bezero gehienak Euskal Herrian zituen, produktuak eskatzen zituzten enpresaburuak.

### **307. Amaren familia eta aitarena (IRN-032/011)**

Aita Otxoenean jaioa zen, eta ama Ibarlakoa zen. Aitona Zegamakoa zen, eta amona Zeraingoa. Minazuritik esnearekin joaten zen Irungo kalera, oinez. Artzain ibiltzen zen bera, larrean. Eltze txiki bat eramaten zion amonak, otordua egiteko. Aita Arditurriko minetan ibili zen lanean, eta Renfen hasi zen gero. Etxea nola partitu zuten.

### **308. Arabatik patata ekarri eta saltzen I (IRN-032/012)**

Iruren eskolan 11 urterekin hasi zen, baina trena debalde zuten eta patata bila joaten ziren anaia eta biak. Arabatik ezkutuan ekarri eta saldu egiten zuten. Abastosen kontrolatuta zegoen patata eta babarruna. Harrapatuz gero, patata kentzen zuten. Donostiako anekdota.

### **309. Arabatik patata ekarri eta saltzen II (IRN-032/013)**

40 kilo ekartzen zituzten aldiko, astean hiru bidaia eginez sasoi onenean. Aitak urte osoan baino baino diru gehiago irabazten zuten. Ilarduin (Araia ondoan) egon zen erdara ikasten, hiru udatan, eta handik erosten zuen patata. Nola eramaten zituzten zakuak geltokira. Ogia egiten zuten etxean han.

### **310. Amonak ogia egiten zuen etxean (IRN-032/014)**

Iruren ez zuten ogirik egiten etxean. Amonak bai, Zeraingoa zelako; artoarekin egiten zuen ogia. Minetako apopiloak izaten zituzten etxean. Taloak.

### **311. Araban pasatako garaia (IRN-032/015)**

Hiru urtean ibili ziren patatarekin, arazo gabe. Ilarduian hiru urte egin zituen. Hango familiaren kontuak. Eguraldi txarrarekin, behiekin mendira joaten ziren. Patatak erretzen zituzten, eta zigarro faltsuak. Ilarduian inork ez zekien euskaraz; Gasteizen ere ez zen entzuten.

### **312. Meaka dantza taldekoa (IRN-032/017)**

Emaztea eta biak dantzan aritu dira beti, Ibarlako Meaka dantza taldean. Emaztea nola ezagutu zuen, soldadu zegoela. Gaintxurisketan geratu ziren, eta hantxe ikusi zuen. Oiartzunera joaten ziren bilerara. Umeak koskortu zirenean sartu ziren dantza taldean. Toki askotara joaten ziren.

### **313. Bileretako dantzak eta ibilerak (IRN-032/019)**

Bileretako dantzak fandangoa eta arin-arina izaten ziren, eta heldutakoak: pasodobleak, tangoak... Altzibar eta Txikierdi. Oiartzungo apaiz batek ez zuen uzten helduta dantza egiten, baina, hala ere, asko geratzen ziren haurdun. Bileran sagarrak saltzen ibilia da umetan.

### **314. Etxean, lana eta diziiplina umetatik (IRN-032/020)**

Anaiaren bataio egunean, beste anaia eta bera gaztaina bila joan ziren. Ez zekiten ama esperoan zegoenik ere. Ez zuten galdetzen. Diziiplina handia zen



etxean. Gaiztakeria eginez gero, artajorrara bidaltzen zuten. Ama gogorragoa zen aita baino.

### **315. Kateako eskola (IRN-032/022)**

Kateako eskola publikoko maisuak makila ekarrarazten zien, eta norberari jo. Eskua altxatuta "Viva España" kantatzen zuten. Denak euskaldunak ziren, eta ezagunak. Asko handitu da auzoa.

### **316. Katea auzoan desagertutako baserriak (IRN-032/024)**

Auzoan desagertutako baserriak. Aranibarreko poligonoa egiteko bi baserri bota zituzten. Al Campo egiteko ere bota zuten bat, Paretazar. Industrialdeak egiteko, Lapitzeko errota, Lekunberri, Ugaldeko errota... desagertutako hainbat aipatzen ditu.

### **317. Etorkinekin, auzoa aldatzen hasi zen (IRN-032/025)**

Katea auzoa nola erdaldundu zen. Etorkinak. "Campamento Tipula". Extremadurakoak ziren gehienak. Etxe merkeak egin zituzten. Haiekin ikasi zuten tomatea eta tipula gordinik jaten. Andaluzak. Renfeko langileak.

### **318. Meaka dantza taldea II (IRN-032/027)**

Meaka dantza taldeko kontuak. Astean bitan entseatzen zuten. Iparraldean ibiltzen ziren asko, Katalunian eta Espainian ere bai. Beraiek ez ziren oso urrutira joaten, baina taldeko besteak bai.

### **319. Urik ez baserrian, argia bai (IRN-032/029)**

Baserrian bazuten argia eta ura iturritik ekartzen zuten. Argia 120 zen, eta haizea zenean argi gabe geratzen ziren. Autopista egindakoan bota zituzten baserriak aipatzen ditu.

### **320. Umetako jolasak eta lanak (IRN-034/003)**

Umetako jolasak. Goldearen gurgilei buelta ematen. Kartoizko panpina. Kukuka. Eskolan aparte egoten ziren neskak eta mutilak. Gurutzera joaten ziren eskolara, eta bueltan beti izaten zen lanen bat baserrian.

### **321. Urik ez zuten etxean; erreka (IRN-034/004)**

Ez zuten urik etxean; beheko erreka joaten ziren. Bainatzeko tokia ere bazegoen. Goafola. Ez zuen igeri egiten ikasi. Arropa garbitzera ere erreka joaten ziren; ura oso hotza zegoen.

### **322. Aingirak harrapatzen (IRN-034/006)**

Errekan aingirak harrapatzen ibiltzen ziren, sardexkarekin. Ezkailuak. Anaia zaharrenek txoriak harrapatzen zituzten. Fruta hartzen zuten arboletatik.

### **323. Ama alarguna, bi aldiz ezkondua (IRN-034/007)**

Baserririk ateratzen zuten bizimodua. Ama bi umerekin alargundu zen. Tratante batekin ezkondu zen, eta beste sei ume izan zituzten. Aurreko biak ez zituen berdin tratatzen. Aitaren izaera: zorrotza, agintzea gustatzen zitzaion.

### **324. Esnea partitzera, trenez; baserriko lanak (IRN-034/008)**

Esnea partitzen zuten. Hiru-lau behi zituzten. Aita gaixotu zenean, berak hartu zuen etxeko martxa. Mutilak lantegira joaten ziren eta neskak baserriko lanetan aritzen ziren. Gaintxurisketan hartzen zuen trena, marmitekin. Denetik ikasi zuen, sega jotzen ere bai.

### **325. Aitak erositako arropa eta oinetakoak (IRN-034/009)**

Uztarria nola lotu. Kopetekoak aitak erosten zituen ferian, baita soinekoak eta oinetakoak ere. Saldu eta erosi ibiltzen zen hura. Donostiako esne hartzaile batek kafesnea ematen zien, eta baita arropa ere. Amak konpontzen zuen gero. Josten ikastea.

### **326. Sendabelarrak (IRN-034/010)**

Zortzi urterekin hasi zen Gurutzeko eskolan, baina beti zegoen lana etxean. Gaztainak. Kamamila. Intxaur hostoa erabiltzen zuten, hilerokoaren mina kentzeko. Berbena eta pasmo belarra.

### **327. Eskolan, anaia defenditzen (IRN-034/013)**

Eskolako oroitzapenak. Anaiak ez zuen joan nahi, eskolan jo egiten ziotelako. Berak defenditzen zuen. Mutiko batekin izan zuen borroka kontatzen du.

### **328. Kuarteleko soldaduak imitatzen (IRN-034/014)**

Eskolan maistra ona zuten; mutikoena gogorragoa zen. Zer ikasi zuen. Kuartela eskola ondoan zegoen, baina beraiek ez zuten Cara al Sol kantatzen. Bandera. Soldaduen desfilea imitatzen aritzen ziren, erratz makila hartuta.

### **329. Umetako jolasak: pilota, kromoak eta sokasalto (IRN-034/016)**

Eskolako lagunekin egiten zituzten jolasak. Pilota eta kromoak. Sokasalto. Erdaraz kantatzen zuten, ulertu gabe askotan.

### **330. Amak kantatzen zituen bertsoak (IRN-034/018)**

Kantatu egiten du, etxean ikasitako bertsoak, ezkontza bati buruzkoak. Artoa eta gaztainak zuritzean aritzen ziren kantuan. Gaztainak afaltzen zituzten askotan.

### **331. Iratzetara, ahizparekin batera (IRN-034/020)**

Iratzea, behiei azpiak egiteko. Belar metak eta iratze montoiak. Emakumeek ezin zuten galtzarik erabili, baina janzen zituzten iratzetarako. Ahizpa gazteenak laguntzen zion.

### **332. Txerria hiltzen zuten (IRN-034/022)**

Txerriak zituzten. Txerri-jana batzen zuten esnea partitzen zutenean. Puska onenak anaiak eramaten zituen, lanean jateko. Txerri hiltzailearentzat izaten ziren barrenak. Untxiak dituzte orain, etxerako.

### **333. Laratzetik mihia pasa, eztarriko minarentzat (IRN-034/024)**

Hasieran su baxua zuten, gero butanoa jarri zuten eta ondoren ekonomika. Katea. Neskamea. Laratzetik pasatzen zuten mihia, eztarriko mina zutenean.

### **334. Koltxoiak jotzen (IRN-034/027)**

Ratoncito Perez. Buruki azpian uzten zuten eroritako hortza. Artilezko koltxoiak urtean bitan jotzen zituzten. Ahizpa baten kontuak.

### **335. Elizara ezin nolanahi jantzita joan (IRN-034/031)**

Igandetan, zazpitako mezetara. Manga gabe joanez gero, ez zuten Jauna ematen. Minigonaren moda. Emakumeek ezin zuten praktarik jantzi.

### **336. Musu emanez gero, konfesatzera (IRN-034/033)**

Mutilekin dantza bai, baina arrimatu gabe. Lehen musua ematea bekatua zen, orain justu kontrakoa. Konfesatu egin behar izaten zuten.

### **337. Irungo euskara eta inguruetakoa (IRN-034/036)**

Irungo euskara. Oiartzungoa desberdina da, Lezokoa antzekoa. Euskal Telebistako euskara. Hondarribiko euskara.

### **338. "San Simon eta San Juda" (IRN-034/038)**

Benito Lertxundi, Lete eta Martikorena gustatzen zaizkio. "San Simon eta San Juda".

### **339. "Hegoak ebaki banizkio" (IRN-034/040)**

"Hegoak ebaki banizkio" kantatzen du.

### **340. San Juan eguneko kantua (IRN-034/043)**

San Juan kanta.

### **341. Hikaren erabilera (IRN-034/045)**

Hikaren erabilera. Oso umeei zuka egiten zieten, eta koskortzen hasitakoan hika.

### **342. Azerigorri baserrian jaioa, Oiartzunen (IRN-035/002)**

Oiartzungo Axerigorri baserrian jaioa. Zein animalia zituzten. Komuna nolakoa zen. Urik ez zuten. Simaurra. Argirik gabeko garaia ere ezagutu zuen. Kinkea eta kandelak. Iturria eta askak.

### **343. Errearentzat, elur-ura (IRN-035/003)**

Ekonomika zuten sukaldean, eta han berotzen zuten ura. Anaia bati besoa kiskali zitzaion behin. Elur-ura erabiltzen zuten erretakoa sendatzeko.

### **344. Sendabelarrak I: belarmina, iodo belarra... (IRN-035/004)**

Sendabelarrak: belarmina, pasmo belarra, berbena, iodo belarra, zizare belarra... Bakoitza zertarako erabiltzen den azaltzen du: belarmina, pasmobelarra, berbena... enplastoak eta infusioak. Belarmina nolakoa den.

### **345. Sendabelarrak II: pasmo belarra, zizare belarra eta berbena (IRN-035/005)**

Pasmo belarra nolakoa den. Zizare belarra. Berbena zertarako den ona; enplastoa nola egiten den, arrautza zuringoarekin.

### **346. Sendabelarrak III: amaren ukendua (IRN-035/006)**

Amak ukendua egiten zuen 21 belarrekin. Pena du nola egin ikasi ez zuelako. Karetxak sendatzeko modua. Ardi mingaina, azeri belarra, sagu belarra, lehoi belarra... Odola geratzeko, armiarma sarea.

### **347. Sendabelarrak IV: azeri buztana, pixa belarra... (IRN-035/007)**

Baserriak urruti zeuden, eta medikuak ez ziren erraz iristen. Azeri buztana, gibelarentzat. Pixa belarra. Kamamila. Pareta belarra.

### **348. Kamamila eta eztia (IRN-035/008)**

Kamamila bila Erlaitzera joaten dira, baina galarazi egin dutela esan diote. Ez du ulertzen zergatik. Kamamila zertarako den ona. Eztiaren onurak. Amaren erremedioa: esnea, eztia eta koñaka.

### **349. Baratzuria, zizareentzat; tipula eta eukaliptoia (IRN-035/009)**

Baratzuria, zizareen kontra. Baratzuria esnearekin egosi, eta eztia bota. Zizare asko izaten zituzten lehen, eta hil ere egiten ziren umeak. Hamar senide ziren, eta kutsatu egiten ziren. Tipula erdibitu, eta logelan jartzea. Eukaliptoaren baporea hartzen, arrosarioa errezatu bitartean.

### **350. Zorriak, arkakusoak eta akañak (IRN-035/011)**

Zorri asko izaten zituzten. Ozpina erabiltzen zuten, eta orrazi berezi bat. Arkakusoak. Akañak nola hil, burua kenduta. Menda belarra, arkakusoentzat.

### **351. Olaberrian bizi zeneko oroitzapenak (IRN-035/013)**

Oiartzundik Irunera joan zen bizitzera; aita Irungoa zen. Solterotan izan zuten bera, gerra denbora zelako. Gero Mendingondora joan ziren bizitzera, Olaberriara. Hamar urte zituenean Iruxulota baserrira joan ziren, Meakara. Olaberriako oroitzapen txarrak ditu; izebak zigortu egiten zuen, "aldatian".

### **352. Ibarlako eskola (IRN-035/014)**

Eskolako oroitzapenak. Olaberriako eskolarekin ez da oroitzen. Ibarlako eskolan Kontxita zen maistra. Neska-mutilak elkarrekin egoten ziren, adin askotakoak. Eskolako zigorrak. Jolasteko astirik ez zuen izaten, beti lanean.

### **353. Gerran eta gerraostean, giro txarra (IRN-035/015)**

Gerra garaiko kontuak: izeba hil nahi zuten, belarritako gorriak zituelako. Kanean ezin zuten euskaraz egin. Guardia zibilak. Seietako mezetara joaten ziren.

### **354. 14 urterekin hasi zen basoan lanean (IRN-035/016)**

Umetatik ohitzen ziren lana egitera. Oraingoarekin konparatzen du. Obretan ibili da lanean. Hamalau urterekin hasi zen lanean, mendian. Nafarroatik jende asko joaten zen pinuak aldatzera. Trontza. "Cienpies" kamioiak.

### **355. Egurraren erabilerak (IRN-035/017)**

Oholak egiten zituzten pinu egurrekin, zerrategian. Piketeak. Pagoa eta haritza ez zituzten sarri botatzen. Gaztaina, altzariak egiteko. Baserriko tresnen kirtenak egiteko erabiltzen zuten pagoa.

### **356. Ilargiaren garrantzia, arbolak botatzeko eta perretxikotarako (IRN-035/018)**

Ilargiaren garrantzia egurrearentzat. Ilbeheran ebaki behar dira arbola gehienak, baina ez ostiraletan. Alkazia, pagoa, pinua, intxaurra, gaztaina, urritza... Perretxikotarako eta baratzerako ere ilargiak badu zeresana.

### **357. Mutikotatik perretxikotan, plazan saltzeko (IRN-035/019)**

Biltzen dituen perretxikoak aipatzen ditu. Ziza horia, gibelurdina, onddo beltza, gorringo. Gibelurdina arriskutsua da, beste batekin nahastu daitekeelako. Onddoekin ateratako diruarekin erosi zuten irratia. Ama frutarekin eta berdurekin joaten zen plazara, eta hari eramaten zizkion perretxikoak.

### **358. Bide txarretan zapatak eskuan hartuta (IRN-035/020)**

Ama plazara joaten zen, eta esnea ere partitzen zuen. Arreba hasi zen gero. Beti Irunera joaten ziren. Bideak txarrak ziren, eta zapatak kendu egiten zituzten, ez hondatzeko. Arropak. Amonak egiten zizkien, galtza zaharrekin. Aste Santuan estreinatzen zuten arropa. Prozesioa egiten zen Irunen, eta santua eramaten zuen.

### **359. Dotrina eta arrosarioa (IRN-035/021)**

Elizaren indarra. Dotrina Irunen ikasi zuen, parrokian. Hiru hilabete pasatu zituen apaizarekin. Parrokoaren belarrondokoak. Jaunartzeak. Etxean ere errezatzen zuten, egunero; artoa zuritu bitartean, arrosarioa.

### **360. Lesakara arrautza bila, bidean elurrak harrapatu (IRN-035/022)**

Neguak gogorrak izaten ziren. Pasadizoa. Lesakara arrautza bila joan ziren batean, elurrak harrapatu zituen. San Antonen geratu ziren lotan. Hiru orduko bidea zen. Arrautzak saldu egiten zituzten gero.

### **361. Errotatik bueltan, irina kendu (IRN-035/023)**

Ibarlako errotara joaten ziren, baina Endarlatzara ere bai, Nafarroara. Guardia Zibilak irina kendu zion behin. Hogeit bat kilo.

### **362. Guardia zibilak belar metak arakatzen (IRN-035/024)**

Babarruna, artoa eta patata entregatu behar izaten zuten, udaletxera. Tranpak; guardia zibilak metak arakatzen ibiltzen ziren.

### **363. Ijitoek eraman zuten txerri gaixoa (IRN-035/025)**

Animaliak isilpean hiltzen zituzten. Txerriaren gibela analizatu egin behar zen; behin txartzat eman, eta lurperatu egin zuten 250 kiloko txerria. Ijitoek atera, eta eraman egin zuten.

### **364. Mugako estraperloa eta kontrabandoa (IRN-036/002)**

Taloak egiten zituzten etxean. Errazionamendua. Errotara joaten ziren, eta bidean Guardia Zibila. Bi kiloko ogi zuria ekartzen zuen amak bestaldetik, eta kafea. Kontrabandoa: autobus bat pasatu zuten, zatika. Zein ibiltzen zen horretan.

### **365. Kontrabandoko produktuak eta tokiak (IRN-036/003)**

Bestaldetik autoen piezak ekartzen zituzten, betaurrekoak, arropa, puntila... Jatekorik ez normalean. Nondik nora eramaten zituzten. Negu batean (1955?), zahatoko ardoa ere izoztu egin zitzairen. Kontrabando tokiak.

### **366. Pertsonen kontrabandoa, Bidasoa errekan (IRN-036/004)**

Pertsonen kontrabandoa. Guardia zibilen aldaketa baliatzen zuten. Portugaldarrak ziren gehienak, emakumeak. Batzuek tranpa egiten zuten. Korrante handia dago Bidasoan; markak zituzten jarrita, makilekin. Gerra garaian gizon bat nola hil zuten guardia zibilek.

### **367. Kontrabandoa, lanetik aparte (IRN-036/006)**

Lanetik kanpo ibiltzen ziren kontrabandoan, sos batzuk ateratzeko. 75.000 pezeta kobratzeko geratu zen, burua kartzelan sartu zutelako.

### **368. Txoritarako afizioa, umetatik (IRN-036/008)**

Ez da arrantzan ibili, ehizan bai. Mutikotan tiragomarekin ibiltzen ziren (sardia) eta gero eskopetarekin. Arrozakin jaten zituzten gero. Txori motak aipatzen ditu. Erreklamoan ez, tranpak jartzen ibilia da. Tranpa nolakoa zen.

### **369. Jateko txori onenak (IRN-036/009)**

Jateko txoririk onenak zein diren. Pinpina nolakoa den. Birigarroa, pintxotia, tortola...

### **370. Baserriko lanak egindakoan, Pikoketara dantzara (IRN-036/012)**

Baserriko lanak egin ondoren joaten ziren neskatara, Pikoketara dantzara. Belar lanak eta arto lanak. Artoa jorratzeko modua. Dantza lotua eginez gero, apaizak esan egiten zuen pulpitotik. Fedearen galeraren errua mojak eta apaizek dute.

### **371. Neska laguntza; igandero mezara (IRN-036/014)**

Neska laguntza. Musu emanez gero konfesatu egin behar; apaizak galdetu egiten zien. Ez zen kongregaziokoa izan. Parrokiara joaten ziren igandero, ordubeteko bidea eginda. Lauretan jaikitzen ziren, eta bueltan lanera. Erlaitzera iratze bila joan, herri lurretara, eta metak egitea.

### **372. Meaka auzoko baserriak I (IRN-036/015)**

Meaka auzoa nolakoa zen. Oraingo eskola ez zegoen, etxe gutxiago zeuden... Orduan zeuden baserriak aipatzen ditu.

### **373. Meaka auzoko baserriak II (IRN-036/017)**

Auzoan desagertutako eta aldatutako baserriak aipatzen ditu.

### **374. Perratzaile nafarra Irunen (IRN-036/020)**

Meaka auzoan ez zegoen perratzailearik. Irunera joaten ziren denak. Nafarra zen perratzailea, inguruetakoa bakarra. Lastaolan hasi ziren gero ferratzen.

### **375. Behobia auzoko gabarrariak (IRN-036/024)**

Behobia auzoan zelai asko zeuden. Segapustua egiten zuten. Gabarrak ezagutu ditu Bidasoan, hondarra ekartzen. Hondarra zertarako erabiltzen zuten. Carrillotarren kontuak.

### **376. Behobian jendea bestaldera pasatzen, igerian (IRN-036/025)**

Jendea igerian pasatzen zen bestaldera, Behobian. Faisan uharteraino laguntzen zieten batzuek eta handik bestaldera Iparraldekoek. Soka botatzeko modua. Itotzen ere ikusi du jendea. Guardia zibilen garitak. Berak ez zekien igerian.

### **377. Eraikuntzan lanean, gruarekin (IRN-036/026)**

Baserrian, basoan... gruarekin ere ibili da eraikuntzan, 26 urtetatik. Irungo Casa Puente (bera bizi dena) beraiek egina da. Herri askotan ibilia da.

### **378. Tximistak, erramua; jaiotza, bataioa (IRN-036/028)**

Tximista zenean, segan ibiltzea arriskutsua zen. Erramuarekin gurutzea egiten zuten, ate eta leihoetan jartzeko. Ur bedeinkatua. Jaiotzetan medikua joaten zen, emagina ere bai. Bera joaten zen medikuaren bila. Umeak Paristik zetozeela esaten zieten. Bataioa zortzi egunera egiten zen. Ama elizara sartu bitarte, ezin zitzaion musurik eman.

### **379. Heriotza eta lutua (IRN-036/029)**

Etxean hiltzen ziren. Ohiturak. Lutuarekin lotutako debekuak: ezin dantza egin.

### **380. Dantzarako zaletasuna (IRN-036/030)**

Dantzarako afizioa. Meaka dantza taldekoa da. Oinez joaten ziren batera eta bestera.

### **381. Hamar senideko familia aurrera ateratzen (IRN-036/032)**

Hamar senide ziren. Aita gaixo ibiltzen zen, eta berak lagundu behar izaten zuen etxean. Fruta saltzen eta kontrabandoan ateratzen zuen dirua. Aitak oilagorrek ehizatzen zituen, eta beraiek saldu. Ezkondu artean, jornala amarentzat.

### **382. Elektrizista hasi zen Irungo Udalean (IRN-036/033)**

Bere familian ez ziren neskame eta morroi joan. Alemaniara joateko puntuan egon zen. Irungo udaletxean elektrizista hasi zen; oso gutxi irabazten zuten. Emaztea Behobiara joaten zen, kontserba lantegira.

### **383. Irun inguruko euskarak (IRN-036/035)**

Bere euskara nahasketa dela dio. Hondarribiko, Oiartzungo, Donostiako eta Tolosako euskarak. Ulertzeko zailena bizkaiera dela dio. Iparraldeko eta Nafarroako euskarak.

### **384. "Hi, argitakua!" (IRN-047/001)**

Joxe Marik ez du sekula ezizenik izan, berak dakiela, behintzat, baina Iberduerorentzat argiaren prezioa etxez etxe kobratzen ibiltzen zelarik, "argitakua" esaten omen zioten Hondarribian.

### **385. Olagarain bordari (IRN-047/003)**

Olagarai baserrian bizi izan zen Joxe Mari gurasoekin, baina bordariak ziren, maizterrak, eta denborarekin, baserriaren terreno zati bat erosi eta etxea altxa zuten. Bertan bizi izan da Joxe Mari.

### **386. Ama irundarra eta Biriaturkoa aita (IRN-047/005)**

Katea auzokoa zuen ama, Irundarra, eta Biriaturkoa aita. Aitona bigarren mundu gerran parte hartu beharretik ihesi igaro zen Biriaturtik Irunera, eta Kateako Ezurriki baserrian jarri ziren bizitzen, morroi. Emaztea eta 5 seme-alaba ekarriko zituen gero.

### **387. Desertoreen seme-alabek eskolarik ez (IRN-047/006)**

Joxe Mariren aitonak, 5 seme-alabaren aita zela, II. mundu gerran parte hartzeari uko egin, eta Biriaturtik Irunera igaro zen. Hori dela eta, desertoretzat jo zuen Frantziako gobernuak, eta Biriatur bizi ziren seme-alabei eskola ukatu zieten. Azkenetako, Joxe Mariren aitona zenaren emaztea eta 5 seme-alabak ere igaro ziren Irunera, eta Ezurriki baserrian bizi izan ziren Olagarai baserrira aldatu ziren arte.

### **388. Baserritik kalera lanera (IRN-047/008)**

Baserrian lanean ari izan zen Joxe Mari gaztetan. Galdarategi batean hasi zen lanean gero, eta 25 urte inguru zituela, Iberduerorentzat.

### **389. Iberdueron lanean (IRN-047/009)**

Argiaren prezioa kobratzen ibiltzen zen Joxe Mari. Hura nolako lana izaten zen kontatzen du. Hondarribian ibili izan zen gehienbat, baina bulegoa Irunen zuten, ordea.

### **390. Hondarribia handitzen ikusitakoa (IRN-047/010)**

1965 urte inguruan hasi zen Hondarribian lanean joxe Mari, eta ordutik jubilatuta bitartean Hondarribian etxe asko eraikitzen ikusi zuen Joxe Marik; hazkunde nabarmena.



### **391. 18 urte Irungo Iberdueroko lehiatilan (IRN-047/011)**

Iberdueroren Irungo bulegoko lehiatilako lana lortu zuen Joxe Marik, eta 18 urte eman zituen lan horretan.

### **392. Inklusatik ekarritako anaia (IRN-048/005)**

Ramonen hirugarren anaia jaio aurretik hil zen eta hark utzitako tokia betetzeko gurasoek inklusatik hiru hilabeteko haur bat ekartzea erabaki zuten. Haur hark zazpi urte bete arte, bere jatorrizko familiak Ramonen familiari ordaindu zion hura zaintzearen truke.

### **393. Igeltsero Iparraldera (IRN-048/007)**

Igeltsero lanetan gaztetatik hasi zen Ramon. Hasieran Gipuzkoan hasi bazen ere, azkar pasa zen Iparraldean lan egitera, han hobeto ordaintzen zutelako. Donibane Lohizune, Biarritz eta Bearnoko Pauen aritu zen lanean hainbat obratan.

### **394. Igeltseritzako aurrerapenak: kanaberetatik nahaste makinetara (IRN-048/008)**

Geletako paretak eta sabaia egiteko kanaberen bidezko teknika zaharra erabiltzen zen, emaitza txarrak ematen zituena eta hobekuntza izugarria ekarri zuen igeltsua bere kabuz nahasi eta proiektatzen zuen makinak.

### **395. Iparraldean igeltsero lanetan: lehenengo urteak (IRN-048/010)**

Garai hartan atzerritarrek ezin zuten Frantzia 24 ordu baino gehiago pasa. Ramonek ordea pase berezia jaso zuen bere nagusiarengandik, bere lankideekin batera aste osoa Iparraldean geratzeko aukera izateko. Hori bai, sei lagunentzako pase bakarra ematen zitzaien, elkarrekin egon zitezen.

### **396. Iparraldean igeltsero lanetan: azken urteak (IRN-048/011)**

Iparraldean egindako lanaren arabera jasotzen zuten soldata igeltseroek. Urteak pasa ahala, gero eta igeltsero gehiago hasi ziren Iparraldera joaten lan bila, egunero lana egiteko muga pasatzen zutenak 3.000 inguru izatera iritsi ziren.

### **397. Katea auzoaren izenaren jatorria (IRN-048/015)**

Katea izena auzo horren sarreran egoten ziren kateetatik dator, udaletxeak kontrolak egiteko zuen postutik. Gerora, Guardia Zibilak eta poliziak ere kontrolak egin izan dituzte toki horretan.

### **398. Karea lurra emankorrago egiteko (IRN-048/018)**

Karea edo kisua material zaila zen idien bidez garraiatzeko, bustitzerakoan sortzen den erreakzioarengatik. Hala ere, oso garrantzitsua da baratzeetarako, zomorro kaltegarriak hil eta lurra emankorrago egiten duelako.

### **399. Irungo erromeriak (IRN-048/020)**

Irunen hiru tokitan egiten ziren erromeriak: Katean, Estebenean eta Xorrunian. Garai hartako gazteak han biltzen ziren.

#### **400. Erromerietan neskak lehenago etxera (IRN-048/021)**

Erromeriak arratsaldean egiten ziren, lauretatik hamar arte. Baina neskak lehenago joaten ziren etxera, bestela gurasoek errieta egiten zirelako.

#### **401. Soinu-jotzaileak erromerietan (IRN-048/022)**

Soinu-jotzaileak garrantzitsuak ziren erromerietan eta zenbait ezagunak egiten ziren beraien abileziagatik. Ramon ere aritu zen horretan, bere anaia soinua eta bera panderoa jotzen.

#### **402. Soinua jotzen nola ikasi (IRN-048/023)**

Irunen trikitia jotzen belarriz edo lagunekin ikasten zuten batzuek, baina baziren herrian ezagunak ziren maisuak ere. Soinu txikiak Donostian erosten ziren, Larrinagan.

#### **403. Soinu motak (IRN-048/024)**

Ilara kopuruaren arabera trikiti mota ezberdinak daude. Batzuk belarriz ikasteko a proposagoak dira eta beste batzuetan solfeoa beharrezkoa da.

#### **404. Erromerietan apaizak begira (IRN-048/026)**

Erromerietan apaizak gazteak behatzen ibiltzen ziren, dantza estuegi egin ez zezaten.

#### **405. Erreketeak Irunen sartzea (IRN-048/028)**

Frankistak Irunen sartu ziren gerra hasi eta egun gutxira. Katean banatu egin ziren, batzuk Oiartzun aldera, beste batzuk Irunera eta besteak Donostiara. Indarrez eta armatuta sartu ziren.

#### **406. Errekete boluntario, frontera ez joatearren (IRN-048/029)**

Frankistak Irunen sartu zirenean etxez etxe joan ziren izenak hartzera, familia bakoitzeko kideak fitxatuta edukitzeko. Pertsona batzuk berehala erreketek sartu ziren boluntarioki, frontera ez joatearren.

#### **407. Mugaz beste aldeko senideekin hizketan, Bidasoa ibaian (IRN-048/030)**

Karabineroek erreketek zirenei utzi egiten zieten mugaz bestaldera zeuden familiakoekin hitz egiten, Faisaien uhartearen parean, Bidasoa ibaian. Gaueko isiltasunean ibaiaren alde batetik bestera hitz egin zitekeen. Ramonek horrela hitz egiten zuen bere anaiarekin.

#### **408. Gerrak familia banatuta (IRN-048/032)**

Ramonen sei anaietatik bi anai Gobernuarekin joan ziren gerrara eta beste bi erreketekin. Denak iritsi ziren salbu etxera, baina Gobernuarekin gerrara joan zirenek bortxazko lanak egin behar izan zituzten bi urtez Euskal Herritik urruti.

#### **409. Gobernuaren armadaren lanak Irunen, erreketek sartu aurretik (IRN-048/033)**

Ramonen bi anai Gobernuaren armadan sartu ziren gerra garaian. Irunen zein lan egiten zituzten kontatzen du frankistak sartu aurretik.

#### **410. Gerraren bukaera Irunen (IRN-048/035)**

Gerraren bukaera iritsi zenean, Irunen Junkal parrokiako kanpaiak jo zituzten herriko gaztetxoek, horien artean Ramonek. Egun horretan egin zuen gainera jaunartzea.

#### **411. Mugaz beste aldekoekin hizketan Bidasoa ibaian: nola eta noiz egin. (IRN-049/001)**

Faisaien uhartearen parean, Bidasoa ibaiak banatuta, Ramon bere anaiarekin hitz egiten aritzen zen gerra garaian. Biek toki horretan kointziditzeko nola egiten zuten eta eguraldiak sortzen zituen zailtasunak azaltzen ditu.

#### **412. Gerraostea Irunen: Lesakara, ezkutuan, irin bila joan beharra (IRN-049/003)**

Gerraostea. Gosea. Francok Gipuzkoa eta Bizkaiko errotak itxiarazi zituen eta Lesakara joaten ziren irin bila irundar asko. Frankistek ez zuten hori onartzen eta isun ugari jarri zituzten gerraosteko lehen urteetan. Ramon, lagun batekin batera, gabon gauean Berara joan zen irin bila.

#### **413. Irundik Lesakarako bidea (IRN-049/004)**

Irin zakuen banaketa nola egiten zen kontatzen du. Lesakara astoekin joateko egun osoa behar zen. Bidean ia ez zegoen trafikorik, autoren bat baino ez zuten ikusi bide osoan.

#### **414. Frankistek irin-erota guztiak itxi zituzten Gipuzkoan (IRN-049/005)**

Errazionamenduak nola bukatu ziren kontatu eta Francok gipuzkoar eta bizkaitarrei ezarritako zigorra, irin-eroten zigilatzea, azaltzen du.

#### **415. Errotetako lana (IRN-049/006)**

Errotetara artoa eramaten eta irina ekartzen zen, baina honek artoak baino pisu gehiago hartzen zuen. Errotazainak eramandako artoaren zati bat hartzen zuen ordainketa gisa.

#### **416. Errazionamendu garaia Katean (IRN-049/008)**

Errazionamendu garaia. Katea auzoan kiosko bat zegoen baimenduta errazionamendu kartillekin janaria banatzeko. Ogi gehiago nahi bazen, Hendaia-lik lor zitekeen, lagun egokiak izanda

#### **417. Emaztea ezagutu San Martzial egunez (IRN-049/010)**

Emaztea nola ezagutu zuen kontatzen du, San Martzial eguneko bilera batean.

#### **418. San Martzial jaien antolaketa (IRN-049/014)**

San Martzial eguneko jaia, Irungo jai nagusia, nolakoa zen eta non biltzen zen jendea kontatzen du. Garai hartako jaien antolaketari buruz aritu da.

#### **419. San Martzial jaietako barrakak (IRN-049/015)**

San Martzial jaietako barrakak nolakoak ziren azaltzen du. Janaria, soinujoleak, piano-joleak eta abar zituzten, bakoitzak zerbeit ezberdina. Halako asko egoten ziren kale nagusietan bata bestearen ondoan eta jendea hara bertaritzen zen.

#### **420. Euskararen egoera Irunen eta haren aurkako zigorrak (IRN-049/016)**

Irungo euskararen kale egoera. Euskaraz egiten zuten, ez zekiten erdaraz gehienek. Soldadutzan zigortu egiten zituzten euskaraz hitz egiteagatik.

#### **421. Soldadutzako lehenengo eguna (IRN-049/017)**

Soldadutza nola hasi zuen kontatzen du. Donostiako udaletxe zaharrean elkartzen ziren Gipuzkoan soldadutza hasi behar zutenak eta handik Altsasura bidaltzen zituzten, Iruñera joan eta handik Erratzura iristeko. Bide hori nola egiten zen kontatzen du.

#### **422. Soldadutza eta pilota (IRN-049/019)**

Soldadutzan pilotan ibiltzeko zegoen afizioa aipatzen du, Retegiren aitarekin ibili zela pilotan eta soldadu kapitainek ere afizioa zutela horretan, herriz herri ibiltzen baitziren.

#### **423. Retegiren aitarekin pilotan soldadutzan (IRN-049/021)**

Retegiren aitarekin pilotan jarduteko aukera izan du Ramonek Soldadutzan ezagutu zuten elkar. Pilotan ibili ostean, Retegiren aitak prestatutako arkumea jaten zutela kontatzen du, Kapitainek, soldaduek baino gehiago jateko aukera zuten ordea.

#### **424. Eski txapelketak soldadutzan (IRN-049/024)**

Soldadutzan zegoela, eskiatzen ikasteko agindua eman zioten eta horretarako, Orreagan, Sorian eta Huescan ibili behar izan zuen, hilabetez bakoitzean. Orreagan zegoela, eskiatzen jaioenak ziren zazpi pertsonen artean hautatu zuten eta Soriako lurralde mailako txapelketan parte hartzeko aukera izan zuen. Handik, hiru txapeldun artean, Espainiako txapelketara.

#### **425. Soldadutzan eskiatzen ibilia, aspertu arte (IRN-049/027)**

Eskiak etxean badituela dio, baina ez dela inoiz itzuli mendi horietara eskiatzera. Hala ere, itzuli izan balitz gehiegi kostatuko ez litzaiokeela dio, bere garaian hilabete osoak egon baitzen eskiatzen. Soldadutzan eskiatzen nola ikasten zuten kontatzen du.

#### **426. Eskiatzen jakitearen garrantzia armadan (IRN-049/028)**

Ramonek soldadutza egin zuenean Francoren armadak garrantzia handia ematen zion soldadu askok eskiatzen jakiteri, atzerriko indarren beldurrez. Zortetzat hartzen zen eskiatzen ez ikasi beharra soldadutzan, baina ez zuten gehiegik zorte hori.

#### **427. Oñatiko txakur lehiaketa (IRN-050/002)**

Oñatiko txakur lehiaketan pate hartu nahi izan zuen Paxkualekin batera, baina lehiaketan parte hartzekoa zen txakurra hil egin zitzaizen egun batzuk lehenago.

#### **428. Motorrean kaskorik gabe (IRN-050/004)**

Motorrean kaskorik gabe ibiltzen zirela kontatzen du eta motor berean hiru haur ere eraman izan zituela, bidezainek ezer esan gabe.

#### **429. Lehenengo kotxea: Gordinia (IRN-050/005)**

Lehen kotxea noiz erosi zuen eta zein izan zen (Gordini) kontatzen du. Erosi zuenean ez zuen gidabaimenik, erosi zuen egunean garajera bultzaka sartu zuen, ez zekielako martxan jartzen. Kotxe horri martxan jartzea asko kostatzen zitzaiola ere kontatzen du.

#### **430. Gidabaimena ateratzeko azterketak (IRN-050/008)**

Motorreko gidabaimena lehenengo eta gero kotxekoa nola atera zituen kontatzen du. Donostian atera zuen lehenengoa, erraz, bizikletan ibilita motor horietarako erraz ateratzen zelako. Kotxekoa aldiz Irunen atera zuen.

#### **431. Kotxeko gidabaimena ateratzeko praktikak (IRN-050/009)**

Kotxeko gidabaimena ateratzeko praktikak nola egiten ziren kontatzen du.

#### **432. Bizikletan erori, Harri Bihurtutik hurbil (IRN-050/018)**

Bizikletan erori zen eguna kontatzen du, hamasei urterekin, gauez, Anderri baserria eta Harri Bihurtutik hurbil. Harri Bihurtua izenaren jatorria ere aipatzen du, madarikazioa. Hurrengo egunean lanera joan beharra, aurpegia larrututa.

#### **433. Mendiola etxea eraikitzen laguntzen (IRN-050/020)**

Beñardoren etxea, Mendiola, nola eraiki zen kontatzen du. Ramonek eraikuntza lanetan lagundu zuen, beste lagun batzuekin batera.

#### **434. Etxea eraikitze prozesuaz (IRN-050/022)**

Ramonek bere etxea nola eraiki zuen kontatzen du. Aparejadorea eta arkitektoa, batez ere aparejadorea, nola etortzen ziren ikuskatzera. Aparejadoreak planoak egin, arkitektoak baimendu eta Ramonek plano horietako bat hautatu eta horretan oinarrituta eraiki zuen etxea.

#### **435. Txokorik Ederrena nola eraiki zuen (IRN-050/023)**

Ramonek bere etxea egiteko planoak nolakoak ziren eta horiek nola gauzatu zituen azaltzen du. Harginak ziren lagunak bazituen eta haien laguntza ere jaso zuen. Etxea egin bitartean lanean ere aritu zen Ramon, tartean Hendaia eskola eraikitzen.

#### **436. Teila berriek ekarritako abantailak (IRN-050/025)**

Teilatua berritzeko asmoa dute, berrogei urte beranduago. Teila berriak hobeak zaharrak baino. Teila zaharren ahuleziak: hormak jo eta zuloak sortzen zaizkio.

#### **437. Ekonomikak nola jartzen ziren (IRN-050/028)**

Ekonomikak jarri zituen hainbat etxetan, Bereziartuarenean lehen aldiz, 18 urterekin. Ekonomikak jartzeko praktika behar da. Ekonomikak nola jartzen ziren ere azaltzen du.

#### **438. Ekonomiken aurretik, beheko sua baserrietan (IRN-050/029)**

Uderren eta Burutaranen ere jarri zituen ekonomiak eta pena eman zion aurreko su zaharra kentzeak. Su baxu hori nola piztu eta erabiltzen zen ere azaltzen du.

#### **439. Ekonomikak ekarritako ohitura aldaketak (IRN-050/030)**

Sukaldatzerakoan ekonomiak garbitasuna ekarri zuen. Beheko suarekin familia bildu egiten zen suaren inguruan eta denak bilduta arrosarioa erreztatzeke ohitura ere bazen. Ohitura aldaketak ekarri zituen gerrak.

#### **440. Beheko suaren tximinia garbitzearen garrantzia (IRN-051/003)**

Baserriko su baxuaren tximinia nola garbitzen zuten kontatzen du. Garbiketa maiz ez egitearen arriskuak, baserriak sua hartzeko beldurra.

#### **441. Normandi baserria (IRN-051/006)**

Bi gizaldi lehenago Normandiara joan omen zen gizon bat. Dirua egin eta harekin Katean baserri bat egitea zen haren asmoa. Baserriari "Normandi" izena jarri zion eta haren berri ematen du Ramonek.

#### **442. Baserri "aidosuak" (IRN-051/007)**

Baserri edo etxe "aidosu" bat zer den azaltzen du Ramonek, Katean sarri erabiltzen zuten hitza.

#### **443. Brabanteko Genovevaren elezaharra (IRN-051/009)**

Arrebak Brabanteko Genovevaren elezaharraren bertsoak kontatzen zizkien Ramoni eta beste anai-arrabei. Ez ditu gogoan, baina berak ere ikasi zituen. Familiako beste kide batzuek ere bazekizkiten eta sukaldean kontatzen zituzten.

#### **444. Erreketeak baserrira sartzea (IRN-051/010)**

Erreketeak Ramonen baserrira sartu zirenean, berak 9 urte zituen eta momentua ondo gogoratzen du. Izenak galdetu zizkieten eta anai batzuk mendira joanak ziren. Irunera errekketeak nola sartu ziren kontatzen du, gitarra jotzen.

#### **445. Bertsolariak Irungo jaietan (IRN-051/011)**

Bertsolari ezagun asko, Uztapide eta Basarri tartean, aritu izan dira bertsotan Irungo jaietan eta Ramonek horiek entzun izan dituela kontatzeaz gain, bertsolari horien aurretik, Irunen ezaguna zen eta Xenpelar izengoitia jarri zioten bertsolari baten berri ere ematen du.

#### **446. San Martzial jaietako barrakak jartzea (IRN-051/014)**

Irungo San Martzial eguneko barrakak nola jartzen ziren kontatzen du.

#### **447. Iraganeko jaietako batasuna (IRN-051/015)**

San Martzial egunez, garai batean, herri guztia biltzen zen bazkaltzera toki berean Irunen. Alardean azken urteetan izan diren aldaketek batasun hori higatu dutela kontatzen du Ramonek.

#### **448. San Martzial jaietako barrakak: itxura eta eskaintza (IRN-051/016)**

Ramonek Irungo San Martzial eguneko barrakek nolako itxura zuten eta horietan zer eskaini edo saltzen zen aipatzen du.

#### **449. San Martzial jaietako barrakak: norbere esku antolaketa (IRN-051/017)**

San Martzial eguneko barrakak nahi zuenak jartzen zituen Irunen, norbere ardura baitzen horiek eraiki eta horietan zer eskaini erabakitzea. Gerora hasi zen udaletxea ardura hori hartzen.

#### **450. Txokolatea ezkutuan fabrikatik hartu eta barrakan saldu zutenekoa (IRN-051/018)**

Urte batez, San Martzial eguneko barraka batean Ramonen lagun batek txokolatea eskaini zuen, aurreko egunetan fabrika batetik ezkutuan hartutakoa.

#### **451. San Martzial jaietako barrakak: Santiago kalea (IRN-051/021)**

Irungo Santiago kalean ere barrakak jartzen zituzten San Martzial egunez, askotan soinu-jotzaileek. Udaletxeak ematen zituen baimenak.

#### **452. San Martzial egunez soinua eta panderoarekin (IRN-051/026)**

Gaztetan, Irungo festetan kalez kale ibiltzen zen Ramon soinua edo panderoa jotzen.

#### **453. Soinu txikia nola jo eta zailtasunak (IRN-051/030)**

Soinu txikia nola jotzen den azaltzen du Ramonek eta hura jotzeak dituen zailtasunak.

#### **454. Aho-soinua jotzen ikasteko modua aldatu egin da (IRN-051/031)**

Aho-soinua jotzen duen biloba bat badu Ramonek, baina gaur egun eskoletan nagusiki pieza klasikoak erakusten direla dio eta ez bere garaian bezala, dantza egiteko piezak.

#### **455. Soinu txikia etzanda jotzen zuen gaztea (IRN-051/032)**

Irunen bazen soinu txikia jotzen zuen gizon trebe bat, ospetsu egin zena herrian, lurrean etzanda egonda soinu txikia jotzeko gai zena.

#### **456. Panderojole Irungo jaietan (IRN-051/033)**

Ramon panderoarekin eta anaia soinu txikiarekin joaten ziren Irungo hainbat bileretara musika jotzera. Pandero-jotzaileak giroa animatzeko zuen garrantzia azpimarratzen du. Ondoren, afaria ematen zieten esker onez.

#### **457. Kantoia etxea (IRN-052/004)**

Irungo Larretxipi kaleko 2an bizi izan ziren Mimizanetik etorri eta gero, Kantoia izeneko etxean.

#### **458. Kuartelatxe edo Kuartelatze (IRN-052/005)**

Irungo hainbat kale eta etxeren jatorrizko izenak galtzen ari dira: Kantoia eta Kuartelatze, adibide bi dira. Kuartelatze Irungo herriko etxe atzeko kale bat zen, eta kalabozoetatik heldu ziren hotsak entzun zitezkeen handik.

#### **459. Jaime Rodriguez Salisekin lanean (IRN-052/007)**

Irungo El Pilar eskolan ibili zen Joxepa, eta baita Flores akademian ere. Ondoren, Jaime Rodriguez Salisekin hasi zen lanean.

#### **460. Floresen akademia (IRN-052/009)**

Jose Floresen akademian kopuru berdintsutan aritzen ziren neskak zein mutilak. Zubiaurre kale inguruan zegoen akademia lehenik, eta Jacobo Arbelaiz kalean gero.

#### **461. El Pilar-eko kolegioa eta eskola (IRN-052/011)**

El Pilar ikastetxeak bi hezkuntza mota eskaintzen zituen: ordainpekoa eta doakoa. Joxepa ez zen ordainpeko kolegiara joan, doako eskolara baizik. Doako eskolako haurrek Prudencia Arbide irundarra zuten ongile.

#### **462. Aita mikelete (IRN-052/017)**

Aita mikelete zuen Joxepak. Mikeletearen lana nolakoa zen azaltzen du. Zergak kobratzen eta landa-eremuetako lanetan aritzen ziren, besteak beste.

#### **463. Mimizaneko itzulera eta herri erdalduna (IRN-052/019)**

Andino delakoaren gurdira igota sartu ziren Irunen Joxepa eta familiako denak, Mimizanetik trenean itzuli eta gero. Irungo kalean jende gehienak gazteleraz egiten zuenez, Joxepak uste izaten zuen euskaraz entzuten zituen guztiak familikoak zituela.

#### **464. Mimizanetik Irunerako bidaia (IRN-052/020)**

Gerra ondoren 8 urte egin zituzten Mimizanen, eta itzuleran, Hendaian egin zuten gau batez lo, Irunera iritsi baino lehen. Han ikusi zuen Joxepak bainuontzi bat, lehendabizikoz.

#### **465. Aiako Harriarekin harrituta (IRN-052/022)**

Mimizan inguruan oso mendi gutxi ikusita zeuden Joxepa eta haren bi anaiak. Irunera itzuli zirenean, Aiako Harria ikusteak harritzen zituen.

#### **466. Irakurtzeko eta idazteko zaletasuna (IRN-052/024)**

Betitik izan da irakurzalea Joxepa. Frantsesez hasi zituen ikasketak, eta beti izan du frantsesez idatzitako liburuakiko zaletasuna. Frantsesez idatzitako Euskal Herriari buruzko liburuak bereziki interesatu izan zaizkio, eta baditu batzuk. Idatzi ere egin du Joxepak. Gertatutako gauzei eta garai bateko kontuei buruz idatzi izan du, batez ere; idatziz lagundu du Irungo ondare zein memoria historikoari eusten.



#### **467. Mimizango egonaldia (IRN-052/026)**

Mimizanen 8 urte egin zituzten Joxeparen anai biek eta gurasoek. Oso ongi egokitu ziren hango bizi-erritmorara, eta egonaldi baketsua izan zuten. Amari bizilagun batek erakutsi zion frantsesez irakurtzen.

#### **468. Aitak gaskoiz mintzatzen ikasi zuen (IRN-052/028)**

Joxeparen aitak gaskoiz hitz egiten ikasi zuen Mimizanen, bertakoekin baso-lanetan aritzen baitzen.

#### **469. Joxe Jabier eta soldadu alemanak (IRN-052/030)**

Bigarren Mundu Gerrak Mimizanen harrapatu zituen. Alemaniako soldaduekin Joxeparen anaia Joxe Jabierrek izandako pasadizoa.

#### **470. Euskal Herriari buruzko liburuak (IRN-052/032)**

Frantzia eta Lapurdin Euskal Herriari buruzko hainbat liburu erosi izan ditu Joxepak. Espainian barrena ez du halakorik topatu izan. Donostiako Manterola liburudenda oso gogoan du.

#### **471. Patrizio Setien Setien, Joxeparen aita (IRN-052/034)**

Hernaniko lyolakoa zuten aita, Patrizio Setien Setien. Bertsolaria zen Patrizio, umore handiko gizona.

#### **472. Aita hernaniarra, Alkizakoa ama (IRN-052/035)**

Aitari eta amari buruzko kontuak.

#### **473. Aitak kantatzen zuen bertsoa (IRN-052/037)**

Aitak kantatu ohi zuen bertso sail bateko lehendabizikoa kantatzen du Joxepak. Anaia Joxe Jabierrek amaiera irrigarria ematen omen zion bederatziko txikiko bertso-doinuari.

#### **474. Lehendabiziko hartuemanaren heriotzarekin (IRN-052/038)**

Landetan bizi zirela, Aitarekin lanean aritzen zen 20 urteko mutil gazte bat hil zen, irundarra hura ere. Oso gertukoa zuten Setiendarrek, oso maitea, eta mutil haren heriotzaren jirako dolu eta meza artean izan zuen Joxepak lehendabiziko kontaktua heriotzarekin. Zazpi urte inguru zituen orduan Joxepak.

#### **475. Larretxipi kaleko etxegabetze-agindua (IRN-052/039)**

Txikitako eta gaztetako kontuan idatzi zale da Joxepa. Orri-beteko kontakizunak dira gehienak, eta publikatuta ditu asko eta asko, egunkari zein aldizkaritan. Larretxipi kalean bizi zirela, gau batean, etxegabetze baten testigu izan ziren.

#### **476. Baserriarekin harremana (IRN-052/041)**

Kaletarrak ziren Joxepa eta haren familia, baina amaren zein aitaren aldetik bazuten baserrian bizi zen gertukorik, eta haienera joaten ziren bisitan.

#### **477. "Sortzez eta bataioz ni naiz irundarra..." (IRN-052/044)**

Joxepak bi bider du bere buruaren aurkezpena bertso-idatzi bidez egina. Haietako bat kantatzen du, buruz. Bertsoaren lehen puntua Joan Etxamendi "Bordel" bertsolariaren bertso batetik hartua da.

#### **478. Txirrita bertsolari askea (IRN-052/046)**

Bertsoak buruz ikasi eta kantatu zalea izan da beti Joxepa. Georges Brassens kantari frantsesarekin alderatzen du Txirrita, eta bertsolari hernaniarraren izpiritu askea goratzen du. Txirritaren "neska zar gaztia" sortako lau bertso kantatzen ditu. 6 bertso osatzen du sorta originala, eta 3. eta 6. bertsoa utzi ditu kantatu gabe Joxepak.

#### **479. "Aurra galdu zan arriya" (Txirrita) (IRN-052/048)**

Txirritak kantatua omen da Hernaniko Akola inguruan gertatutako pasadizo honi buruzko bertsoa.

#### **480. "Zuk hil zenuen artzaia" (Txirrita) (IRN-052/049)**

Txirritaren bertso pare ezaguna kantatzen du Joxepak.

#### **481. Aita San Martzialetan bertso kantari (IRN-053/002)**

Joxepak gogoan du bere aita bertso kantari aritu zela, San Martzial egun batez, Ahetzeko Mattin, Basarri eta beste bertsolariaren batekin. Uztaipideren lagun handia zen Patrizio Setien, Joxeparen aita.

#### **482. Joxe Mari Lopetegi bertsolaria (IRN-053/003)**

Joxepak badu Irungo Joxe Mari Lopetegi bertsolariaren berri.

#### **483. Irungo Alardean kantinera izateko eskaintza (IRN-053/007)**

Ezkontzera zihoan urtean berean joan zitzaizkion Joxepari Ama Xantalen konpainiatik, kantinera izan nahi ote zuen galdezka. Joxepak ezetz esan zien, eta, berak dioenez, ez zaio sekula damutu.

#### **484. Patrizio Setien eta Lexoti, lagun handiak (IRN-053/009)**

Patrizio Setien (Joxeparen aita), Lexoti bertsolari oiartzuarra eta Uztaipide lagun handiak ziren hirurak.

#### **485. Manuel Lasarte zenak Joxeparen aita aipatu zuen (IRN-053/011)**

Manuel Lasarte bertsolariak Joxeparen aitaren aipamena egiten du bere liburuetariko batean; Patrizio Setienena, alegia.

#### **486. Freire kalaeri jarritako bertsoa (IRN-053/013)**

Joxepak artikulua bat idatzi zuen Irungo Freire kalaeri buruz, eta artikuluari bertso bat gehi zion.

#### **487. Joxepa Setien, artikulua asko idatzitako emakumea (IRN-053/014)**

El Bidasoa aldizkarian artikulua asko idatzitakoa da Joxepa. Izan ere, maila profesionalean nagusi izan zuen Jaime Rodríguez Salís eta haren inguruak ere asko idazten zutela dirudi, eta haiek animatuta hasi omen zen. Egun ere jarraitzen omen du testutxoak argitaratzen.

#### **488. Juan Basurkoren publikatu gabeko bertsoak I (IRN-053/015)**

Joxepak Juan Basurkoren publikatu gabeko bertso batzuk jaso zituen.

#### **489. Juan Basurkoren publikatu gabeko bertsoak II (IRN-053/017)**

Azkenean, Jexux Mari Mendizabal "bizargorri" helarazi zizkion aurreko pasarteak aipatu bertsoak, eta honek Hondarribia aldizkarian publikatu zituen bertso horiek.

#### **490. Joxeparen aita, Juan Basurko eta Fernando Artola, lagunak (IRN-053/019)**

Lagunak ziren Joxeparen aita, Juan Basurko eta Fernando Artola "Bordari". Joxepak ere ezagutu zuen Juan Basurko. "Jesusen bihotza" aipatzen da, baina "Jesusen bizitza" da Juan Basurkoren liburuaren titulua.

#### **491. Antzerkia lanbide gisa (IRN-055/007)**

Antzerki irakaslea izateko deitu zioten Olatzi, eta berak lehengusuari laguntza eskatu zion. Formazioz antzezleak izan ez arren, biak hezkuntza munduan ibiliak ziren eta elkarrekin aurre egin zioten erronka berri horri.

#### **492. Antzerkia lanbide gisa II (IRN-055/008)**

Olatzek eta Alaitzek Irungo Toki Alai eskolan hasi zirela lanean kontatzen digute. Egun ikasle horiek antzerkia egiten jarraitzen dute, eta proiektua hazi egin da. Olatzek beste lan bat duen arren, horrekin jarraitzen du eta oso pozik dago ikasleen eboluzioa ikusten baitu.

#### **493. Antzerkia, euskara lantzeko tresna gisa (IRN-055/009)**

Sormenaren bidez lantzen dute antzerkia, eta euskara lantzeko ere erabiltzen dute. Haur askok euskararekin zailtasunak dituztela ikusita, euskara lantzeko baliatzen dute antzerkia.

#### **494. Antzerkia egiteko aukerak (IRN-055/012)**

Irun inguruan antzerkia egiteko dagoen aukera urria da, antzerkia euskaraz egin nahi duenarentzat.

#### **495. Zarimutzak: festa berriak I (IRN-055/020)**

Zarimutza duela hiru urte asmatutako Irungo festa bat da; ekainaren 26an ospatzen dute. Irungo jaiak alardean zentratu ez daitezten. Gazte talde batek sortu zuen eta gazteen arteko parte-hartzea bultzatzen duen festa bat da.

#### **496. Zarimutzak: festa berriak II (IRN-055/021)**

Irungo gazte askok San Martzialetan zerbait gehiago egin nahi zuten eta, horregatik, beste festa egun bat antolatzea erabaki zuten. Izenak ez du Irungo herriarekin zer ikusirik. Hiru urte daramatzate festa horiek antolatzen, Alaitzek antolaketan aktiboki parte hartzen du. Bazkaria Hazia tabernan egiten dute, eta inguruko tabernekin ere adosten dute, aurreko poteoa bertan egiteko.

#### **497. Parranda: aisialdi eredu bakarra? (IRN-055/023)**

Gazteen artean aisialdi eredu nagusia parranda dela badakite, eta, beraiek ere eredu horretan sartzen diren arren, eredu hori bakarra edo nagusia izatea tristea dela uste dute.

#### **498. "Botea": dirua elkarbanatzea I (IRN-055/024)**

"Bote"-aren inguruan hitz egiten dute, dirua lagunartean elkarbanatzeaz. Beraiek hori egiteko ohitura dute. Guztiek kontsumitzen dutenak prezio antzekoa badu ohitura ona dela diote.

#### **499. "Botea": dirua elkarbanatzea II (IRN-055/025)**

Alaitzen eta Olatzen aburuz, botearen kontuak ez du egoera ekonomikoarekin zer ikusirik. Hau da, diru gutxi duenak ez du botea jartzeko ohitura gutxiago, diru askok duena baino. Lagunartea batzeko modu bat da "botea".

#### **500. Aisaldirako lekuak (IRN-055/026)**

Irundarrak izanda, beraien aisialdia Nafarroako herriekin lotuagoa dago. Alaitzen ustez, irundarrak "erdaldun" etiketa dute inguruko herrietan.

#### **501. Ipar Euskal Herriarekin duten harremana (IRN-056/002)**

Iparraldearekin duten harremana aisialdiarekin lotutako da. Sarri joaten dira Hendaia hondartzara edo egun pasa. Ez dute mugarik ikusten Hego-Ipar Euskal Herriaren artean.

#### **502. Euskal Herriko herrien arteko desberdintasunak parrandari dagokionez (IRN-056/003)**

Olatz eta Alaitz zonalde desberdinetan ibiltzen dira parrandan eta herri bakoitzean nolakoa den kontatzen dute. Nafarroako herri txikitan, herri askotako jendea elkartzen dela diote. Irunera ere jendea parrandara joaten dela kontatzen dute, baina jendeak herriarekiko aurreiritzi asko dituela uste dute.

#### **503. Euskaraz bizi al daiteke Irunen? (IRN-056/005)**

Irunen euskaraz bizi daitekeela diote. Dena den, Olatz B ereduko eskola batean ibili zen eta Unibertsitatera joan aurretik, etxetik kanpo beti gaztelaniaz egiten zuen bere gurasoen hizkuntza-jarrera eredu hartuta. Unibertsitatean, ordea, jarrera aldatu zuen eta bere gurasoek ere ohitura aldatu dutela dio.

#### **504. Euskararen egoera Irunen (IRN-056/006)**

Alaitzek euskara taberna giroan modan dagoela kontatzen du. Euskara kaleko hizkuntza bilakatu den arren, etxeko giroari dagokionez etxean euskara

haurren hizkuntza eta txakurren hizkuntza dela kontatzen du. Eredu hori aldatu egin behar dela pentsatzen dute, Irungo haur askoren kasuan euskara eskolan erabiltzeko hizkuntza soilik baita.

#### **505. Euskararekiko harremana lagun artean (IRN-056/007)**

Olatzek bere lagun taldean euskaraz hitz egiten dutenen eta gaztelaniaz hitz egiten dutenen artean euskararekiko duten harremana nolakoa den kontatzen du.

#### **506. Umorea euskaraz I (IRN-056/009)**

Umorea euskaraz egitea zaila dela iruditzen zaie eta umorea gaztelaniaz egiteko joera ikusten dute. Alaitzek lagunartean dagoenean umorea gaztelaniaz egiten du. Umorea egiteko edo kaleko hizkuntza erabiltzeko orduan euskaraz hitzak falta zaizkiela sumatzen dute.

#### **507. Umorea euskaraz II (IRN-056/010)**

Alaitzek Donostiako eskola batean lan egiten du eta haurrek zein irakasleek gaztelaniazko hitz edo lokailu asko erabiltzen dituztela kontatzen du.

#### **508. Hitanoa (IRN-056/012)**

Euren aitek hika egiten dute, baina lagunartean; alabei ez diete inoiz hiketan egin. Irunen kalean hiketan asko ez hitz egin arren, herriko euskaldun zaharrek hitanoa badakitela esaten dute.

#### **509. Irungo hitz eta esamolde bereziak (IRN-056/014)**

Etiket jaso ditzuten euskarazko hitz bereziak zein esaerak aipatzen dituzte ("Ttattarra" adibidez, pertsona bat argalegia dela esateko).

#### **510. Begirale ibilbidea I (IRN-056/023)**

Olatz udalekuetako begiralea da, baina haurtzaroan behin bakarrik egon da udaleku itxitan. Hala ere, begirale titulua ateratzea erabaki zuen. Euskararen alde egiteko gogoia betidanik izan du eta begirale-praktikak egiteko Irungo "Betti Gotti" elkartearen sartu zen. Horrela, hasi zuen bere begirale ibilbidea.

#### **511. Betti Gotti elkartearen jarduna (IRN-056/024)**

Betti Gotti elkartearen Irunen euskararen egoera hobetzeko sortu zen talde bat da. Elkarrekin hasieran, udalekuetan euskara lantzea zuen helburu, baina pixkanaka helburu horiek zabaltzen joan dira. Elkarrekin egiten dituen ekintzak aipatzen ditu. Udalekuetako haurrei dagokionez, Olatzek urteak egin ahala euskararen erabilera Irun zein Hondarribiko haurrengan jetsi egin dela esango du.

#### **512. San Martzialetako herri-bazkaria I (IRN-056/026)**

Betti Gotti euskara elkarteak, Irungo San Martzialetan herri-bazkaria antolatzen du. Izan ere, San Martzialak alardearen gaiak zizprindutako festak dira eta gazteak, giro goxoagoan egoteko asmoz, herri-bazkaria egitea otu zitzaion Betti Gotti elkarteari.

#### **513. San Martzialetako herri-bazkaria II (IRN-056/027)**

Olatzek San Martzialetako bazkaria antolatzeak zer suposatzen duen kontatzen du eta pertsonalki zer ematen dion. Horrez gain, jendeak bazkari

honen atzean dagoen lanaren inguruko ezagutza eskasa duela azpimarratzen du. Hala ere, euskaldun sentitzen diren irundarrentzat topagune bat da eta hori lorpen garrantzitsutzat du Olatzek.

#### **514. Ahozkotasunaren inguruan lanean (IRN-056/028)**

Egun zertan diarduen kontaktzen du. Soziolinguistika klusterrean lan egiten du ahozkotasuna haurrekin aztertzeke proiektu batean. Euskararen normalizazio bidean indarra erakunde eta herritarrek elkarlanean egin behar dutela uste du.

#### **515. Garai bateko Irun (IRN-057/002)**

Herri txikia izatetik herri handi bat nola bilakatu den kontaktzen du.

#### **516. Amonarekin harreman handia (IRN-057/007)**

Seme gazteena da Josu. Denbora asko pasa izan du amaren aldeko aitona-amonekin. Suarekin izandako istripua zela eta harremana estutu egin zen.

#### **517. Eskola txiki batetik institutu handira (IRN-057/008)**

Saimorren eta Hondarrabiako Ama Guadalupeko eskolan egin zituen lehen ikasketak. Hala ere Irungo institutuan bukatu zuen Batxillergoa. Ondoren Donostian Ingeniaritza ikasi zuen. Dinamarkan egin zuen Erasmusa.

#### **518. Proiektua amaitu eta hurrengo egunean lanean (IRN-057/009)**

Aire girotuaren instalazioari buruzko proiektua egin zuen. Gaur egun CAF enpresan dago lanean.

#### **519. Lana dela eta asko bidaiatzen du (IRN-057/010)**

Beasaingo bulegoan egiten du lan.

#### **520. Lau auto Bidasoatik Beasainera (IRN-057/012)**

Autoa elkarbanatzen dute Bidasoatik Beasainera joan behar duten langileek. 200-300 bat langile dira Beasaingo CAF bulegoan, gehienbat gazteak.

#### **521. Batzuetan bakarrik, bestetan lankideekin (IRN-057/013)**

Bidaiatzen duenean denetarike jendearekin egotea egokitzen zaio. Bere lehen lan bidaia Turkiara izan zen.

#### **522. Euskaldunak oso "zuzenak" (IRN-057/014)**

Denetarik entzun izan du euskaldunen inguruan.

#### **523. Taldean lan egitea, funtsezko (IRN-057/015)**

Taldean lan egitea lana aurrera ateratzeko beharrezkoa dela dio Josuk.

#### **524. Lanaren eta aisiaren arteko oreka (IRN-057/016)**

Adinaren arabera ikuspegia aldatu egiten da, eta oreka bilatzen ere zaila dela dio.

### **525. Teknologia berriak (IRN-057/018)**

Gaur egun mugikorrek eskaintzen dutena behar dela kontatzen du, batez ere lanari dagokionez.

### **526. Lan ordutegia eta kirola uztartzea (IRN-057/019)**

### **527. Mendizaletasuna (IRN-057/020)**

Txikitatik ezagutu du mendia eta pilota. Ondoren, astean zehar korri egitera atera eta asteburutan mendira joaten hasi zen.

### **528. Jaizkibel eta Aiako Harriak (IRN-057/021)**

Bien arteko aldeak aipatzen ditu Josuk.

### **529. Jaizkibel eta suteak (IRN-057/022)**

Natura su hartuta ikusteak min handia ematen dio.

### **530. Anaia Hondarrabiko institutura (IRN-057/024)**

Kuadrillako beste lagun batekin joan zen Irungo institutura.

### **531. Josuren kuadrilla (IRN-057/025)**

Hogeita hamar bat lagunek osatzen bere kuadrilla. Txikitatik gela berean egondako lagunak dira bere lagunik maiteenak.

### **532. Lagunartean euskaraz eta erdaraz (IRN-057/026)**

Denetariko jendea dago Josuren kuadrillan, eta, hortaz, bi hizkuntzetan egiten dute.

### **533. Lanean giro euskalduna (IRN-057/027)**

Gehiena euskaraz egiten dute lanean, jende euskaldun ugari baitago. Hala ere kanpoko jendea ere badago. CAF enpresak bertan euskara bultzatzeko ekimen batzuk antolatzen ditu.

### **534. Mendiko hizkuntza: erdaraz (IRN-057/028)**

Mendiak ukitu euskalduna badu ere, Irun aldeko jendearekin erdaraz egiten du. Batzuek ez dakitenez, elkar ulertzeko erdaraz egiten dute.

### **535. Mendi lasterketak (IRN-057/029)**

Euskal Herrian hasi zen, baina urtez urte herritik urruntzen ari da. Alpetan du hurrengo erronka.

### **536. Lehiaketa eta laguntasuna bateragarriak (IRN-057/030)**

Orokorrean oso giro sano eta jatorra dutela dio Josuk.

### **537. Korrika egitearen tradizioa (IRN-057/032)**

Inguruan ez du uste tradizioa izan denik korrika aritzea, baina orain moda-modan dagoen zerbait dela dio.

**538. Nola sumatzen duzu mendia? (IRN-057/033)**

Jende gehiegi ibiltzen da mendian Josuren gusturako, bideak geroz eta zabalagoak direla.

**539. Mendiarekiko ikuspegia (IRN-057/035)**

Mendia behar beste zaintzen ez dela dio. Bera, pertsonalki ahalik eta gutxien zikintzen saiatzen da, eta topatzen duen zikinkeria jasotzen.

**540. "Mendia urbanizatzen ari gara" (IRN-057/036)**

Inguruan artzainik ia ez dago.

**541. Irungo Mosku plazan hasi ziren ateratzen (IRN-057/038)**

17 bat urterekin hasi ziren ateratzen gauez. San Pedro kalean, alde zaharrean, portuan... ibili izan dira.

**542. Gaur egungo planak (IRN-057/039)**

Sagardotegia, Donostia, Elizondo...

**543. Nafarroa aldera bisita gutxi (IRN-057/040)**

Gurasoek nafarroa aldera joateko bohitura handiagoa zuren Josuk eta bere lagunek baino.

**544. Iparraldera joateko joerarik bai? (IRN-058/001)**

Normalean ez dira Iparraldera joaten, Gipuzkoara mugatu ohi dira kuadrillan. Hendaiaetik ez dira asko urruntzen.

**545. Nafarroatik jende gehiago dator Irun aldera (IRN-058/002)**

Garai batean parrandan irteteko Irunera joaten ziren nafarrak, orain, aldiz, nekez.

**546. Pelotan gipuzkoa mailan (IRN-058/003)**

Maila altuagoko jokalariek Gipuzkoatik irtetezen ziren batzuetan.

**547. Lesakako euskara? (IRN-058/004)**

Jendeak ez dio Irungoa dela sinesten bere euskara dela eta. Bere euskarak Lesakakoarekin antza gehiago du Beasaingoarekin baino.

**548. B ereduan ikasi zuen eskolan (IRN-058/005)**

Eskola B eredukoa zen, erdia euskaraz eta erdia erdaraz. Irakasle batzuek euskaraz egiteko animatzen zituzten.

**549. D eredua = batua? (IRN-058/007)**

Matematika euskaraz egiteko beldurrak B eredura eraman zuen, baina ondoren D eredura aldatzen saiatu zen. Ondoren konturatu zen D ereduok ez zutela zertan euskara maila altuagorik eduki. Unibertsitateko ikasketak gaztelaniaz egin zituen.



**550. Irakurzale eleanitza (IRN-058/008)**

Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez irakurtzen du. Historia, politika eta kirolari buruzkoak gustuko ditu.

**551. Turkian erlijioarekin eta politikarekin talka (IRN-058/009)**

Turkian erlijioak garrantzi handia duela azpimarratzen du, baita politikan ere. ANEKDOTA.

**552. Eibarrera heldu zen 1958an / Llegó a Eibar en 1958 (IRN-059/002)**

**553. Basilio eta Augusto, Eibarko pediatrak / Basilio y Augusto, pediatras de Eibar (IRN-059/004)**

**554. Baserrietara gaixoak ikustera / Visitando enfermos en los caseríos (IRN-059/005)**

**555. Haurrentzat zaintza-gela Legarreko babes-etxean / Sala de vigilancia infantil en el asilo de Legarre (IRN-059/006)**

**556. Instrumental sanitario / Osasun-tresneria (IRN-059/007)**

**557. Errege gaueko larrialdi bat / Urgencia la noche de Reyes (IRN-059/008)**

**558. Hogeit hamar autobus joan eta berrogei bueltatzen ziren / Se iban veinte autobuses y volvían cuarenta (IRN-059/009)**

**559. Maria Jesus Crespan, Ermuko emagina / Mara Jesus Crespan, la comadróna de Ermua (IRN-059/011)**

**560. Osasun-maletinean zeramana / El maletín sanitario (IRN-059/012)**

**561. Eibarren bizitza gogorrari buruz ikasi zuen / En Eibar aprendió sobre la dureza de la vida (IRN-059/015)**

**562. Eztei-bidaia Vienan / Viaje de novios en Viena (IRN-059/016)**

**563. Carmen Aramberriren pentsioa Estaziño kalean / La pensión de Carmen Aramberri en la calle Estación (IRN-059/018)**

**564. Eibarrera lanera etorri ziren italiarren laguna / Amigo de los italianos que llegaron a Eibar a trabajar (IRN-059/019)**

**565. Eibarren diru asko zegoen / En Eibar había mucho dinero (IRN-059/020)**

**566. Frankorentzat medikuak ezkertiarrak ziren / Para Franco, todos los médicos eran de izquierdas (IRN-059/022)**

**567. Frankismoko Gizarte Segurantzako Egoitzak/ Residencias de la Seguridad Social del franquismo (IRN-059/023)**

**568. Eibarko medikuak / Médicos de Eibar (IRN-059/024)**

**569. Poliomieltisaren birusa / Virus de la poliomieltis (IRN-059/025)**

**570. Olio-arbiaren gaitza / Enfermedad del aceite de colza (IRN-059/028)**

**571. Tuberkulosia Eibarren / La tuberculosis en Eibar (IRN-059/033)**

**572. Penizilina / La penicilina (IRN-059/035)**

**573. Beherakoa eta deshidratazioa / Diarrea y deshidratación (IRN-059/036)**

**574. Unibertsitate garaia / Época universitaria (IRN-059/038)**

**575. Erremedioak eta sendabelarrak / Remedio caseros (IRN-059/040)**

**576. Edoskitzearen garrantzia / La importancia de la lactancia (IRN-059/041)**

**577. Pediatraren soldata Eibarren / Sueldo de pediatra en Eibar (IRN-059/042)**

**578. Gaixoen opariak medikuari / Regalos de los pacientes al pediatra (IRN-059/043)**

**579. ALFA-ren haurrentzako kontsultategia / Consultorio infantil de ALFA (IRN-059/044)**

**580. ALFA-ren josteko makina nesken eskoletan / Maquinas de coser ALFA en las escuelas para niñas (IRN-059/045)**

**581. Albistegi Tabernako tertuliak / Tertulias en el Bar Albistegi (IRN-059/046)**

**582. Eibar oso garrantzitsua izan da bere bizitzan / Eibar supuso mucho en su vida (IRN-059/050)**

**583. Eskopetaren bila Eibarrera joan zen toreroa / El torero que fue a Eibar a por su escopeta (IRN-059/051)**

**584. Eibarren denetariko jendea zegoen / En Eibar había personas de todo tipo (IRN-059/052)**

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2025-12-29*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkarte  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com